

goiena

Zu hemen zaude.



EUSKARAZKO ZIRKUAREN XARMA

Ume eta heldu, guztiak erakarri ditu 'Gure zirkua'-k; Eskoriatzan eta Elgetan izango da / 5

Gure zirkua-ko lantaldea, Iker Galartza buru dela -eskuinaldean-, Eskoriatzan, eguaztenean.

XABIER URZELAI

Errefuxiatuak hartuko dituzte Oñatin

Irailaren bukaeran hasiko dira errefuxiatuak eta asilo eskatzaileak hartzen, Larraña auzoan, Eltzia atzean dagoen eraikinean / 3

MUK gaur egin du ikasturte hasiera ekitaldia; UNEDek egoitza berria estreinatuko du / 6

Presoak gogoan, 18 musika talde Arrasaten zapatuan, espetxe politika aldatzea eskatzeko / 12

SINADURAK

 IDOIA PEÑAKOBA / 8	 MIGUEL LAZPIUR / 26
 NEREA MAKAZAGA / 12	 ALAZNE GURIDI / 32
 XABI IGOA / 17	 MIKEL IRIZAR / 48

Azoka, danborradak, musika eta suzko erruberrak Bergarako San Martin jaietan asteburuan / 24

Goibeko elkarteak Euskaltzaleen Egunean parte hartzera deitu ditu elgetarrak / 29

puntua + Artzain txakurren txapelketen tradizioa bailaran
Iker Galartza pailazo eta aktoreari elkarriketa

ALKIDEBA
SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU

MAKINERIA ALOKAIRUA ERAIKUNTZARAKO ETA INDUSTRIARAKO

Maltzaga - Sorluze errepidea.
Tel.: 943 75 15 54 • Sorluze (Gipuzkoa)

Goitondo Industriaduneta, 3. pabliola
Tel.: 943 17 13 62 • Mallabia (Bizkaia)

administracion@alkideba.net

Saskibaloitza taldearen babeslea

OINTXE!



"Osasun baskularra zaindu behar da, barizeak ez dira estetika kontua bakarrik"

SANTIAGO RODRIGUEZ CAMARERO ETA **ROBERTO DOMINGUEZ** DOKTOREAK
Angiologian eta Kirurgia Baskularrean espezialistak dira Quironsalud Vitoria Ospitalean. Ondorengo lerroetan, barizeak tratatzeko azken aurrerapenez dihardute

Noiz da komenigarria Kirurgia Baskularreko kontsultara joatea lehen aldiz?

Pazientea hanketan lehen sintomak igartzen hasten denean da gomendagarria kontsultara joatea: astuntasuna, hantura, nekea, karranpak... baita lehenengo barizeak edo armiarmatxoak agertzen direnean. Izan ere, gaixotasun hori hobeto tratatzen da hasierako faseetan. Hori azpimarratu du Dominguez doktoreak.

Hala ere, denbora pasatzen uzten badugu, barizeak garatzen joaten dira eta, azkenean, tratamenduek arrisku handiagoa ekar dezakete.

Zauri txikiko teknika gero eta gehiago daude. Beti saihestu daiteke kirurgia egin behar izatea?

Rodríguez Camarero doktoreak dioenez, gaur egun, patologia baskularren %75 trata daitezke *zauri txikiko teknika*-k erabiliz; teknika horiek arrisku gutxiago dakarte, eramangarriagoak dira, ez da ospitaleratze beharrik izaten eta erreperazioa azkarragoa da.

Edozelan ere, kasu guztietan ezin daiteke ohiko kirurgia saihestu; izan ere, patologia batzuek ohiko kirurgia behar



Barizerik gabeko hankak izateak adierazten du osasun baskularra ona dela..

izaten dute emaitza ona garrantzitu ahal izateko.

Zelan erabakitzen da zein kirurgia mota dagokion paziente bakoitzari?

Dominguez doktoreak dio tratatu beharreko barize mota aztertu behar dela lehenengo, pazientearen osasuna hobetuko duen soluzioa topatzeko eta, horrekin batera, emaitza estetiko ona ere eman diezagun.

Horretarako, Eco Doppler Color erabiltzen dugu. Proba horrek ez du minik ematen eta datu diagnostiko nagusiak ematen dizkigu kirurgia baten edo bestearen alde egiteko. Horixe gehitu du Rodríguez Camarero doktoreak.

Bestalde, kontuan hartu behar da nor den pazienteak, zein arrisku propio dituen –adina, dia-

betesa, tentsio altua...–, zenbat denbora behar duen errepereratzeke...

Ez da berdina ondo errepereratzeke egun batzuk har ditzakeen pertsona bat edo lanera joan behar duen pertsona bat. Eta, jakina, ez da berdina 30 urteko paziente bat edo 75 urteko bat.

Zertan dautza irrati-frekuentzia eta mikroaparra? Zein desberdintasun dago bi teknika horien artean?

Dominguez doktoreak azaldu du irrati-frekuentzia teknikaren bidez beroa ematen zaiola zainari, hura ixtea eragiteko. Anestesia lokalarekin eta sedazio arinarekin egiten da eta gorputzak ondo onartzen du kasu gehienetan.

Mikroapar teknika, berriz, anestesia barik egiten da; hain zuzen, zain kaltetuetan hainbat ziztada ematen dira, zainaren paretan min kimiko kontrolatua eragiteko eta, horrela, hura ixteko eta desagerrarazteko. Barize mota ia guztietan eta armiarmetan erabil daiteke eta emaitza estetiko ona lortzea du helburu.

Teknika bien arteko desberdintasuna da mikroaparrak saio gehiago behar dituela eta irrati-frekuentzia saio bakarrean egiten dela.

Pazienteak, batez beste, zenbat denbora behar du errepereratzeke eta bizimodu normala egiteko?

Dominguez doktoreak azpimarratzen duenez, ebakuntza motaren arabera da hori.

Bai irrati-frekuentziarekin, bai mikroaparrarekin, pazienteak bizimodu normala egin dezake lehen egunetik aurrera.

Kirurgia bat egiten bada, berriz, erreperazioa bestelakoa da: hamabost egun CHIVA teknika erabili baldin bada eta hilabe-

te edo gehiago ohiko kirurgia egin baldin bada.

Komenigarria da segimendua egitea?

Rodríguez Camarero doktoreak baieztatzen duenez, komenigarria da aldizkako segimendua egitea; izan ere, zain-gutxiagitasun kronikoek berriro agertzeko joera dute, ondo tratatuak izan badira ere.

Doktorearen iritziz, egokiena da Eco Doppler bat egitea urtean behin, garaiz diagnostikatu ahal izateko eta, horrela, bai jarraibide prebentiboak ezartzen joateko, baita tratamendu mediko farmakologikoak ere.

Zer da ohikoagoa, pazienteak kontsultara joatea kontu estetikoagatik ala osasun arazo larriagoagatik?

Rodríguez Camarero doktoreak dioenez, pazientearen arabera da hori, eta, batez ere, zein sexutakoa den. Emakumezkoak gehiago joaten dira estetikagatik eta gizonezkoak, berriz, osasun arazoagatik.

Edozelan ere, doktoreak gehitzen duenez, garrantzitsua da pazienteek jakitea kasuen %90ean, denborarekin, bariak berriak sortzen direla eta tratamendua berriro egin beharra dagoela.

Estetikari dagokionez, igarri duzue gizonezko gehiagok egin nahi izaten dutela ebakuntza mota hori?

Doktore biak bat datoz: gizonezkoak gero eta gehiago kezkatzen dira euren itxura fisikoaz eta euren osasunaz; izan ere, gero eta gizonezko gehiago joaten dira kontsultara.

"KASUEN %75 INGURU TRATA DAITEZKE 'ZAU RI TXIKIKO TEKNIKEN' BIDEZ"

Kirurgia baskularra

Espezialistak zure sistema baskularren zainketan

- Zauri txikiko teknikak erabiltzen ditugu barizeak tratatzeko
- Mikroaparra - Irrati-maiztasuna

Eskatu hitzordua:
quironsalud.es/portal-paciente/es

RPS 122/18

Zerbitzulariak: Santiago Rodríguez Camarero eta Roberto Domínguez Folgado, Medikuntzan eta Kirurgian Ipezitadunak. Asistentzia-arduradunak: Armando Correas doktorea, Medikuntzan eta Kirurgian Ipezitadunak.

Hospital Quirónsalud Vitoria
Esperantza kalea 3 - 01002 Vitoria-Gasteiz
945 252 500
Ordue eskatzeko
901 500 501

Hospital **quirónsalud**
Vitoria

Errefuxiatuak artatzeko zentroa Oñatin

Oñatiko Larraña auzoan, Eltzia atzean dagoen eraikina errefuxiatuak eta asilo eskatzaileak jasotzeko zentro bilakatuko da. Irail bukaerarako aterpetxea guztiz egokituta egotea eta beharra duten lehenengo pertsonak jasotzea aurreikusten dute



Errefuxiatuak artatzeko bideratuko duten eraikina Larraña auzoan. OIHANA ELORTZA

Josu Bilbao DEBAGOIENA

Errefuxiatuak eta asilo eskatzaileak jasotzeko aterpetxe bat irekiko dute Oñatin, Larraña auzoan, irail bukaeran. Zentroak 100 lagunendako edukiera izango du eta CEAR Euskadi elkarteak –Errefuxiatuei Laguntzeko Euskadiko Batzordea– kudeatuko du, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia-rekin elkarlanean.

"Iraila bukatu aurretik irekitzea da helburua. Ea gai garen, zerbitzu asko kudeatu behar ditugulako. Orain, eraikinean lan batzuk egin beharko dira, izango ditugun beharrei egokitzeko", azaldu du CEAR Euskadiko zuzendari Patricia Barcenak.

Euren egoera argitzeko zain dauden eta nazioarteko edo aberri-gabeentzako babesa eskatu duten pertsonen eta familien ostata, orientabidea eta desbideratzea eskaintzea izango da aterpetxearen helburu nagusia. Salbuespen gisa, premia bereziko egoerak gertatzen direnean, zentroak zaurgarritasun egoeran edo iragaitzako egoeran dauden edo Euskadira iritsi berriak diren migratzaileak ere hartu ahal izango ditu. Aterpetxeak, hasieran, 100 plaza baditu ere, beharra sortuz gero, kopuru

hori handitzeko aukera egongo litzateke. Pertsona batek zentroan hiru hilabete igaro baditzake ere, epe hori laburtu edo luzatu egin ahal izango da.

"Oinarrizkoena pertsona horiei atsedena, hasierako mantenua eta orientazioa eskaintzea da. Etorri berriak izaten dira eta prozedura juridiko eta legalak ez dituzte ezagutzen. Horrela, 15 egun eta 3 hilabete arteko denbora egongo lirateke pertsonak, gutxi gorabehera, aterpetxe honetan. Denbora horretan, kokatzeaz eta informazioa jasotzeaz gain, gaztelera eta euskara ikasteko aukera emango zaie. Gure kultura eta aisialdia nolakoa den ezagutzeko aukera eman nahi diegu", dio Barcenak.

"CEAR Euskaditik hilabeteak daramatzagu lanean, horrelako zentro baten bila. Hainbat erai-kin eta egoitza bisitatu ostean, azkenean, errealitate bilakatuko da proiektu hau. Oñatiko Udalarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batzarrak egin ditugu, eta, noski, helburua Udalarekin eta beste hainbat eragilerekin elkarlanean aritzea da. Ikastetxeekin, udalekuekin edota Oñatin burutuko diren beste ekimen eta ekintzen lankidetzeta sustatu nahiko genuke", azaldu du CEAR Euskadiko zuzendariak.

Euskaraldian izena eman daiteke eguenetik aurrera

Irailarekin batera martxan jarriko da berriz ere Euskaraldia hainbat ekimenekin. Horrela, datorren eguenean, irailaren 20an, *Euskaraldia: 11 egun euskaraz* ariketa sozialean parte hartzeko izena emateko epea irekiko dute –16 urtetik gorakoek bakarrik eman ahalko dute izena–. Izan ere, azaroaren 23tik abenduaren 3ra, *ahobizi* edo

belarriprest ikurra soinean eraman eta hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa egitea da ekimenaren helburua.

Udako oporrak heldu aurretik aurkeztu zituzten Debagoieneko herri gehienek Euskaraldian eragile zuzen izango diren euren hamaikakoak. Eskoriatzan, ostera, datorren eguaztenean aurkeztuko dute. Hamaikakoan "aniztasuna islatu" nahi izan dutela azaldu du Eskoriatzako Udaleko Euskara teknikari Mari Karmen Arrietak.

ASPALDIKO!

EUSKARA

BERRIRO

ZURE

BIZITZAN.

18/19 Matrikula epea zabalik
Plazo de matriculación abierto

UDAL
EUSKALTEGIAK



BEDITA LARRAKOETXEA
UDAL EUSKALTEGIA
Bidebarrieta, 18
Oñati.
Tel.: 943 78 24 96
euskaltegia@onati.eus

ARRASATEKO
UDAL EUSKALTEGIA
Animazubi plaza, 2.
Tel.: 943 79 70 77
euskaltegi@arrasate.eus

BERGARAKO
UDAL EUSKALTEGIA
Barrenkalea, 33
(Irizar jauregia).
Tel.: 943 76 44 53
euskaltegia@bergara.eus

LEINTZ
UDAL EUSKALTEGIA
Nafarroa 2 - Arebabaleta
Inbaurbuetza 9 - Eskoriatza
943 79 21 68
idazkaritza@udaleuskaltegia.eus



Musakolako kiroldegiko kanpoko igerilekuak, Arrasaten. JOSU BILBAO

Agur bainu denboraldiari

Uda bukatzen doa eta dagoeneko itxi dituzte bailarako azken kanpoko igerileku eta bainurako gunehienak. Herrietako arduradunek denboraldiko balorazio "oso positiboa" egin dute, nahiz eta intzidentziaren bat edo beste ere izan den aurten

Josu Bilbao DEBAGOIENA

Irailarekin batera heldu da bainu denboraldiari agur esateko garaia, eta Debagoieneko herrietako kanpoko igerilekuak, urtxorroten gunek eta eguzkia hartzeko berdeguneak urteko azken txanpan sartu dira.

Irailaren 2an itxi zuten Eskoriatzako kiroldegian dagoen umeendako kanpoko igerilekua. Eguzkia hartzeko alboan dagoen berdegunea, hala ere, domekara arte egongo da irekita. Kiroldegiko arduradunek azaldu duteenez, aurten ere jende ugari ibili da haurrendako kanpoko igerilekuan. "Batez ere, eguraldi ona egin duen egunetan" bete egin dela azaldu dute. Kiroldegian, umeen igerilekuan dagoen belargunea, bestalde, domekara arte egongo da irekita.

Aretxabaletako Ibarra kiroldegian dagoen eguzkia hartzeko

gunea –belar artifizialezko berdegunea– irekita egoten da urte osoan; hala ere, aulki eta etzaulkiak eguraldia kaskartu ahala kenduko dituzte. Igerileku eta spa zerbitzuaz gozatzeko aukera ere urte osoan izango dute Aretxabaletako kiroldegian.

Bergaran, Agorrosinen dauden igerilekuak gaur itxiko dituzte. Iaz edukiera arazo ugari izan ostean, aurten "funtzionamendua ezagututa" gauzak hobeto joan direla azpimarratu du Bergarako Udaleko Kirol teknikari Iñaki Ugarteburuk. "Edukiera egun zehatz batzuetan bete egin da, baina herritarrek badakite igerilekuek muga hori dutela. Hala ere, orokorrean ondo joan dela uste dut. Pozik gaude", dio Ugarteburuk. Berritasuna izan dira aurten berdegunean jarri dituzten freskatzeko aukera ematen zuten ihintzagailuak.

Arrasaten, Musakolako igerilekuak lepo bete dira, aurreko urteetan bezala. Domekan eman go diote bukaera denboraldiari eta balorazioa oso positiboa da, Arrasateko Udaleko Kirol zinegotzi Ander Garayk aipatu duen moduan: "Aurreko urteko datuekin alderatuta, erabiltzaileen igoera izan dugu: %11koa, hain zuzen ere. Arrasatearrek Musakolako igerilekuak aukera on moduan hartzen dituztela esan nahi du horrek, 7.000 erabiltzaile gehiago izan ditugulako udako kanpaina hasi zenetik. Iaz, 53.000 erabiltzaile izan genituen

MUSAKOLAKO IGERILEKUETAN IAZ BAINO 7.000 ERABILTZAILE GEHIAGO IZAN DIRA

eta aurten, 60.600 inguru. Gainera, uztailaren 9an, 10ean eta 23an egun osoan 1.500 erabiltzaile baino gehiago igaro ziren igerilekuetatik; erabiltzaile gehien izan diren egunak izan dira".

Intzidentziei dagokienez, 134 artatze egon dira uda osoan. "Normalean, arinak izaten dira, baina aurten, gizonezko bati bihotzeko bat eman zion denboraldia hasi eta astebetara. Sorosleek uretatik atera zuten, eta, zorionez, onik irten zen", azaldu du Garayk.

Gainera, Udala auzoan dagoen Uxarte jatetxeko igerilekua ere domekan itxiko dute. Uda osoan irekita egon ostean, oporrak hartuko dituzte bertako jabeek.

Usakon soroslerik ez

Oñatiko errekan sorosle zerbitzua eskaini zen azken eguna irailaren 9a izan zen. "Uda normal joan da. Usakon, denboraldi hasieran izan genituen erabiltzaile gehiago eta edukiera azken egunetan jaisten joan da. Jendea ibili da, eta aste bukaeretan nabaritu egin da kanpotik ere jendea gerturatu dela", azaldu du sorosleak kudeatzen dituen E-goitek enpresako koordinatzaile Asier Arregik. Errekan bi salbamendu egin behar izan dituzte sorosleek. "Bi pertsona atera behar izan genituen uretatik, hain zuzen ere. Hala ere ez dira intzidentzia larriak izan", dio sorosleak.

Horrez gain, Zubikoa kiroldegian dagoen belardia irailaren

28ra arte egongo da zabalik, oraindik eguzkia hartzeko aukera eskainita.

Ur-parkeak, arrakastatsuak

Azkenaldian, arrakasta izaten ari dira freskatzeko ur txorrotekin osatutako parkeak, eta Debagoienean ere umez beteta egon dira gunehien udan zehar. Oñatiko Ugarkalde auzoan dagoen ur-txorroten gunek aste honetatik urriaren 14ra arte ordutegi berezia izango du. As-teheneetik egubakoitzera 13:00etatik 21:00etara eta zapa-tuetan, domeketan eta jaiegunetan 11:00etatik 21:00etara.

Antzuolan, bestalde, eguraldiaren arabera erabakiko dute ur jolasak eta ur txorrotak eskaintzen dituen gunea noiz itxi.

Berritasunak datorren urterako

Bergaran, hil bukaerarako aurreikusita dago Agorrosinen egingo dituzten lanei oniritzia ematea. Izan ere, helburua da datorren udarako ekipamendu berria prest edukitzea eta horretarako beharrezkoak diren lanak udazkenean abiaraztea. Hain zuzen, igerilekuen alboko berdegunean ur txorrotak eta jolasak edukitzea da asmoa.

Oñatin, bestalde, Zubikoa kiroldegia berritze bidean dago. Igerileku handia bost kaletik zortzi izatera pasako da eta haurrendako ere handiagoa izango da. Lan horiek 2019ko udako bainu denboraldiaren ostean hastea aurreikusten dute.



Autoak erakusgai, Citroen Chapimen. E.A.

Bailaran ere igo dira salmentak

Abuztuan, azken urteetako hazkunde handiena izan da autoen salmentetan; Europar Batasunak irailaren 1ean jarri du martxan autoen kontsumoa eta gas igorpenak kontrolatzeko neurri berria, eta horrek azken uneko matrikulazio uholdea eragin du

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Ezohiko abuztua izan da hau automozio sektorean. Izan ere, azken urteetako salmenta onenak izan dituzte kontzesionarioek hilabete horretan.

Kontua da 2018ko urtarriletik aurrera, kontsumoa eta gas igorpena neurtzeko sistema harmonizatu egin dela mundu osoan, WLTP (Worldwide Harmonised Light Vehicle Test Procedure) izenpean. Hala ere, kontzesionarioek iaz fabrikatutako autoak dituzte oraindik stockean; lehengo sistemarekin neurtutakoak, alegia. Europar Batasunaren lege batek zehazten duenez, irailaren 1etik aurrera, markek stockean dituzten autoen %10 izan daitezke soilik lehengo sistemarekin neurtutakoak.

Hori dela eta, lehengo sistemarekin neurtuta zeuden autoak lehenbailehen stocketik atera

guran, kontzesionario ugari beharpenak ezarri dituzte uda osoan, %20 eta %30 artekoak, eta horrek eragin du salmentek inoiz baino gehiago gora egitea; batez ere, abuztuko azken bi asteetan.

Debagoiengan ere emaitza onak Autoen salmentak, oro har, gora egin du Debagoiengan ere epe horretan. Ford Mugarrik, Citroen Chapimek eta Gorla Auto Grupek iaz baino emaitza hobekak izan dituzte abuztuan. Hala ere, bada kontrako eragina jasan duenik. Imanol Aranburu Eus-

BAILARAN ORO HAR EMAITZA ONAK IZAN DIREN ARREN, BADA UDA "AHULA" IZAN DUENIK ERE

koautoko komertzialak azaldu du "oso uda ahula" izan dela. "Gure auto guztiak neurketa sistema berriarekin neurtuta daude maiatza ezkerro, eta ez dugu likidatzeko beharrik eduki. Beraz, iazko abuztuarekin alderatuta, %25 inguru jaitsi zaizkigu salmentak".

Automatrikulazioek, gora Beherapenak aplikatzeaz gain, kontzesionarioek hartu duten beste bide bat automatrikulazioena izan da; hau da, autoak euren buruari saltzea. "Salmentak iazkoak baino hobekak izan

DATORREN URTEKO ABUZTUAREN 31RA ARTE DUTE AUTOMATRIKULATUTAKO AUTOAK SALTZEKO

dira, bai, baina gustatuko litzaidake jakitea saldu diren autoetatik zenbat eman zaizkien bezeroei eta zenbat automatrikulatu diren", azaldu du Chapimeko arduradun Mikel Loitik.

Auto horiek zero kilometrokoak izango dira aurrerantzean bigarren eskuko merkatuan, eta, Ander Aranburu Gipuzkoako Automozio Enpresen Elkarte arduradunaren esanetan, kontzesionarioek 2019ko abuztuaren 31ra arte dute auto horiek saltzeko. "Auto horiek, aurrerantzean ere, prezio onean izango ditugu, noski", dio.

Zergak

WLTP azterketa sistema NECD (New European Driving Cycle) baino errealistagoa dela uste dute European, bai autoek igortzen dituzten gasen zenbatekoari dagokionez, baita zenbat erregai kontsumitzen duten jakiteko ere. Baina, era berean, neurketa zorrotzagoa egiten du, eta horrek matrikulazioetako zergetan izango du eragina. Izan ere, kontsumoaren eta igortzen duen gas kopuruaren arabera, zerga bat edo bestea ezartzen zaio auto bati: 120 miligramo CO₂-tik behera kontsumitzen dutenek ez dute zergarik ordaintzen; 120-160 mg artean kontsumitzen dutenek %4,65 ordaintzen dute; 160-200 bitartekoak, %9,75; eta 200etik gorakoak, %14,75. Aranburuk adierazi duenez, auto berak emaitza desberdinak ditu lehengo sistemarekin edo berriarekin neurtuta, eta horrek, kasu batzuetan, eragina du ordaindu beharreko zergan.

"Seriotasun falta"

Ford Mugarriko arduradun Rafa Etxabek "inkoherentzia eta seriotasun falta" nabaritzen du fabrikatzaileen eta instituzioen aldetik. "Marketin eta publizitate kanpaina erraldoi bat egin dute, herritarrak nahasteko. Kontsumo eta gas igorpenarengatik zergetan diferentzia handia egongo zela saldu nahi izan diete, eta benetan diferentzia txikia da. Desinformazio handia dago. Aldaketa txiki bat izan arren, izugarrikoa balitz bezala saltzen dute, eta hori ordaintzen dutenak herritarrak dira, erosteagatik erosten dutelako, presaka eta ezer baloratu gabe. Iruzur handi bat izan da. Gauzak beste modu batera egin beharko lirateke", aldarrikatu du.



A.A.

"Sistema berriak eragin du guztia"

ANDER ARANBURU
ENPRESARIA

Gipuzkoako Automozio Enpresen Elkarte arduraduna da Aranburu. **Zergatik gertatu da horrenbesteko hazkundera abuztuan?**

Prezio onak eskaini ditugulako. Baina jakin beharrekoa da zergatik eskaini ditugun prezio horiek. Izan ere, European, legeak dio irailaren 1etik aurrera markek stockean dituzten autoen %10 izan daitezkeela gehienez lehengo sistemarekin neurtutakoak. Beraz, markek esfortzu bat egin behar izan dute sistema zaharrarekin neurtutako autoak saltzeko irailaren 1a baino lehen.

Deskontuak handiak izan dira?

Denetik egon da, markaren arabera. Baina %20-30 bitartekoak izan dira.

Zer egingo duzue orain autoen %10 horrekin?

Lehengo sistemarekin neurtutako autoak, stockean gelditu zaizkigunak, 2019ko abuztuaren 31a baino lehenago saldu beharko ditugu. Auto horiek prezio onak izango dituzte, noski. Gainera, azpimarratu gura dut autoak berdina direla. Diferentzia bakarra da batzuk lehengo sistemarekin neurtuta daudela eta beste batzuk, sistema berriarekin. Baina ez dira hobekak edo okerragoak horregatik.



Leintzeko Udal Euskaltegiko ikasleak, klase batean. LEINTZEKO UDAL EUSKALTEGIA

Matrikulazio kanpaina abian, euskara ikasteko

Debagoieneko udal euskaltegiek eta AEK-k martxan dute 2018-2019 ikasturterako matrikulazio kanpaina; AEK-k, gainera, ateak irekitzeko jardunaldiak egingo ditu irailaren 18an, eta euskara-eskola bat dohainik jasotzeko aukera eskainiko du

Eneko Azurmendi DEBAGOIENA

Modu berezian hasiko du aurten ikasturtea Debagoieneko AEK-k. Izan ere, irailaren 18an, ateak irekitzeko jardunaldiak egingo dituzte Arrasaten. Oskar Elizburu AEK-ko kidearen esanetan, ekimen horrek euskara ikasteko metodologia komunikatiboa eta praktikoa zer den bertatik bertara ezagutzeko aukera eman dio probatu nahi duenari.

11:00etan, A1 mailako en eskola izango da, ezer edota ia ezer ere ez dakitenentzat. 18:00etan, berriz, A2 mailakoentzat, euskararekin lehenbiziko kontaktua egingo dutenentzat.

Eskola horietara joan nahi dutenek izena eman beharko dute, "ikasle kopurua jakinda eskola hobeto prestatu ahal izateko". Horretarako, bide hauek erabil ditzakete: Garibai 14an dagoen AEK euskaltegira gerturatu, 943 77 03 69 telefonora deitu, arrasate@aei.eus helbidera idatzi edota www.aei.eus-en sartu eta izena eman.

Ikasturteari begira jarrita, maila ofizial guztiei begirako eskaintza du AEK-k: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2-ko eskolak. Dagoeneko eman daiteke izena ikasturte berrirako, aipatutako bideak erabiliz. Arrasateko Udalen diru laguntzari esker, matrikula merkeagoa da arrasatearrentzat eta Arrasateko ikasle, erretiratu eta langabeek matrikula erdia ordainduko dute.

Udal Euskaltegiak

Bestalde, Arrasateko, Bergarako, Leintzeko eta Oñatiko udal euskaltegiak ere martxan dira ikasturte berriari aurre egiteko, eta matrikulazio kanpaina irekita dute, *Aspaldiko! Euskara berri-
ro zure bizitzan* lelopean.

**IZENA EMATEKO DEI
EGIN DIETE
HERRITARREI, BAI
UDAL EUSKALTEGIEK,
BAITA AEK-K ERE**

A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailako euskara eskolak eskaintzen dituzte, euskara ikasteko eta hobetzeko ikastaroak, alfabetizazioa, idazmena lantzeko ikastaroak. "Eskaintza zabalagoa izatea nahiko genuke, saio gehiago eskaintzea, baina hori eskeraren araberakoa izango da. Beraz, herritar guztiak animatzen ditugu euskaltegian izena ematera, euskara ikasteko, hobetzeko edo dena delakorako", dio Karmele Agirregabiriak, Leintze Udal Euskaltegiko zuzendariak.

Arrasateko Udal Euskaltegian izena emateko, 943 79 70 77 telefonora deitu, edo euskaltegi@arrasate-mondragon.net helbidera idatzi; Bergarakoan izena emateko, 943 76 44 53 telefonora deitu edo euskaltegia@bergara.eus helbidera idatzi; Leintzekoan izena emateko, 943 792 168 telefonora deitu edo idazkaritza@udaleuskaltegia.com helbidera idatzi; Oñatikoan izena emateko, 943 78 24 96 telefonora deitu edo euskaltegia@onati.eus-era idatzi.

2018-2019 ikasturteari ekiteko gertu dira MU eta UNED

MUK bost master eta graduondo gehiago eskainiko ditu; UNEDek, berriz, 27 gradu eskainiko ditu, guztira

E.A. DEBAGOIENA

Mondragon Unibertsitateak gaur aurkeztuko du ikasturte berria, 12:00etan Hernanin, Orona Ideo-ko campusean, eta Vicente Atxa errektoreaz gain, beste hainbat goi kargudun ere han izango dira. Ikasturte berriari begira, bost master eta graduondo gaineratuko ditu unibertsitateak eskaintzen dituen lau ezagutza-eremuetara: Ingeniaritza, Hezkuntza, Enpresagintza eta Gastronomia, hain zuzen ere.

Lehenik, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak Haur Hezkuntzako Berrikuntzan irakasle eta aditu izateko titulua eskainiko du.

Bestalde, Goi Eskola Politeknikoak Fabrikazio Aditibo Industrialean masterra eskainiko du. 1.500 orduko master presentzial bat izango da, eta urrian hasi eta uztailean amaituko da, Ordiziako campusean.

Basque Culinary Centerrek bi graduondo berri izango ditu –Gastronomia Zientzien Fakultatea eta BCC Innovation Gastronomia Zentro Teknologikoa hartzen ditu barne–: Food & Bervageko Zuzendaritzan Masterra, hotelen sektoreari bideratua. Eta Jangela eta Bezeroen Arretako Zuzendaritza.

Azkenik, Kirol Berrikuntzan eta Kudeaketan Graduondoa eskainiko du, Mondragon Team Academyekin eta Wats deuterikoarekin lankidetzan.

Bost master eta graduondo berriez gain, 16 unibertsitate-

master eta 19 titulu propio eskainiko ditu hurrengo ikasturtean Mondragon Unibertsitateak.

UNED

UNEDek 27 unibertsitate gradu eskainiko ditu aurten; tartean, Psikologia, Zuzenbidea, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza eta Geografia eta Historia eta Kriminologian gradua. Graduen katalogoaz gain, 76 master eta 19 Doktoretza Programa eskaintzen ditu. Bestalde, unibertsitate ikasketak egin nahi, baina ikaseta nahiko ez dutenei, 25 eta 45 urtetik gorakoei, aukera eskaintzen die.

Graduetan onarpena eskatzeko epea urriaren 23ra arte zabalik egongo da. Master, Gradu eta 25 eta 45 urtetik gorakoentzako ikastaroetan matrikulatzeko epea egun berean itxiko da. Hizkuntzak ikasteko saioen matrikulazioa azaroaren 8an amaituko da, eta Formakuntza Iraunkorreko ikastaroetako abenduaren 1ean.

Egoitza berritua

UNEDek Bergaran duen egoitzan berrikuntza integrala egin dute, eta lanak irailaren 24an bukatuko dituzte. Hurrengo egunetan egingo dute inaugurazio ofiziala–oraingoz zehazteke–, eta urriaren 16an eta 19an, bergarrei zuzendutako ateak irekitzeko jardunaldiak izango dira.

Ikasturte hasierako ekitaldia urri bukaeran edo azaro hasieran egingo dute –zehazteke–.

BIODANTZA 626 66 12 92
astea Iraila 2018
Egunerokoa magikoa bihurtzen da

ASTELEHENA 17
Bergara, 18:30.
Mariaren Lagundia Ikastola
Menbu Arjonilla - 626 66 12 92

ASTEARTEA 18
Eiorri, 18:30.
Txinbirri Ikastola
Menbu Arjonilla - 626 66 12 92

ASTEAZKENA 19
Arrasate, 19:30.
Arrasate Yoga Elkarte
Rakel Ampudia - 679 44 12 29

www.biodanzabal.com
www.biodanzaescuelaoficial.com

GUTUNAK

Atxorrotx gazteluko festa, auzolanaren algarra**JUAN LUIS ZUBIZARRETA ALEGRIA**

ESKORIATZAKO ATXORROTX KULTURA

ELKARTEAREN IZENEAN

ESKORIATZA

Gabriel Arestik bere poesian *harria eta herria* batu zituen. Ez dakigu gure Atxorrotx mendia ezagutzen zuen, baina ziur gaude inspirazio iturri handia izan zitekeela poetarentzat. Herriko babesle naturala, gure arbasoen etxea defenditu duen gotorlekua.

Nafarroako Erresumak Gipuzkoan izan zuen gaztelu bat izan zen, zaharrena, eta erresumaren tenentzia bezala denbora gehien iraun zuena. Gipuzkoa osoa Aitzorrotzeko tenentziaren agindupean egon zen gazteluaren lehenengo garaletan.

Gure historiaren lekukoa izan da Atxorrotx, inoiz

ahaztu behar ez ditugun pasarteen lekuko. 1936ko irailean, orain dela 82 urte, frankista-faxistek armaz gure herria okupatu zuten. Irailaren 21ean Leintz Gatzaga okupatu eta gero Debagoiena zapaltzeari ekin zioten. Irailaren 22an Atxorrotx izan zen Eskoriatzan okupatu zuten lehen lekua.

Gotorlekua eta baita gure bailarako atea osoa ere parez pare zabalik aurkitu zuen Iñaki Sagredok orain dela 10 urte indusketak hasi zituenean, Atxorrotx gaztelua agerrarazteko asmoz. Herriko ondareari balio handia erantsi diozu-diozue zuk eta zurekin lan egin duten guztiok. Bihotzez mila esker!

Bihotzez mila esker ere gure herrietatik, Leintz Gatzaga eta Eskoriatzatik, auzolanaren bidez lagundu duzuen guztiei. Zuei esker,

auzolana oraindik gure balore handia dela erakutsi duzelako. Auzolanean bilduz, herria izaten.

Auzolana, gure herriak XXI. mendean zehar gidatu ahal dituen egitasmoa.

Egitasmo horretan Atxorrotx elkarteko gizon eta emakumeak elkartu nahi ditugu, eta guztiakin jai-giroan konpartitu. Panaman edo Eskoriatzan bide honetan geratu diren lagunen irakaspenak gogoratu. Baita gurekin oraindik ez daudenak, behingoz etxera ekarri behar ditugunak. Eta baita gure etorkizuna eraikiko duten belaunaldi berriak adituz. Herritarren arteko auzolana.

Auzolanean bilduz, herria agiten! Gotorlekutik askatasunera!

Irailaren 15ean Atxorrotxen dugu hitzordua, gonbidatuak zaudete!

HANDIK ETA HEMENDIK

Egileak ez ditu eskubideak**GURUTZE IZAGIRRE INTXAUSPE**

HTTPS://LABUR.EUS/CNWM6

'BERRIA-N ARGITARATUA

Egileak eskubideak ditu.

Bada, Pernandoren egia badirudi ere, gaur egun ez da horrela. Plataforma digital handiek dena irensten dute, eta, copyrighta izanda ere, ez da zaila egiletza definitua duen testu bat, argazki bat, grafiko bat edo bestelako lan bat egin duen pertsona baten edukia sarean topatzea, nahi duen erabiltzaileak nahierara xurga dezan.

Europako Parlamentuak atzo onartutakoaren arabera, egileen eskubideak babesteko legea aldatuko dute; antza denez, egileen mesedetan. Urtarrilera arteko epea dute behin betiko bozketa egiteko, eta Europako Parlamentuak osatzen duen interesguneen

amaraun horretan ez da erraza asmatzen plataforma digital erraldoiek zer-nolako trikimailuak baliatuko dituzten araudia euren neurrira ekartzeko. [...]

Teknologia berriek iraultza eragin dute gure bizimoduan. Ez da hain xamurra egindako lan batek balioa duela azaltzea hedonismotik gertu bizi den gizartean jaiotako haurrei eta gazteei. Maiz, zerutik erori balitz bezala jasotzen dute sormen lan guztia, pantaila batean botoi bati sakatuta. Abestiak, bideoak, irudiak... atzean gehienetan ahalegin handi bat dutela azaldu egin behar izaten da. Europako Parlamentuan irekiko den negoziazio fasean, zail da irudikatzen horrek ardura dienik.

Post gehiago 8. orrialdean.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otarora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Amodio-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna



ZABALIK

IDOIA PEÑAKOBA

Opor osteko sindromerik?

Iraila. Oporrak amaitu dira. Heldu da opor aurreko errutinara bueltatzeko unea eta asko, opor osteko sindromearekin! Baina benetako sindrome bat al da edota, gauza guztiei izen bat jartzeko tendentziari jarraiki, egoera iragankor bat azaltzeko asmatu dugun hitz potoloa?

Wikipediaren hitzetan, *oporretatik lanera itzultzerakoan eman beharreko adaptazio prozesuak porrot egiterakoan gertatzen den egoera* da. Adituen hitzetan, sindromeak patologia edo gaixotasun bat ezaugarritzen duten sintomak dira eta, ondorioz, oporren amaierak askorengan eragiten dituen sintoma fisiko nahiz psikikoak –nekea, tentsioa, lo egin ezina, gose eza, urduritasuna, haserrekortasuna, tristura...– ezin dira sindrometzat hartu; klinikoki existitzen ez den *sindromea*

URTE OSOAN ZEHAR EGIN DITZAKEZUN GAUZA ZORAGARRIETAN PENTSATU

da; gehienez, opor osteko *ajea*. Halere, sindromea existitu ala ez, pertsona ugarik pairatzen dituzte sintoma horiek; Europan %29 diren bitartean, Espainiako Estatutan %37 dira. Zergatik alde hau? Gainontzeko europarrak

baino nagikeria gehiago al daukagu? Edota opor luzeagoak ditugulako ote?

Gutziz iragankorra dela demostratuta dagoen arren –ez du astebe bano gehiago irauten–, badira horrelako egoerak errazago gainditzeko hainbat gomendio; besteak beste, erritmo lasaian hastea lanean, nahikoa lo egitea, kirola egitea, eta abar. Hurrengo oporretan pentsatzen hastea ere gomendatzen dute batzuek, baina kontuz! Behin lanean hasita, ez gero hurrengo ostiral, zubi edota oporrei *begira* bizi, lan-astea noiz bukatuko irrikan, konturatu orduko bizitza ere azkar baten pasako zaigu eta!

Beraz, aurreko gomendioez gain, beste hauek nahiago: hasi berri dugun ikasturteari ilusioz ekin, urte osoan zehar egin ditzakezun gauza zoragarrietan pentsatuz, gustuko ditugun ekimenei eutsi, lana satisfazio iturri gisa ikusi eta, batez ere, pozik egon eta lanarekiko eta, oro har, bizitzarekiko jarrera baikor eta positiboa izan!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Min

ANDONI EGAÑA

HTTPS://LABUR.EUS/1JXLI
'BERRIA'-N ARGITARATUA

"Berradiskidetu" entzuten dudak bakoitzean hartzen dut min.

Tradizioaren aurkakoa gertatzen zait.

Gure etxean sekula entzun gabeko aditza da eta konponbide erraza du. Aski da alferrikako *ber* hori kentzea.

Adiskidetu esaten genuenean *berradiskidetu* esaten ari ginen.

Inor ez baita hutsetik adiskidetzen.

Adiskidetzeak berradiskidetzeak hainbat,

derrigor, aurretiko gatazka eta haserrealdia eskatzen du.

"Aixkiratu al zeate?", galdetuko zizuten etxean senideren batekin tupustaldi bat izan eta handik denbora tarte batera...

Gatazka, haserrealdia... bizitzaren muin dira, eta beti bila ibiltzea bezain itsusia da beti ihes ibiltzea.

Are nabarmenagoa da hori norbaitek beste norbaiten eskubideak galarazten dituen unean.

Diada goizez ari naiz hau idazten.

Urtebetean gauza asko gertatu da eta ia azko Diadako argazkietan

azaltzen ziren asko preso edo atzerrian daude.

Eta ez da gauza bera kalean xingola horia jarri edo kendu. Jartzen duenak, gehienera ere, zenbaiten begietara pelma izateko arriskua du.

Kentzen duenak bestelako arrisku bat behar luke.

Gu, Hondarribian gaur kantuan.

Akaso beste garai batean, akaso Euskal Herriko beste leku batzuetan, tradizioz, *adiskidetu* esango zen. Badaezpada, minak min, ez naiz nire *adiskidetu*-n tematuko.

Post gehiago 7. orrialdean.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amalia Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Elortza.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goyatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Elikagai baten onura beste elikagaien arabera da"

BITTOR RODRIGUEZ ELIKADURA ETA NUTRIZIO IRAKASLEA

Eneko Azkarate BERGARA

Gazta lehiaketa eta dastatzea ingo dituzte zapatuan Bergarako San Martin jaietako azokan. Bittor Rodriguez dietista eta elikadura zientzietan doktorea izango da epaimahaiko kideetako bat eta dastatze ikastaroa gidatuko du 11:00etan Oxironon.

Gazta on baten ezaugarri funtsezkoenak?

Itxura, usaimena eta zaporea hartzen dira kontuan. Eta garbi izan behar da zerekin egin den, eta, ondorioz, Idiazabalgo jatorri izena dutenetan, ardiaren usaina eta gustua izan behar ditu. Garbia eta sarkorra izan behar du. Gatzagi natural garbia behar du. Arkumearen sabel lehor zatitxo bat ere botatzen zaio gaztari, nortasuna izan dezan.

Idiazabalgo jatorri izenak bermatu egiten du gaztaren kalitatea?

Bai, eta, elikagaiaren kalitateaz harago, gure kulturaren parte den produktu



Bittor Rodriguez. GOIENA

baten biziraupen arrakastatsua ziurtatzen du.

Gazta artzainek egindako jakia da. Horrek esan nahi du pertsona batzuek bizimodu bezala aukeratu dutela artzaintza. Horrek asko pozten

nau, ze gazta jate hutsak beste horretara eroaten nau.

Nolako gazta duzu gustuko?

Lanagatik, ia astero dastatzen dut Idiazabalgo gazta, eta, horregatik, erosterakoan, beste jatorri izen

batzuetakoak ere erosten saiatzen naiz. Gazta modu askotara prestatuta eta lagunduta dut gustuko; baina bakarrik jateko ere. Ketuak edo naturalak izan daitezke; nik gustuko ditut naturalak eta nortasuna dutenak, gazte edo zahar izan arren.

Gazta larregi jatea ez da komeni, ordea. Zergatik?

Hori ez da guztiz egia. Koipea eta gatza dauzka gaztak, hori horrela da, baina zer beste jaten dugun ere kontuan hartu behar da; hau da, elikadura orekatua izatea da kontua. Edozein elikagairen onura beste elikagaien arabera da. Gaztak, kalitate sentorialaz gain, kaltzioa ere badauka. Gauza on asko dauzka.

Ze iruditzen zaizu gazta bategatik 8.000 euro ordaintzea?

Bakoitzak erabakitzen du zertan gastatu edo inbertitzen duen bere dirua. Oihartzun handia izaten du eta hori ona da gaztarentzako eta gazta ekoizleentzako.

Gure guraso edo aitajaun-amandreek baino kaloria gutxiago irentsi arren, gizenago gaudela diozu. Zergatik da hori?

Sedentarisismoarengatik. Gaur egun, aisialdian kirola egin arren, lehen, lanean, joan-etorrian... jarduera fisiko gehiago egiten genuen.

HAU BE BADOGU!

Esker mezuak Vueltako euskal zaleendako



Eguaztenean Oiz mendian bukatu zen Vueltako etapa, eta euskal zaleek lepo bete zituzten aldapak.

Txirrindulari askok euskaraz partekatu zituzten esker mezuak.

@DeGendThomas: "Jendetza hau... Munduko zale onenak" (itzulita).

@ivan_cortina: "Izugarri gustatzen zait Euskal Herrira bueltatzea. Oso oroitzapen onak dauzkat hemen igarotako urte eta zaleena; Inoiz ez du huts egiten!!! Eskerrik asko".

'Trending topic' izan da 'Diada2018'

Martitzenean ospatu zuten kataluniarrek euren egun handia, eta sare sozialak mezuz bete ziren. Euskal Herrikeri ere egunaren jarraipena egin zuten.

@jmarauzo: "Hau da Bartzelona gaur egun; Milioi bat pertsona baino gehiago independentziaren aldeko manifestazioan #Catalonia #Diada18" (itzulita).

@Baztango: "Twitterreko joeretan ez da agertzen #Diada2018 ezta #Diada Twitterrek zentsuratzen du".

#Nierejaizkibelekin, traol erabilienetakoa

Alarde eguna izan zuten zapatuan Hondarribian eta Jaizkibel konpainiako kideek txistuekin eta plastiko beltzekin egin zuten topo, beste behin, Kale Nagusian.

@ferminmuguruza: "Hau bai konpainia ederra. Goazen Jaizkibel! #nierejaizkibelekin #KolareBizia Beltza zoragarria da, ez plastikozko zabor poltsa".

@pkaltzada: "Edozein tokitako injustiziak leku guztietako justiziari eraso egiten dio #Berdintasuna".

ITURRI ONETIK

Txillardegiren omenezko plaka Arantzazun

Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi (1929-2012)

donostiar hizkuntzalari, idazle eta politikaria omenduko dute irailaren 27an, haren jaiotegunean, Arantzazun. Milikua jatetxean plaka oroigarria jarriko dute eta Koldo Izagirrek berba batzuk esango ditu; Pelaxek musika jarriko du. Txillardegi sarri joaten zen Milikuara, "hausnartzera". Bezperan, eguaztenean, Fito Rodriguez irakasle eta idazleak hitzaldia egingo du Oñatiko kultur etxean, Txillardegi aitzindaria izenburupean.

ALBISTE IZAN ZEN

2006-09-14

Baserría eta gizartea gertuago, Debarroari esker

Juan Jose Ibarretxe lehendakaria eta Joxe Joan Gonzalez de Txabarri ahaldun nagusia buru zirela aurkeztu zuten Elgetan Debarroa programa, eskualdeko landa inguruneari bultzada emateko proiektua. Debagoieneko eta Debarreneko landa garapen elkarteak bultzadarekin abiatu zen programa aitzindaria. Ekimenak aurkeztu zituzten baserría eta nekazaritza gizartera gerturatzeko: hitzaldiak, ibilaldiak, argazki eta bideo bildumak...



GOIENA



Herriko merkatariek, bat eginda, orain dela 26 urte *Arrasate Press*-erako argazkia atera zuten leku berean. XABI GOROSTIDI

Zailtasunei aurre egiteko gertu

Urtarriletik hona hamahiru komertzio gutxiago daude Arrasaten. Internet bidezko erosketen gorakada eta salmenta-gune erraldoiak mehatxu handiak dira sektorearentzat, baina herriko merkatariek ez daude amorerik emateko gogoz

Xabi Gorostidi ARRASATE

Ez dira garairik onenak herriko merkataritzarentzat, eta horren froga dira azkenaldian pilatutako datuak.

Irailaren hasieran, adibidez, Gipuzkoako datu batzuk agertu ziren komunikabideetan. Horien arabera, azken urtean 386 autonomo gutxiago daude komertzioaren alorrean. Sektore horretako autonomoen %3,2k euren negozioa itxi egin dutela esan gura du horrek, eta, EAeko datuarekin alderatuta -%1,8 egin dute behera-, ia bikoitza da.

Hala ere, dena ez da beltz kolorekoa, eta badaude itxaropenari eusteko indikatzaileak ere. Horietako bat izan daiteke, adibidez, Euskal Autonomia Erki-degoko komertzioaren salmentek gora egin dutela; azken urtean %3 egin dute gora.

Arrasateko egoera

Udaleko Hirigintza Sailak emandako datuen arabera, 2018ko lehen zortzi hilabeteetan hamahiru jarduera-baja izan dira Arrasaten. Beste modu batean esanda, hamahiru komertzio gutxiago daude Arrasaten urtea hasi zenetik hona.

Urtea ez da oraindik amaitu, baina azken hamarkadako bigarren jaitsiera handiena izango litzateke, Eustat erakundearen datuei erreparatu gero. Estatistika erakundearen zenbaketa arabera, Arrasateko 320 komertzio zituen 2010ean.

MERKATARIEN %44K 55 URTE BAINO GEHIAGO DITUZTE, ETA HORIEN ERDIAK EZ DU OINORDEKORIK

Hurrengo bi urteetan zifra bere horretan mantendu zen, baina 2013ko urtarrilean 291ra jaitsi zen. 2014an eta 2015ean kopurua mantendu egin zen, eta 2016an zertxobait egin zuen gora, 295 komertziora helduz. 2017an berriaz egin zuen behera -292 komertzio- eta baita 2017an ere: 284 komertzio.

Komertzioa hauspotzeko plana

Egoera zaila zela jabetuta, Komertziorako zinegotzi Victoria-no Fuentes sozialistak plan berezi bat aurkeztu zuen 2017ko apirilean herriko merkatarien

"AMAZONEN EDO ZARAREN AURKA EZIN DEZAKEGU EZER EGIN, BAINA BADITUGU GURE INDARGUNEAK"

2018an zehar, hamahiru itxi

Urtarrila eta iraila artean jasotako datuak dira.

- Harategiak: 2
- Okindegiak: 1
- Arrandegiak: 1
- Bidaia agentziak: 1
- Aseguru agentziak: 1
- Jatetxeak: 1
- Margoak: 1
- Ordezko piezak: 1
- Leihoak: 1
- Ile apaindegiak: 1
- Tatuajeak: 1
- Meditazio zentroak: 1

ITURRIA: ARRASATEKO UDALEKO HIRIGINTZA SAILA

Komertzio kopurua

Urtea	Garapen	Eustat
2010	287	320
2011	320	320
2012	299	320
2013	294	291
2014	293	291
2015	290	291
2016	273	295
2017	279	292

OHARRA: GARAPEN ETA EUSTAT ERAKUNDEEK DATU EZBERDINAK DITUZTE

aurrean. Ikertalde enpresak egindako plan estrategikoak zortzi neurri planteatzen zituen. Horien artean zeuden, besteak beste, Donostiako, Gasteizko eta Bilboko turismoa erakartzea, sare sozialak indartzea, aparkatzeko erraztasunak ematea eta lokal berri bat zabaltzen dutenek egokitzapen lanik ez egitea lehen urteetan.

Baina, neurri konkretuak proposatu aurretik, herriko komertzioaren analisi sakona egin zuten, eta hainbat datu interesgarri ematen zituzten Arrasateko komertzioaren errealitateari buruz.

75 lokal hutsik

Ikertalde enpresak egindako ikerketak Arrasate erdialdean dauden lokal hutsen kopurua aztertu zuen. 2016an egin zen azterketa, eta orduan 75 ziren hutsik zeudenak. Horietatik 40 alde zaharrekoak ziren eta 35, aldiz, hirigune historikotik gertu dauden kaleetakoak -auzoetako komertzioak ez zituzten kontuan hartu-.

Dendariak, erretiratzetik gertu

Herriko merkatarien ezaugarriak aztertu zituzten, eta, besteak beste, hiru hauek nabar-

"HERRIKO ERAGILEEN INDARRA BALIATU BEHAR DUGU; DENOK TRAINERU BERERA IGO, ETA ARRAUN EGIN"

mentzen ziren: esperientzia handiko profesionalak direla -merkatarien %33k 25 urte daramatzatelako ofizioan-, emakumeak direla nagusiki, eta batez besteko adina oso altua dela -merkatarien %44k 55 urte baino gehiago dituzte-. 65 urterekin erretiroa hartuz gero, hamar urte barru Arrasateko merkatarien ia erdiak lan egiteari utziko dira. Ikerketa horren arabera, horien %48k lotuta daukate negozioaren lekukoa hartuko lukeen norbait, baina %48,6k ez. Beraz, hori hala mantenduz gero, hamar urte barru, gaur egun dauden komertzioaren %22 itxita egongo lirateke.

Merkatarien iritzia

Herriko merkataritzak bizi duen egoera zailaren jabe da Jon Apraiz, Ibai-Arte merkataria elkarteko presidente berria.

Datu kezkarrien atzean dauden faktoreei buruz galde-tuta, bi nagusi ikusten ditu argi eta garbi. "Interneteko erosketak, eta merkataritzagune handiak dira gure mehatxu nagusiak. Baina Amazon edo Zara moduko aurkari erraldoien aurka ezin dezakegu ezer egin. Baditugu eurek ez dituzten indarguneak: gertutasuna, tratua, itzulketak edo beste edozein arazo konpontzeko bizkortasuna... horiek baliatu behar ditugu, herritarrek gure alde apustu egin dezaten".

"Elkarrekin arraun egin"

Koordinazioa da, Apraizen us-tez, aurrera egiteko beste gako bat. "Arrasaten gauzak antolatu-tzen dituzten eragileekin elkar-tu nahi dugu: kultura eragilee-kin, kirol klubekin, herrira turismoa dakarten enpresekin eta erakundeekin. Arrasate Musikalekoek asko laguntzen digute. Errugbi taldeak, adibi-dez, jende mordoa mugitzen du garagardo azokarekin, eta tri-kiti eskolakoek giro ederra sortzen dute euren jaialdian. Horrelakoak baliatu behar di-tugu. Denok traineru berera igo, eta elkarrekin arraun egin".

Geldi ez egotea, ezinbesteko

Elkarte gisa geldi ez egotearen garrantzia funtsezkotzat jotzen du Apraizek. "Ezin gara geldi egon. Gauzak antolatu behar ditugu: Merkemerkauak, kan-painak, doan aparkatzeko auke-rak... Datorren astean, Merka-taritzza Berdearen Astea egingo dugu, hiru bizikleta eta hover-board bat zozketatuz, eta laster, Amaia antzokian zinema ikus-teko sarrerak banatuko ditugu gure erosleentzako".



Merkataria, 1992ko apirileko Arrasate Press-ko azalean. ARRASATE PRESS

1990a ezkerro merkataritza sustatzen

Urte hartan jaio zen Ibai-Arte, hiru helburu nagusirekin: merkatarien defentsa, promozioa eta prestakuntza, zerbitzuaren kalitatea hobetzea eta helburu nagusia: Arrasate Debagoieneko buru komertzial bihurtzea. "Ibai-Arte izenak ibaien artean zeuden komertzioei egiten die erreferentzia –Aramaio eta Deba–. Hala ere, ahalik eta gehien izateko asmoz, partaide izateko baldintzak desagertzen joan dira" azaldu du Jon Apraiz presidentek.

Momentu honetan, 103 bazkide daude elkartean, eta Apraizek ostalaritzako kide gehiago izatea nahiko luke. "Denetarik gaude, estetrikako dendak, optikak, aholkularitza enpresak, ile-apaindegiak... Ostalaritzako sei edo zazpi kide ditugu, baina pena ematen dit gehiago ez izateak, denon artean indarra egiteko".

Etxez etxeko langileen egoera, osoko bilkurako gai nagusia

Irailaren 30era arte kontratu gabe arituko dira lanean, eta hortik aurrera zer gertatuko den ez da argi geratu

X.G. ARRASATE

Martitzenean, iraileko osoko bilkura egin zuten. Lehenik eta behin, San Balerion udal jabe-tzakoak diren zortzi partzelaren mugaketa egitea onartu zuten, eta ostean, Irabazi taldeak aur-keztutako hiru mozio jorratu zituzten: lehena, herrian dagoen amiantoari buruzkoa; bigarre-na, memoria demokratikoari buruzkoa; eta azkena, lan pre-kariatateari buruzkoa. Amian-toarena ez zen onartua izan, Udal Gobernuak aurka botatu zuelako, baina beste biak bai; aho batez.

Galde eta eskeetan, laugarrenez jarraian, etxez etxeko langileek hartu zuten hitza. Gaixorik dau-denean lanera joatera behartzen dituztela salatuz, eta baita ordu pribatuak eta publikoak desberdin ordaintzen dizkietela ere. Amaieran esan zuten Udal

Gobernuak ez duela "ezer egin" euren egoera konpontzeko. EAJ-ko Anuska Ezkurak esan zuen baieztapen hori ez zela egia; Udal Gobernuak gai horrekin lotuta emandako pausoak zerrendatu zituen: langileekin batzarrak, uztailako osokoan onartutako puntuak, eta pleguak geldiaraz-tea, besteak beste.


Uztailaren 31 ezkerro, Udalak etxez etxeko zerbitzua eskaintze-ko indarrean zuen kontratua agortuta dago, eta momentu honetan kontraturik gabe ari da zerbitzua eskaintzen. Clece enpresarekin egoera horretan jarraitzea adostu zuten, iraila-ren 30era arte. EH Bilduk gal-detu zuen ea hortik aurrera zer gertatuko den, eta alkateak erantzun zuen horri buruzko azalpenak datorren asteko On-gizate batzordean emango di-tuztela.

Azkenaldian, erosketa ohiturak aldatu dituzu?

OIHANA HERNANDO
LANGILEA

"Lehen, beti neukan herriko dendetan erosteko joera"

"Aspalditik aldatu egin dut erosteko modua. Lehen, beti neukan herriko komertzioetan eta dendetan erosteko joera, baina egia da gero eta gehiago erosten dudala Internet bidez. Ez dakit esaten non erosten dudan gehiago, baina nik uste dut momentu honetan gehiago direla online erosteko. Produktu bat eskatu eta hurrengo egunean bertan jasotzeko aukera lehen ez zegoen. Baina Internet bidez bizpahiru erosketa jarraian egin ostean, beti pizten zait herrian erosteko gogoia".



IBAN ARABIURRUTIA
TABERNARIA

"Ahalegintzen naiz dirua herriko dendetan uzten"

"Aitortzen dut ohiturak aldatu ditudala eta noizean behin Internetetik erosketak egiten ditudala. Bi alabatxo ditut, eta eurentzako arropa, adibidez, Internet bidez erosten dut; neurriak kontrolatzen ditudalako eta eroso delako. Baina niretzako arropa aurrez aurre erostea gustatzen zait. Produktua probatu, ukitu... niretzako, hori, ezinbestekoa. Horrez gain, ahalegintzen naiz dirua herriko dendetan uzten. Nik ere negozio propioa dut, eta garrantzitsua iruditzen zait kontzientzia hori izatea".



OLATZ HERIZ
LANGILEA

"Eroslearendako oso bide eroso da Internet"

"Egia da, hain bizimodu azkarra daukagun garai hauetan, gero eta gehiago jotzen dugula Internet bidez erostera. Batez ere, eroslearentzako bide oso eroso delako. Baina, era berean, herrian erostea garrantzitsua dela pentsatzen dut, eta, kontzientzia hori daukadanez, ahalegintzen naiz herriko dendetan erosten. Denoi gustatzen zaigu herriko kaleak dendaz beteta ikustea. Komertzio txikiak dira kaleari bizitasuna ematen diotenak, eta horien alde indar handiagoa egin beharko genukeela uste dut".



EUSKARA-IKASTAROAK

Debagoieneko AEK

"Komunikazioa da gure metodoa"

EUSKARA TITULU OFIZIALAK

Garibai 14 · 943 77 03 69

arrasate@aek.eus

Elkartasuna eta musika, espetxe politika aldatzeko

Antolatzaileen arabera, "gaur egun arrazoi ugari daude, zoritxarrez, egun hau ospatzen jarraitzeko". Biharkoa hamahirugarrena izango da, eta, elkartasun eta musika dosi handiarekin, "iraganean kateatutako espetxe politika" aldatzea eskatuko dute

Xabi Gorostidi ARRASATE

"Hiltzeko bokazioz herritik sortu zen LKRTSN Eguna jaialdia, baina hau antolatzen jarraitzeko arrazoiek, zoritxarrez, ugariak izaten jarraitzen dute gaur egun". Hitz horiek erabili zituen LKRTSN Eguna herri ekimene-kide Aner Elorzak jaialdiaren hamahirugarren aldia aurkezteko martitzenean egindako prentsa agerraldian.

"ETAk bere jarduera, aspaldi, erabat utzi duen arren, 280 preso politikok euren senideengandik ehunka eta milaka kilometrotara sakabanatuta eta isolatuta jarraitzen dute; oraindik ere Espainiako eta Europako legedien aurka doazen salbuespen neurri zorrotzen pean".

Arrasateko presoen egoera

Herriko bi presok bizi duten egoeran ere jarri zuten fokua prentsaurrekoan. "Josu Arkauzek 61 urte ditu, eta Murtziako kartzelan dago, isolatuta. 27



Hainbat herritar, Kulturaten egindako prentsa agerraldian. MAIALEN REGUEIRO

urteko zigorra beteta, libre egon behar luke, baina 2022ra arteko zigorra dauka ezarrita. Unai Parotek 60 urte ditu eta Puerto-ko kartzelan dago, isolatuta. 28 urte daramatza preso eta 2031ra arteko zigorra du ezarrita".

Lau lehentasun aipatu zituzten, espetxe politika aldatzeko: urrun-tze politika amaitzea, Frantziako eta Espainiako zigorren batura, lehen graduako kalifikazioak kentzea eta larri gaixo dauden presoak duintasunez artatzea.

Zapaturako egitaraua

Hona hemen 2018ko LKRTSN egunerako prestatu duten hitzorduak.

Umeentzako gunea

- **11:00** Biteri plazan, haurrentzako jolasak, tailerrak, musika eta pintxoak.

Goizeko kontzertuak

- **12:45** Basati tabernan, WC (Arrasate).
- **12:45** Jai-zale tabernan, Lukas Prest (Eskoriatza).
- **13:30** Iluntz tabernan, Laukatu (Gernika).
- **13:30** Monte tabernan, Trigger (Aretxabaleta).

Herri bazkaria

- **14:30** Biteri plazan. Txartelak Irati eta Monte tabernetan salgai 13 euroren truke.

Arratsaldeko kontzertuak

- **17:00** Branka tabernan, Las Klitorix (Arrasate)
- **17:00** Taupa tabernan, Salda Badago (Aetxabaleta)
- **17:00** Osorik tabernan, Sindy Berbenas (Meatzerreka)
- **17:00** Ostantz tabernan, Newrozz (Bergara)
- **17:00** Ezkiña tabernan, Belarrasa (Aramaio)
- **18:00** Irati tabernan, Gatz (Ondarroa)
- **18:00** DAT tabernan, Txua (Oñati)
- **18:00** Etxoste tabernan, Fact (Euskal Herria)
- **18:00** Muxibar jatetxean, Kobrazulo (Antzuola)
- **18:00** Iturriotz tabernan, Krisis (Aetxabaleta)
- **18:45** Kajoi eta Itzala tabernen artean, Agus Thin Lizzy (Gernika-Arrasate)

Manifestazioa

- **19:30** Herriko Plazan hasiko da, *Euskal preso errefuxiatu eta iheslari politikoen defentsan* lelopean.

Gaueko kontzertuak

- **22:00** Perlata (Arrasate), Legez Kanpo (Arrasate) eta Hipbone Slim One Man Band (Ingalaterra) taldeak igoko dira Arrasateko gaztetxe oholtzara. Sarrerak: 5 euroren truke.

EUSKARALDIA



GEIKE

Euskaraldian sakontzeko bilera

Geike-k antolatuta, batzar informatiboa egin zuten astelehenean, arrasatearrei Euskaraldiaren nondik norakoak azaltzeko, eta antolatzaileak "oso pozik" atera ziren. "Jende gazte pila bat gerturatu da, eta hori oso positibotzat jotzen dugu. Ideia asko pilatu ditugu Euskaraldia jendartean hedatzeko orduan eragin biderkatzaileak lortzeko".

OHARRAK

Goienar

Energia banaketako kooperatibak batzar informatiboa egingo du irailaren 20an. Hitzordua 18:30ean da, Kulturateko areto nagusian.

52koen kintada

Urriaren 20an egingo dute, eta bertara joateko 80 euro sartu behar dira kontu honetan: ES1730350001500011167648 kontu zenbakian. Urriaren 12a baino lehen.

Pentsiodunak

Astelehenean, irailak 17, opor osteko bigarren elkarretaratzea egingo dute. Hitzordua 12:00etan da, Herriko Plazan.



NIRE USTEZ

NEREA MAKAZAGA

'Umhlanga' eSwatini-n

Ez dakit jakin dakizuen Suazilandia bezala ezagutzen genuen lurraldea dagoeneko ez dela Suazilandia, eSwatini baino; horrela erabaki baitzuen pasa den apirilean Afrikan geratzen den azken monarka absolutista den Mswati III.ak, biztanleen gehiengoaren nahiaren kontra.

Ezer gutxi nekien erregeak urtero antolatzen duen *umhlanga* -bastoi dantza- jaialdiari buruz, bertara joan ginen arte. Gu iristerako, baziren bost egun 8-22 urte bitarteko zulu zein suazi tribuetako *birjina* gazteek (haurrak asko) jaialdiarekin bat egin zutenetik. 50.000 dantzari inguru, esan zigutenez, guztiak arropa tradizionalak soinean, gehienak titiak bistan, erregeak hauetako bat emaztetzat aukeratzeko zain. Guztiak ziruditen zoriontsu, guztiak kantu alaian, pobreziatik irteteko ate bakarra gurutzatu guran; erregearen hamabost emazteetako zortzigarrenak duela gutxi, depresioak itota, bere buruaz beste egin izan ez balu bezala. Ez genuen argazkirik atera, ez genuen amaierarik ikusi... ez genuen bertan geratu nahi tradizioaren izenean betikotzen den egoera hura ospatzeko.

Merkataritza **berdearen** astea 2018

Irailaren **10** eta **21** bitartean erosketak
Arrasate Txartelarekin egin eta
3 bizikleta eta **hoverboard** baten
zozketan parte hartuko duzu.

HAURRENTZAKO BIRZIKLAPEN TAILERRA

Txatxilipurdiren eskutik
Irailaren 21ean,
18:00etatik 20:00tara,
Herriko Plazan



**SARI
BANAKETA**

Irailak 21 / 20:15
Herriko Plazan



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATUTZA
ETA KONSUMO SAILA



DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

Ohitura jasangarriagoak barneratzeko astea

Domekan hasiko dira Mugikortasun Asteko ekintzak, urtero legez, herrian zehar mugitzeko joera jasangarriagoak sustatzeko helburuarekin. Bizikleta azoka, bizikletekin ibilbide gidatua eta doako autobus zerbitzua izango dira, besteak beste

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasatek hamasei urte daramatza Europako Mugikortasun Astearen baitan mugikortasun jasangarria herritarren artean indartzen. Hala, irailaren 16tik 23ra bitartean, garraibide garbiaren erabilera izango da ardatz, eta hainbat ekintza antolatuta dira.

Informazio kanpaina

Aste osoan zehar, www.arrasate.eus atarian, sareetan edota herriko enpresa zein elkarteetan mugikortasun adimentsuaren inguruko informazio kanpaina egongo da zintzilik. Hala, gai horren inguruan interesa dutenek aholku eta datu batzuk jaso ahal izango dituzte.



Nerea Lazpiur teknikaria eta Maria Ubarretxena alkatea egitaraua aurkezten. T. M.

Eskolara oinez eta autobusa doan

Hilaren 16tik 22ra eskolara oinez joateko irteera eta bideak jorratuko dira, goizetan, 5. mailako ikasleekin. Horrez gain, herri busa doakoa izango da aipaturako denbora tartean.

Bizikleta azoka

Hilaren 22an, Mondragones kalean, 11:00etatik 14:00etara, bizikleta azoka egingo da. Azoka horretarako aurrez batuko dira bizikletak eta materiala, azokan, hilaren 15ean, 18an eta 20an.

Bisita gidatua bizikletan

Hilaren 23an egingo dute, eta 10:30ean abiatuko da, Seber Altube plazatik. Aurtengoa didaktikoa izango da, eta Vasco-Navarro trenaren historia jorratuko dute bizikleta gainean.

OHARRAK

Emakume Txokoko ikastaroak

Irailaren 17tik 21era egin behar dira izen emateak. Ikastaroei buruzko informazio guztia Goiena.eus webgunean dago ikusgai.

Baserritarren Azoka

Bihar, zapatua, garaiko produktuak eta gehiago Seber Altuben.

Alderdi politikoaren prentsa oharrak

Aste honetan, EAJk, EH Bilduk eta Baleikek prentsa ohar bana kaleratu dute. EAJk, etxez etxeko langileen arazoaren inguruan Gobernuak egindako ekintzei buruzkoa; EH Bilduk, berriz, Gobernuak azokarekiko eta merkataritzarekiko "utzikeria" duela salatu du; eta Baleikek ere, etxez etxeko langileei buruz. Guztiak daude ikusgai Goiena.eus webgunean.

Parte hartze ordenantza

Herritarrek politikan eragiteko gaitasuna handituko duen ordenantza prestatzeko bi bilera egingo dituzte herritarrekin, irailaren 26an eta urriaren 10ean. Izen emateak, BAZen.

Ludoteka eta gazte txokoak

3 eta 17 urte bitarteko gazteek erabilgarri dituzte jada.

Mugikortasun Asteko egitaraua

Irailaren 16tik 22ra

- *Mugikortasun adimentsua* kanpaina udal webgunean.
- *Eskolara oinez* esperientzia.

Irailak 21, barikua

- Haurrentzako biziklapen tailerra Herriko Plazan, 18:00etan, Txatxilipurdiren eta Ibai-Arteren eskutik.
- Leku berean, 20:15ean, Merkataritza Berdearen Asteko zozketa.

Irailak 22, zapatua

- Bizikleta azoka, Mondragones kalean, 11:00etatik 14:00etara.

Irailak 23, domeka

- Bizikleta bira didaktikoa, Vasco Navarro trenaren ibilbidetik. Irteera: 10:30ean, Seber Altubetik.

Ibai-Arteren Merkataritza Aste Berdea

Beste urte batez, herriko merkatariek bat egingo dute Mugikortasun Astearekin, Merkataritza Berdearen Astea antolatuta.

Hala, irailaren 10etik 21era, erosketak Arrasate txartelarekin eginez gero, hiru bizikleta eta hoverboard bat irabazteko zozketan parte hartuko dute erosleek. Irailaren 21ean egingo dute zozketa, Herriko Plazan, 20:15ean.

Epe horretan, saltokiek zelai-alfonbra batekin hartuko dituzte bezeroak, eta elkarteko erakusleihoak iraunkortasun irizpideekin apainduko dituzte.

Horrez gain, *Herrian erosi* logoa duten poltsa oxobiodegradagarriak banatuko dituzte erosleen artean.

Joseba Aranzabal

Dantzan ikasi nahi?

PLAZAKO DANTZA TRADIZIONALA

lotuan - soltean - jauziak - ingurutxoak - kontradantzak
mutildantzak - plazako dantzak - sokadantzak...

URRIA - MAIATZA / Hasiara: Urriak 1

1. maila: Astelehena 18:00

Dantza-txokoak: Astelehena 16.30 eta 19.30

Ikus egitarauak: www.herrixadantzan.eus

Informazioa eta izenematea:

- AED: 943 77 12 28 / aed@aedelkartea.eus
- Gazte Bulegoa: 943 25 20 65 / gaztebulegoa@arrasate.eus

Antolatzailea:

Laguntzaileak:

Pitxi Herrero zenaren omenezkoa asteburuan

Denboraldi-aurreari forma ematen joateko, Pitxi Torneoa antolatu du Arrasate Eskubaloi Elkarteak asteburu honetarako. Torneo horretan, Arrasateko kadete mailako nesken taldea ariko da lehian; hain zuzen ere, denboraldi honetan sortutako taldea

Eneko Azurmendi ARRASATE

Azken urteetan ohikoa izaten den moduan, aurten ere Pitxi Herrero zenaren omenezko torneoa jokatuko dute Iturripen, Arrasate Eskubaloi Elkarteak antolatuta. Arrasateko lau talde ariko dira lehian bihar eta etzi.

Bihar, zapatua, infantil mailako mutilen taldeak jokatuko du lehen partidua, Ordiziaren aurka. 10:00etan izango da lehia, eta 25 minutuko bi zati jokatu-ko dituzte.

Senior mailako gizonezkoen taldeak, Ford Mugarrik, hiruko torneoak jokatuko du arratsaldean. Hala, lehen partidua Ereintza Beissier taldearen aurka joka-



Josu Herrero, Pitxi Herrero zenaren semea, iazko torneoan. IMANOL SORIANO

tuko dute, 17:15ean. Bigarren norgehiagoka 18:45ean izango da, Ordizia Siglo XX taldearen aurka. Hirugarren partidua beste bi taldeek jokatuko dute elkarren aurka, 18:00etan.

Etzi, domeka, beste bi partidua jokatuko dituzte. Lehena, kadete mailako mutilek, Ordizia Orkli taldearen aurka, 10:30ean. Bigarrena, berriz, gazte mailakoek, 12:00etan, Mondragon Lingua Aloña Mendiren aurka.

Nesken talde berria

Albiste pozgarri bat ere utzi digu 2018-2019 denboraldiak. Izan ere, bederatzi urteren ostean, nesken talde bat izango du Arrasate Eskubaloi aurten, kadete mailan. 14 jokalariz osatutako taldea izango da, eta Jon Urrutia Piti eta Nerea Hernandez izango dira entrenatzaileak.

Lehenengo urtea izanda, normala den moduan, jokalariek eskubaloian jokatzen ikastea izango da asmoa entrenatzaileen asmoa. Lehen proba Pitxi Torneoa izango dute. Bihar, zapatua, euren lehen partidua jokatu-ko dute, 11:30ean, ordiziarren aurka.

MUK Goierrri taldea izango du aurkari Euskal Kopan

EBA mailako Euskadiko taldeek pasa den asteburuan ekin zioten Euskal Kopari. Bost talde ari dira lehian: Ordizia, Santurtzi, Goierrri, Easo eta Mondragon Unibertsitatea. Lehen partidua erraz irabazi ostean, asteburu honetan jokatuko dute arrasatearrek bigarren jardunaldia. Goierrriren aurka jokatu-ko dute, domekan, 18:00etan, Urretxun.

Andoni Azkaratek mendiko saria eskuratu du Liernin

Pasa den asteburuan Liernin jokatu-ko dute lasterketan mendiko saria irabazi zuen Andoni Azkaratek arrasatearrak.

Bestalde, Dorletako Ama Txirrindularitza Elkartearen izenematea zabalik dagoela jakinarazi dute. Interesa edukiz gero, harremanetan jarri elkartearrekin, dorletatxe@hotmail.com helbidera idatzita.

RPS 146/18



CLINICA DENTAL

BERGARA

25

urte baina gehiagoko esperientzia implantologian

- INPLANTOLOGIA (kirurgia erraza eta minik gabekoa)
- Estetika eta protesia
- Ortodontzia - Invisalign
- Apnea - Zurrungak














Bidekurutzeta, 36 – BERGARA – Tel.: 943 76 05 77 – www.clinicadentalbergara.es



Gizonak eta emakumeak, bizkarrez. PIXNIO

Berdintasun Plana egiten ari dira Gorbeialdean

Aurten artekoa da Aramaion 2015ean indarrean jarri zen plana, eta hura eta kuadrillan dauden beste hirurak ebaluatzearekin batera, berria prestatuko dute abendu erdialderako, denentzako berdina. Herritarren parte-hartzea gura dute

Julen Iriondo ARAMAIO

Iraila hastearrekin ekin zion Gorbeialdeko Kuadrillak gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna helburu duen plana lantzeari; lehen urratsa izaten ari da gaur egun halakorik eduki baduten lau herrietako planen ebaluazioa egitea, tartean Aramaioarena -Legutio, Zigoitia eta Zuia dira besteak-. Horretarako, besteak beste, inkesta bat betetzeko aukera dute herritarrek.

Orain hasita, kuadrillako Berdintasun Planak abenduaren 14rako egon beharko du Emakunderen esku -harekin lankidetzan egingo dute lan; Emakunde emandako diru laguntzarekin ordainduko da kostuaren %75, eta gainerako %25 Arabako Foru Aldundiari eskatu diote-. Red Kuorum enpresaren laguntza izango dute proiektu hau gauzatzeko.

Aramaion 2014an sortu zuten Berdintasun Plana, eta 2015ean sartu zen indarrean. Lau urte-

rako iraupena izan ohi dute planok, eta, ondorioz, Aramaio-koari aurten dagokio berritzea; horregatik, herriko lehen planaren ebaluazioa egingo dute, eta berria sortu, herrirako eta kuadrilla osorako izango dena, kasu honetan. Honela, orain arte halakorik izan ez duten Arratzua-Ubarrundiak eta Urkabustaizek ere izango dute aurrerantzean.

Plan berria eginda, berdintasunaren esparruan "azken urteetan sortutako baliabide berriak" ere hartuko dituzte aintzat, eta hurrengo lau urteetarako kuadrillako sei herrien "ekintza bateratua" bilatuko dute, Gorbeialdeko Berdintasun teknika-ri Araitz Palaciosen esanetan,

ARAMAIOKO PLANAK EMAKUMEEN AHALDUNTZEA DU HELBURU, BESTEAK BESTE

"Kuadrillako eta lurralde historikoko errealitate berriei erantzungo dien ikuspegi estrategiko batekin".

Horretarako, orain artekoaren ebaluazioa da, esan bezala, lehen egitekoa; eta prozesu parte-hartzaile baten bitartez egin nahi dute. Sare sozialetan eta udal webguneetan gai honekin lotutako informazioetan inkesta bat betetzeko aukera egongo da: "Gizarteak eta, zehazki, Gorbeialdeko emakumeok erabaki dezagun zer nahi dugun, nola nahi dugun eta ze aukera eta traba ikusten ditugun benetako berdintasuna lortzera bidean", azaldu dute zerbitzutik.

Aramaioiko plana

Aramaioiko orain arteko planak lau esku-hartze lerro zituen: berdintasunaren aldeko gobernantza; emakumeen ahalduntzea eta balioen aldaketa; gizarte antolakuntza erantzunkidea; eta emakumeen aurkako indarkeria desagerraraztea.

Udalaren webgunean ikusgai dago bide publikoen inbentarioa


Lehen fasea izan da hau, eta 149 bide jaso ditu -150 kilometro-; datozen urteetan osatuko dute zerrenda

J.I. ARAMAIO

Jon Ugartek 1997an egindako lana oinarritzat hartuz, Udalak eta Sendo enpresak herri bide garrantzitsuenen inbentarioa burutu dute. Hogeitaz hamar urteetan, bideek hainbat aldaketa izan dituzte: berriak zabaldu, ibilbideak aldatu, obren eraginez desagertu...; inbentarioak orduan jasotakoa eguneratu du, beraz.

Horrekin batera, ortoargazkiak eta mapa digitalak erabiliz, bideak berriro marraztu dituzte; eta bide bakoitzari fitxa egin diote, datuok: non dagoen, luzera, zabalera, zoru mota, jabetza, erabilera baldintzak...

Lehen zirriborroa egin ondoren, auzo alkateei eta interes zuten herritarrei aurkeztu zieten inbentarioa, haien ekarpenak jasotzeko. Udalbatzaren behin-behineko onarpena jaso zuen, eta jendaurrean jarri zuten,



Hainbat bide, mapan. ARAMAIOKO UDALA

baita helegiteetarako epea zabaldu ere. Zuzendu beharrekoak zuzenduta, ekainean onartu zuten behin betiko izaeraz.

Auzo sareko hamar bidek, 41 baserri bidek eta 98 baso bidek osatzen dute, gaur gaurkoz, inbentarioa.

Bide mozketak, biharko rallysprinta dela eta

Herriko hainbat bideri eragingo die probak. 15:00etan izango da lehen txanda [informazioa, Kirola sailean], eta 14:00etan itxiko dituzte bideok. Ibarren, Aita Gabriel Jauregi, Pedro Ignazio Barrutia eta Nardeaga (kiroldegitik okindegira) kaleak egongo dira itxita. Kaleotako eta frontoiko aparkalekuek libre egon beharko dute 08:30erako.

Krasketa talde gasteiztarraren kontzertua, Sastiñan

"Folk zale talde bat" bezala aurkezten dute euren burua; beste talde batzuetan ibilitakoak dira kide gehienak, eta oraingo proiektuarekin zelta folk dantzak eta abestiak jotzen dituzte, Galiziatik hasi, kantaurialdeko lurraldeetatik pasa, Britainiara, eta Irlandaraino joanaz, Italiako dantzaren bat ere joz. Gaur da kontzertua, 20:00etan.

Gorbeialdeko argazki lehiaketa, urriaren 18ra bitartean

Gorbeialdeko Kuadrillari begirada bat argazki lehiaketak 200, 150 eta 100 euroko sariak ditu lehen hiru sarituentzat, eta 75 eurokoa kuadrillako udalerrri bakoitzeko argazki onenarentzat. Parte-hartzaile bakoitzak hiru argazki aurkez ditzake, koloretan edo zuri-beltzean. Kuadrillaren egoitzan aurkeztu edo bertara bidali behar dira.

IBI zerga ordaintzeko borondatezko epea, azaroaren 2ra arte

Ondasun higiezinaren gaineko zergaren ordaintzaren helbidetara ez duten herritarren kasuan eta Udalak bidalitako -helbide fiskalera- ordaintzarako agiria astelehena -hilak 17- baino lehen jaso ezean, udaletxera joan behar da haren bila. Borondatezko epea igaro ondoren, ordaindu gabeko kuotei errekaragua gehituko zaie.



lazko mendi martxan. ARAMAIOKO UDALA

Aitor Arana oroitzeko mendi martxa, 22an

Datorren zapatukoa 22. aldia izango da, eta sei tontor igo beharko dituzte parte-hartzaileek 25,7 kilometroko ibilbidean: Marka, Murugain, Asentzio, Danborralde, Durakogain eta Orixol. Izena egunean bertan eman behar da

Julen Iriondo ARAMAIO

Mendian hildako Aitor Arana herrikidea gogoratuz, eten gabe gora eta behera izango den ibilbidearekin egingo dute Aramaion mendi martxa. 2014ko edizio-koaren oso antzerakoa da egin beharreko bidea, hiru kilometro laburragoa. Orduan bai, baina aurrean ez dute Tellamendi igoko.

Orixol Mendizale Elkartearen zuzendaritza berriak antolatuko duen lehen martxa izango da hurrengo zapatukoa –abenduan hartu zuten lehengo zuzendaritzaren lekukoa–, nahiz eta lehengo arduradunen laguntza izaten ari diren prestakizunetarako. Eguna iritsita, dozena bat lagun ariko dira lanean dena ondo atera dadin.

Bost euro ordainduta 07:30ean izena eman, eta 08:00etan hasiko da ibilaldia, kiroldegian. Marka, Murugain, Asentzio, Danborralde, Durakogain eta Orixol tontorren artean tartekaturik, bi anoa-postu izango dira, aurreneko ordu eta erdia-

edo eginda, Untzillan lehenengoa, eta Orixolera igo aurretik, Kruzetan, bigarrena; behin tontorra harrapatuta, herrira jaitea baino ez da faltako –han ere izango da jatekoa eta edatekoa–. 25,7 kilometroko ibilbidea osatzeko, parte hartzaileek lau eta sei ordu artean beharko dituzte uste dute antolatzaileek.

Mendizale kopuruari dagokionez eta aurreko urteetako kopuruak ikusita, 60 inguru zenbaterako polita izango litzatekeela dio antolakuntzako Joseba Zillaurrenek; ohi bezala, baina, eguraldiak baldintzatuko du parte-hartzea.

Aramaioiko mendi martxan parte hartu ohi duten gehienak herrikoak izaten dira, nahiz eta

OHIKO MARKAK EGONGO DIRA, BAINA GPS BIDEZ ERE JARRAITU AHALKO DA MARTXAKO IBILBIDEA

kanpokoren batzuk ere beti animatzen diren; honela, Arrasateko eta Eskoriatzako jende gehiago erakarri nahian sartu dituzte, adibidez, ibilbidean Murugain eta Asentzio.

Aurtengo beste nobedadeetako bat da ibilbidea GPS bidez jarraitzeko aukera ere egongo dela, Wikiloc aplikazioaren bitartez; dena dela, antolakuntzatik aholkatzen dute jarritako markei jarraituz egitea bidea.

Zuzendaritza berria

Zuzendaritza aldaketarekin, are gehiago gaztetu da Orixol Mendizale Elkarteko arduradunen taldea; 20 eta 22 urte artean dituzte sartu diren bost kide berriak. Euren asmoa da aurrekoek urtean antolatzen zituzten bost ekintzekin jarraitzea: mendi martxaz gain, hiru urtean behin antolatzen duten Besaide Eguna; bideo emanaldi bat; urtarrilaren 1ean Orixolera irteera eta salda; eta mendi irteera eta sagardotegia.

Yoga, pilates eta feldenkrais ikastaroak, hastear

Goizez eta arratsaldez izango dira lehenengo biak eta goizez bakarrik hirugarrena

J.I. ARAMAIO

Hilaren 25ean –arratsaldekoak– eta 26an –goizekoak– izango dira ikasturte berriko lehen yoga saioak. Goizez eguaztenetan izango da (10:00-11:30), eta arratsaldean martitzen eta eguenetan (18:30-20:00). Hileko kuota izango da 25 edo 40 euro, saio kopuruaren arabera –bat edo bi, astean–. Klase solteak jasotzeko aukera ere badago. Izena emateko: 626 00 81 51.

Pilates

Pilatesen hilaren 21a baino lehen eman behar da izena, udaletxean. Goizeko –martitzen eta eguen, 09:30etik 10:30era– eta arratsaldeko –astelehen eta eguen, 19:00etatik 20:00etara– taldeak egongo dira kasu honetan ere, eta urteko kuota izango dira 120 euro. Urrian hasiko dira eskolak.

Feldenkrais-a

Diziplina horretan jarduteko aukera ere izango da. Mugimendua eta bakoitzarekiko atentzioa lantzen ditu metodo horrek: mugimendu eraginkor, atsegin, erraz eta osasuntsuagoak lortzen dira, eta erlaxazioa ere lantzen da. Astelehenetan izango da, 09:00etatik 10:00etara. Izena emateko, 620 60 19 59 –Ainhoa Garai–.

Alboka eta beste hainbat instrumentu ikasteko aukera

Urritik ekainera egingo da alboka, dultzaina, danborra, txaramelak, goilorak eta kainabera jotzen ikasteko ikastaroa, eguenean –ordutegia ikasleen artean adostuko dute–. Fede de Dios izango da irakaslea, eta eguen honetan, 17:00etan, eskola atarian egongo da, instrumentuak erakusteko. Informazio gehiago eta izen-ematea: 605 71 81 63.



NIRE USTEZ

XABI IGOA

Ahazten ikasi

Sarri entzun izan dut gizartea azkarregi doala, ez garela geratzen, ez dugula hausnarketarako denborarik hartzen, eta hala izango da. Gaur, baina, abiadura baino, joana hartu nahi dut hizpide, hausnarketa gai delakoan edo...

Iraila, askorentzako, mugarririk gisa identifikatuko den hilabetea izango da: egongo da lehenengoz mantala jantziko duenik; lehenengoz instituturara joateko autobusa hartuko duenik; enegarrenez, lortuko ez duela jakitun izanik ere, astean behin kirola egitea helburutzat jarriko duenik; eta azkenekoz udan zehar lanleku izan duenera joango denik ere bai.

Baina nago badela mugarririk aurrekoa ezkutatzeko erabiltzen duenik ere, zetorrena joandako bihurtzeko. Agenda mediatikotik hizketagai nahi ez duen hori ezabatzeko. Etorri baitira milaka pertsona mediterranean barna, eta askorentzako baita joan ere. Etorri baitziren pentsiodunak, eta askorentzako joan egin ziren haien aldarri eta pankartekin batera. Etorri eta joan, eta zerrenda amaigabe bat.

Ahazten erakutsi digute, eta guk, ikasle finak izaki, ederto ikasi dugu.

Lanak egingo dituzte egunotan udalerriko hainbat auzotan

Solobarriko bidean arekak konponduko dituzte, arketak garbitu eta urak bideratu, 13.702 euro erabiliz. Azkoagan arekak konpondu eta depositura bideratuko dituzte urak, 4.558 euroko kostuarekin. Matxinkaleko arekak garbitzeko aurrekontua 2.238 euro da. Arragan, makinistaren lana, 9.447 euro, ordainduko du Udalak areken konponketan.

Tomatea ezagutzeko eta dastatzeko astea

Debagoieneko Landa Garapenerako Elkarteak eta Mankomunitateak elkarlanean antolatuta dute Tomatearen Astea. Jakintza partekatzeko topaketa eta haziak lortzen ikasteko tailerra izango dira, eta, borobiltzeko, azoka berezia irailaren 22an

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Tomateari, eta, bereziki, Aretxabaletako tomateari, hiru egun eskaini gura izan dizkiote hura aztertzeke, haren gaineko jakintza trukatzeko eta, zelan ez, haren zapoarekin gozatzeko. Horregatik, topaketa, tailerrak eta azoka antolatuta dute Debagoieneko Landa Garapenerako Elkarteak eta Mankomunitateak, Udalaren eta Aleka elkartearen laguntzarekin. "Sanmigeletako azokaren bueltan egin izan ditugu ekitaldiak; aurten, baina, aparteko astea eskainiko diogu", dio Ana Herizek, Mankomunitateko ordezkariak.

Ekoizleen arteko topaketarekin emango diote hasiera martitzenean. Haziak ekoiztu eta komertzializatzen dituen Aleka elkarte kide Marc Badal, Marta Barba eta Miguel Arribas Aretxabaletako tomateak aztertzeraz etorriko dira, eta bertako ekoizleak produktuekin gerturatzeraz gonbidatu dituzte.



Tomateak Eskoriatzako ortu batean. AITOR AGIRIANO

Eguenean, hilaren 20an, ostera, tomate haziak zelan lortu erakutsiko du Beizamako ekoizle Miguel Arribasek, Arkupen.

Tomatearekin gozatzeko aukera herritarrek ere izango dute: "Irailaren 22an tomateen era-

kusketa jarriko dugu eta lehiaketak ere egongo dira: tomate zatarrrena, barietate gehien dituen... Zopa hotza ere egingo dute gastronomia elkarteek eta pintxoak izango dituzte tabernetan", jakinarazi du Herizek.

Asteko egitaraua

Irailak 18, martitzena

- **18:30** Ekoizleen topaketa eta tailerra, Arkupen.

Irailak 20, eguena

- **18:30** Tailerra: *Haziak zelan lortu*, Arkupen.

Irailak 22, zapatua

- **11:00** Azokaren irekiera.
- **11:30** Jakoba Errekondoren landare kontsultategia.
- **12:00** Tomate erakusketa.
- **12:00** Tomate-zopa hotzen lehiaketa, pintxo dastatzea...
- **14:00** Sari banaketak.

"Ekoizleen jakintza jaso gura dugu"

MARC BADAL ALEKA
ELKARTEKO KIDEA

Aretxabaletako tomatearen gainean aditua.

Ekoizleekin topaketa egin gura duzue; zertarako?

Aretxabaletako tomateak, baratzte ezberdinetakoak, elkartu gura ditugu eta ekoizleekin batera aztertu, barietate horrek zein aldaketa izan dituen jakiteko. Guk tokiko barietateekin egiten dugu lan eta barne-aniztasuna da horien ezaugarri bat, leku bakoitzera egokitzeke ahalmena. Hori



M.A.

benetan interesgarria da. Ekoizleen jakintza jaso gura dugu: zelan zaintzen duten, haziak zelan jaso eta gorde... Ekitaldia edonori irekia dago.

Haziak zelan jaso ere erakutsiko duzue.

Bai; Miguel Arribasek eskainiko du tailerra: zer egin ortuan haziak ondo jasotzeko, kontuan hartu beharrekoak, zelan bildu, atera, garbitu, lehortu... Eta, gainera, azokan haziak saltzen egongo gara.



Hondatezte-makina, Arkarazo auzoko zelaian. M.A.

Bolibar erreka hodiak konpontzen dabil Ur Kontsorzioa

Erreka horrek ura daroa Urkulura, Arkarazotik bueltan, eta hainbat zelaitan zuloak egin dituzte lanok egiteko

M.A. ARETXABALETAKO

Eskoriatzako Bolibar auzotik Urkulu urtegiara ura daraman errekatxoan hainbat lan egiten dabil Ur Kontsorzioa azken asteotan. Arkarazoko zelaietatik pasatzen da errekatxo hodi bidez kanalizatuta, eta aspalditxoan zebilen arazoak ematen; izan ere, hodi horrek ura galtzen du pitzaduren ondorioz, eta zelaietan pilatzen da. "Mendiak behera egiten du indarra eta horren eraginez hodiak mugitu egiten ditu pitzadurak sorraraziz. Hortaz, konpondu beharrean zegoen

arazoa zen", argitu dute Ur Kontsorzioako ordezkariak.

Hodi hori berritzen dabil Sinzatec enpresa azken asteotan: "400 metroko tartean kanpoko hodiaren barruan dagoena beste batekin dabilta berritzen". 150.000 euroko kostua dute lanek eta urri hasierarako bukatuta izango dituztela diote.

Asfaltatze lanak Arkarazon

Udalak beste lantxo bat egiteko asmoa ere badu Arkarazo auzoan: elizara bitartean dagoen errepede zatia asfaltatu. Aldundiaren laguntzarekin egingo dute hori.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Traste mordoak Orokobidegurutzean

Traste zaharrak eta zaborra bota dituzte Oro auzoko bidegurutzean. Kontua ez dela berria jakinarazi dute. Auzotarrak oso kezkatuta daude, sarri agertzen dira eta halakoak.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Mugikortasuna sustatze aldera, ekintza mordoa

Mugikortasunaren Europako Astearekin bat egin, eta irailaren 15etik 23ra bitartean ekintza mordoa izango dira herrian; besteak beste, Skate Festa, bizikleta martxak, bigarren eskuko bizikleta azoka eta ibilaldi osasuntsua

Mirari Altube ARETXABALETA

Mugikortasunaren Europako Astearekin bat egin du, beste behin, Aretxabaleako Udalak, eta, hainbat eragilerekin elkar-lanean, ekintza ugari antolatu ditu *Konbina ezazu eta mugizaitetz!* leloaren baitan. "Helburua herritarrak garraio desberdinak erabiltzera animatzea da. Modu horretan irabaziko da erosotasunean, aurrezpenean, eta, gainera, jasangarriagoa izango da. Hau da, garraiobide publikoak eta jasangarriak konbinatzea da mezuaren muina", jakinarazi dute udal ordezkariak.

Skate Festa bihar

Bihar, zapatua, emango diote hasiera asteari Skate Festa egin da Markoleko parkean. Arraska taldeak antolatu eta girotuko du jaia, eta edonork parte hartu ahal izango du, hasiberria izan zein aditua. Domekarako, ostera, mendi bizikleta martxarako deia egin du UDAK (08:30). Hiru ibilbide gertatu dituzte.

Eguaztenean, irailaren 19an, bigarren eskuko bizikleten azoka eta ibilgailu elektrikoaren erakusketa izango dira Herriko Plazan; azken horietako batzuk Aretxabaleako Lanbide Institutuko ikasleek egindakoak. Azokan (17:00-20:00) hainbat material batuko dituzte: bizikletak, patineteak, kaskoak... Horietako zerbait saltzeko interesa izanez gero, martitzenean (11:00-13:00 eta 17:00-19:00) zein eguaztenean (11:00-13:00) jasoko dituzte Herriko Plazan.

Eguenean, hilaren 20an, martxa osasungarria egingo dute, Ibarra kiroldigitik abiatuta. Eta hurrengo domekan, hilaren 23an, familiendako bizikleta martxa izango da. Kurtzebarri eskolako kantzatik irtengo dira (10:15) Eskoriatza aldera joateko; ibilbidea: Aretxabalea-Torrebaso-Aretxabalea. Hamarretakoa eskainiko diete guztiei bukaeran.



Bizikletak pilatuta iazko azokan, Herriko Plazan. MIRARI ALTUBE

Egitaraua

Irailak 15: Skate Festa

- **11:00** Ikastaroa hasiberriendako.
- **14:30** Skate libreia.
- **15:30** Skate txapelketa.
- **17:30** Sari banaketa.

Irailak 16: MTB martxa

- **09:00** Hiru ibilbide aukeran (10 km, 27 km eta 45 km); Herriko Plazatik abiatuta (08:30ean izen-ematea).

Irailak 19: Azoka

- **17:00** Bigarren eskuko bizikleten azoka, plazan.
- **17:00** Ibilgailu elektrikoaren erakusketa.

Irailak 20: Ibilaldia oinez

- **09:30** Ibilaldi osasuntsua, kiroldigitik abiatuta.

Irailak 23: Irteera bizikletan

- **10:15** Bizikleta irteera familiendako, Kurtzebarriko kantzatik.



Uribetxebarria, Elkoro eta Oiarbide, astelehenean, Basabeko bidegurutzean. I.B.

la 30 metroko biribilgunea egingo dute Basabe inguruan

Aintzane Oiarbide diputatuak adierazi du urte bukaeran esleituko dituztela lanok, eta otsailean bukatu

Imanol Beloki ARETXABALETA

Basabe inguruko bidegurutzean Foru Aldundiak egingo duen biribilgunea aurkeztu zuen astelehenean Gipuzkoako Bide Azpiegiturarako diputatu Aintzane Oiarbidek, Aldundiko Plangintza eta Kudeaketa zuzendari Mikel Uribetxebarriarekin batera: "Bost adar ditu bidegurutze honek eta bost horietatik hiru dira foru errepideak. Agintaldi ia hasieran etorri zitzaigun alkatea esanaz nahiko justu zebiltzala autobusak eta pisuzko automobilak pasatzeko, eta bazegoela arriskua. Horregatik, konpondu beharra zegoen eta segurtasuna bermatu".

Obraren nondik norakoaren berri eman zuen astelehenean: "Lanok urte honen bukaeran esleituko dira. 150.000 euroko aurrekontua izango dute eta sei aste inguruko iraupena; 2019ko otsailean amaituko dira. Hala

ere, Udalak lurrik guri uzteko tramitazio txiki batzuk falta dira egiteko oraindik...". Biribilguneak 29,5 metroko diametroa izango du, eta 7 metro zabaleko eraztuna: "Era berean, inguru horretako seinalizazioa berritu egingo da, eta espaloï bat eraiki, jarraipena emango diona Orotik iristen denari".

Aparkalekua eta berdegunea

Herrirako sarrera hobetu gura da lan horiekin, eta, biribilgunea egitean, Azbeko proiektuarekin batera aparkalekuak eta berdegune bat ere egingo dituztela adierazi zuen Unai Elkoro alkateak: "Gure kaleetako mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko lanean gabilta Udalean. Helburu horrekin, biribilgunean egingo diren hobekuntzei esker, egokiagoak izango dira herrirako sarbidea eta inguru horretako zirkulazioa".

Jou Diaz
Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

LANA • FISKALITATEA • KONTABILITATEA • JURIDIKOA-ABOKATUAK

zenbaki

aholkulariak-abokatuak

30 urteko eskarmentua fiskal, kontabilitate, lan eta merkataritza arloetan, enpresen, autonomoen, partikularren eta enpresa bat sortu nahi dutenen zerbitzura

Basabe Industriaidea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa) • Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.eus



Udal ordezkari batzuk eta nerabeen beharrak aztertzen jardun duen lantaldeko hainbat ordezkari. MIRARI ALTUBE

Aisialdian nora jo jakiteko gida nerabeendako

Aretxabaletan aisialdirako dagoen eskaintzaren berri jaso du Udalak, hainbat eragileren laguntzarekin, eskuorri batean; 12 eta 16 urte artekoendako gida da eta han batu dituzte, besteak beste, kirol jardueren eta arte eta sorkuntzarako dauden aukeren berri

Mirari Altube ARETXABALETA

Astelehenean aurkeztu zuten nerabeendako gertatu duten gida. Udal ordezkariak, ikastetxeetakoak, kale hezitzaileak eta Atxabalta Mugi egitasmoko kideak elkartu ziren, 12 eta 16 urte artekoendako herrian bertan dagoen eskaintzaren berri ematen duen eskuorria erakusteko. Datozen egunetan, berriz, ikastetxeetan banatuko diete nerabeei.

Aldaketa askoko garaia

Gida horren egileen esanetan, helburua da, batetik, erakustea nerabeei Aretxabaletan denbora libreaz modu aktiboan eta parte hartzailean gozatzeko aukera asko daudela; eta bestetik, parte hartzea bultzatzea: "Herriaz modu osasuntsuan goza dezaten ondo pasatzeko aukerak eskaintzea herrian bertan", adierazi du Maider Etxanizek, Gazteria teknikariak. Izan ere, 12 eta 16 urte bitarteko aroa aldaketa askokoa izaten da, eta "zaila"

hainbatendako: "Nerabezeroan aldaketa fisiko eta psikologiko asko gertatzen dira, eta, sarritan, euren lekua aurkitzea zaila egiten zaie". Gaineratu dute ekintzetan parte hartzeari uzten diotela eta eurentzako ezer ez dagoen sentsazioa izaten dutela: "Horren aurrean, bertan ditugun aukeren gaineko informazioa ematea interesgarria iruditzen zaigu".

Kirola sustatzeko ahalegina

"Nerabeen artean jarduera fisikoa sustatzea jarri dugu helburu nagusi ikasturte honetarako Atxabalta Mugin. Baina adin tarte horretan eragitea nahiko konplikatu da, eta eratu dugun talde honetan lanean gabiltza

JARDUERA FISIKOA SUSTATU GURA DUTE, BAINA BESTE ESKAINTZA BATZUK ERE JASO DITUZTE

guztion artean euren intereseko zerbait asmatzeko", jakinarazi du Asier Mujikak, Kirol teknikariak eta Atxabalta Mugi egitasmoko sustatzaileak, eta gaineratu: "Gazte asko lehiaketa kiroltik kanpo geratzen dira hautaketa prozesuen ondorioz, baina jakinarazi gura diegu aisialdi kirola ere egon badagoela; ea interesa pizten diegun".

Lau ataletan banatuta

Informazioa lau ataletan banatu dute gida horretan: aisialdia – gaztelekuko zerbitzua –, artea eta sorkuntza – musika eskola, zirku tailerra –, kirol jarduerak – Ibarra kiroldegia, Leintz Eskola kirola – eta lehiaketa kirola – futbola, gimnasia erritmikoa, saskibaloia, txirrindularitza, pilota, igeriketa... –. Atal bakoitzean edozein nerabek izena eman dezakeen ekintzen gaineko informazio zehatzagoa azaltzen da. Udalaren webgunean – *Aretxabaleta.eus* – ere eskuragai dago gida hori.

GSR Debagoienako egoiliarren eskulanak, herritarrei begira

Astean jarri dituzte ikusgai eta Arkupeko erakusketa aretoan egongo dira irailaren 25era bitartean

M.A. ARETXABALETA

Eskulanez bete da Arkupeko erakusketa aretoa, beste behin; GSR Debagoiena zaharren egoiliarren egindako eskulanekin oraingoan. Egindako lantxoak erakutsi gura dizkiete herritarrei.

Autoestimua indartu

Astean bi arratsaldetan elkartzen dira 40 bat egoiliar eskulanak egiteko –uda sasoiak gutxiago eta neguan gehiago–. Bertako terapeuten gidaritzapean, eta boluntarioen laguntzarekin, egiten dituzte lantxoak: "Norbe-

raren interesen arabera aukeratzeko lan egin: josi, puntua, margotu, marketeria kontuak... Nahiago izaten dute bingoan jokatu, baina eskulanak egitera ere pozik etortzen dira", adierazi du Irati Gallastegi terapeutak.

Arkupen jarritako erakusketarekin oso gustura daude: "Autoestimua egiteko izugarritzako indarra da. Euren lanak herritarrek ikusiko dituztela jakiteak harrotasunez betetzen ditu", dio Gallastegik. Eta egoiliarrek euren erakundearen gerturatzeko dabilta egunotan.



Zaharren egoitzako egoiliarrek egindako eskulanak Arkupen. M.A.

Lekaixokak bertso liburua egingo die 2017an jaiotakoei

Laugarrenez egingo dute jaioberriendako bertso liburua Lekaixokak bertso eskolako kideek. 2017an jaiotako umeei eskainitako bertsoak eta horien argazkiak jasoko dituzte. Liburuan parte hartzeko epea irailaren 30ean bukatuko da; horretarako, datu hauek eman behar dira: umearen izena, abizenak eta jaioteguna; guraso edo tutoreen izen-abizenak, nortasun agiriaren zenbakiak eta helbidea; umearen bi argazki, gutxienez; umearen deskribapen laburra: izaera, berezitasunak, familia-kideak... Datuak posta elektronikoz bidal daitezke, *lekaixoka@gmail.com* helbidera, edo Arkupeko harreman utzi –CDa edo USBa–.

Teknikaria behar du Loramendi euskara elkarteak

Loramendik teknikari bat behar du urrian lanean hasteko. Honako eginbehar hauek izango ditu: Aretxabaleto euskararen, kulturaren eta aisialdiaren gaineko proiektuak dinamizatzea eta abendura bitartean Euskaraldiko dinamizatzaile lanetan jardutea. Loramendik zera eskatzen dio langileari: euskalduna izatea eta dinamizaziorako eta kudeaketarako gaitasuna edukitzea. Eta baloratuko ditu: aretxabaleto izatea eta bertako euskara menperatzea; euskalgintzan lan esperientzia; eta oinarritzko IKT ezagutzak.

Irailaren 21a baino lehen bidali behar dira curriculumak: *euskara@loramendielkartea.eus*.

Dena prest Atxorrotzeko gazteluaren festarako

Atxorrotx Kultura Elkartearen Errekan Gora jaialdiaren barruan antolatutako azken hitzordua izango da zapatuan. Atxorrotzeko gazteluaren festa egiten den hirugarren aldia izango da, eta aurten egitarau sendoa osatu dute antolatzaileek

Imanol Beloki ESKORIATZA

Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatutako Errekan Gora musika jaialdiaren hamaikagarren edizioa ixteko, Atxorrotzeko gazteluaren festa izango da zapatu honetan, Atxorrotxen. Festa hori egiten den hirugarren aldia izango da aurtengoa; hain zuzen ere, zortzi urteren ostean egingo da berriz.

2010ean, Bizardunak talde nafarraren emanaldia izan zen Atxorrotzeko zelaian. Baita trikitilariak eta bertsolariak ere, eta zapatu honetarako, berriz, egitarau zabalagoa eta orotariko ekintzak prestatu dituzte. Hala, helburu honekin antolatu dutela adierazi du Juan Luis Zubizarretak, Atxorrotx Kultura Elkarteko lehendakariak: "Egitasmo honetan, Atxorrotx elkarrekin gizon eta emakumeak elkartu nahi ditugu, eta guztiekin jai-giroan konpartitu. Panaman edo Eskoriatzan bide honetan geratu diren lagunak irakaspe-



2010ean Bizardunak taldeak egindako emanaldia. GOIENA

ATXORROTZEKO INDUSKETA LANAK HASI ZITUZTELA 10 URTE PASATA, BISITA GIDATUA IZANGO DA

nak gogoratu. Baita gurekin oraindik ez daudenak, behingoz etxera ekarri behar ditugunak. Eta baita gure etorkizuna erai-kiko duten belaunaldi berriak adituz. Herritarren arteko auzolana. Auzolanean bilduz, herria

egiteko... Beraz, gonbidatuta zaudete guztiok bertara".

Paisaia ederrean, festa aparta

Egunari hasiera emateko, 09:30ean, txistularien kalejira izango da; eta 10:30ean, Atxorrotx mendira igoera ofiziala hasiko da Eskoriatzako eta Gatzagako plazetatik; 12:00etan, harrera eta bisita gidatua izango da; 12:30ean, ekitaldia nagusia; eta hori amaitzean, dantzariak izango dira; 13:15ean, Lore Kolore pailazoak ikuskizuna eskainiko du; eta 14:30etatik aurrera musikaren txanda izango da. The Potes talde arrasatearra igoko da lehenbizi oholtzara; 16:30ean, berriz, Zopilotes Txirrius talde nafarrak eskainiko du kontzertua; eta, egunari amaiera emateko, DJ Zigor DZren (Esne Beltza) emanaldia izango da Inkernu taberna kanpoaldean, 20:00etan. Gaur, bestalde, gazteluaren festako kamisetak salduko dituzte plazan, 19:00etatik aurrera, eta zapatuan ere izango dira salgai, Atxorrotxen.

Indusketen azalpenak

Aurten, hamar urte bete dira Atxorrotzeko indusketa lanak hasi zituztela hainbat boluntariok, Iñaki Sagredo arkeologoaren gidaritzapean, eta horren bueltan bisita gidatua egingo da, 12:00etan hasita. Hori horrela, bertan egindakoen eta aurkitutakoen azalpenak emango dituzte. "Nafarroako Erresumak

Gazteluaren festaren egitaraua

Atxorrotx Kultura Elkarteak hirugarrenez antolatu duen Atxorrotzeko gazteluaren festaren barruan, ekintza asko izango dira.

Zapatua

- **09:30** Txistulariekin kalejira.
- **10:30** Igoera ofiziala Eskoriatzako eta Leintz Gatzagako herrietako plazetatik.
- **12:00** Harrera eta bisita gidatua.
- **12:30** Ekitaldi nagusia.
- **12:45** Dantzariak.
- **13:15** Lore Kolore pailazoaren ikuskizuna.
- **14:30** The Potes taldearen kontzertua.
- **16:30** Zopilotes Txirrius taldearen kontzertua.
- **20:00** DJ DZ (Esne Beltza) Inkernu taberna kanpoaldean.

Gipuzkoan izan zuen gaztelu bat izan zen, zaharrena, eta erresumaren tenentzia bezala denbora gehien iraun zuena. Gipuzkoa osoa Atxorrotzeko tenentziaren agindupean egon zen gazteluaren lehenengo garaietan".



IÑAKI KORTAZAR

Atxorrotxen garbiketa lanetan

Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatuta, auzolana izan zen pasa den astean Atxorrotxen. Guztira, 20 lagun inguru batu ziren bertan, eta helburua gazteluko igarobideko harriak txukuntzea eta teiltatuko teiltak konpontzea izan zen. Bi taldetan banatuta egin zituzten lanak; astean zehar, aldiz, sasiak kentzen ere aritu dira hainbat lagun.

Goitibehera tailerra izango da gaur, Fernando Eskoriatza plazan

Irailaren 22an izango den Apotzagako goitibehera jaitsierarako ibilgailuak prestatzeko aukera izango da

I.B ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, 16:00etatik aurrera, Eskoriatzako Goitibehera Zaleak taldeak antolatuta, goitibehera tailerra izango da Fernando Eskoriatza plazan, birziklatutako materiala erabiltuta.

Irailaren 22an izango da Goitibehera txapelketa Eskoriatzan, aurten, seigarren edizioa izango dena, eta egun horretara begira antolatu dute tailerra antolatzaileek, aurreko edizioetan egin duten moduan. Hala, goitibehera bat prestatu edo egin nahi

duen edonorentzat zabalik egingo da tailerra. Oinarrizko materiala, berriz, norbanako bakoitzak eraman behar du; hau da: bizikletaren eskulekua, gurpilak, eserlekua... Eta bertan izango direnek laguntza eskainiko dute; batez ere, soldatze lanetarako.

Goitibeheretan aditu Jose Angel Urrutiak gidatuko du tailerra, eta mota askotariko goitibeherak puntuan jartzeko aprobetxatu ahal izango dute bertaraten diren haurrek, gazteek eta nerabeek.

OHARRAK

Euskaraldia

Euskaraldiaren baitan, Eskoriatzako hamaikakoaren aurkezpena datorren eguaztenean egingo da, Zaldibar antzokian, 19:00etan.

Gaztelekua, zabalik

Udako oporrak pasata, gaurtik aurrera izango dute martxan Eskoriatzako gaztelekua, eta, beraz, nerabeak 17:00etatik aurrera joan ahal izango dira bertara.

Lapurretak autoetan

Eskoriatzako elizateetako txabola eta ortu inguruetan lapurretak izan dituztela salatu dute hainbat herritarrek sare sozialen bidez.



Dantzari gazteak Fernando Eskoriatza plazan. GOIENA

Euskal dantza ikastaroa, helduen taldea sortzeko

Beheko Errota musika eskolak kudeatuko duen ikastaroa urritik ekainera arte izango da, eta izen ematea zabalik dago. Herriko dantzari izandakoek sustatutako ekimena da, eta dantza egiten jarraitzeko helburuarekin antolatu dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzan izandako Gorosarri dantza taldean ibilitako hainbatek sustatuta, helduen dantza taldea osatu nahi dute. Horretarako, helduentzako euskal dantza ikastaroa antolatu dute, urritik ekainera arte. Saioak, berriz, astelehenetan edo eguztenetan izango dira.

"Pena eman zigun taldea uzteak herriko hainbat dantzari, eta gure helburua dantzan egiten jarraitzea da. Gure aldetik taldea sortzea ezinezkoa zela iruditzen zitzaigun, eta, horregatik, musika eskolakoek kudeatuko dute ikastaroa", adierazi du Idoia Iñurategik, ikastaroaren sustatzaileetako batek. Hain zuzen ere, Ibone Arrieta irakasleak gidatuko du ikastaroa. Hutsetik hasi nahi dutenei eta euskal dantzen jakintza dutenei egongo da zuzenduta".

Adin batetik aurrera, talde barik Beheko Errota musika eskolak gaztetxoek dantza taldea kudea-

tzen du. 6 eta 16 urte arteko 40 neska-mutiko ari dira, eta talde sendoa da. Nagusiagoak, bestalde, talde barik geratzen direla adierazi du Iñurategik: "Eskoriatzan badira 17 urte inguru dauzkaten hainbat dantzari, eta ezer barik geratzen dira. Beraien irtenbidea beste herri bateko talde batera sartzea edo dantzak uztea da, eta horri buelta emateko eta dantzan egiten jarraitzeko sortu dugu ikastaroa".

Nondik norakoak, gero

Izen-ematea zabalik dago, eta irailaren amaieran erabakiko dute nola egingo duten ikastaroa. "Beharbada, bi talde egingo ditugu; euskal dantzak egiten hutsetik hasi nahi dutenekin

HUTSETIK HASTEN DIRENTZAKO ETA DANTZAN EGITEN DAKITENENTZAKO IKASTAROA IZANGO DA

eta dantzak dakizkitenekin. Agian, denok batera egingo dugu... Izen-emate kopurua ikusi beharko dugu lehenengo, nola egin erabaki aurretik. Hala ere, dantzan urte asko ibili ginenok ere dantza batzuk ahaztuak ditugu, eta hasieratik hasi beharko dugu bere egunean dantzariak ginenok".

Izen-ematea, musika eskolan

Taldea irail amaierarako osatuta izatea nahi dute. Hala ere, urtean zehar izena eman nahi duenarentzat ere, zabalik egongo da ikasturte osoan. Ikastaroaren prezioa 25 euro da hileko, eta izena emateko Beheko Errota musika eskolara joan beharko da, honako ordutegi honetan: astelehenetik eguenera 16:00etatik 19:00etara bitartean eta ostiraletan 16:00etatik 18:00etara bitartean.

Informazio gehiago eskuratu nahi duenak Beheko Errota musika eskolara dei egin dezake, 943 71 49 95 telefonora.

Jarduera fisikoa sustatzeko ekintza ugari Eskoriatzan

Mugikortasun Astearekin bat eginez, hainbat ikastaro izango dira irailaren 16tik 22ra bitartean

I.B ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalak aurten ere, Europako Mugikortasun Astearekin bat eginez, zenbait ekintza antolatu ditu. Irailaren 16tik 22ra bitartean ospatuko da, Konbina ezazu eta mugi zaitez lelopean. Autoa baztertu eta garraio-bide desberdinak erabiltzeko gonbidapena egiten dute, jarduerak sustatzeko.

Bigarren eskuko bizikleta eta patinete azoka, eta ibilgailu elektrikoek erakustaldia irailaren 20an izango da, plazan, 17:00etan. Eskoriatza-Arrasate-

Eskoriatza bizikleta martxa irailaren 23an izango da, 10:00etan, plazatik irtenda. Bueltan, Torrebason, hamarretakoa banatuko dute.

Bizikletan ibiltzen ikasteko ikastaroa irailaren 17an, 19an, 21ean, 24an, 26an eta 28an izango da, kiroldegian, 18:30etik 20:30era. Patinetean ibiltzeko ikastaroa, haurrentzako, irailaren 18an eta 20an izango da, 17:30ean. Helduentzako, egun beretan, 18:30ean, eta familientzako ikastaroa irailaren 21ean izango da, 17:30ean.

Ganuzako paper margotuen bisita, hilaren 18an, 19:00etan

Zaharberitze prozesua azalduko du paper margotuak zaharberitzen aritu den Lola Rodriguezek

I.B ESKORIATZA

Ganuzako paper margotuak zaharberitu dituen Lola Rodriguez EHUKO irakaslearen hitzaldia izango da irailaren 18an, martitzena, Arizmendi Ikastolako Jose Arana gunean, 19:00etan.

Eskoriatzako Gaztañadui jauregiko herritarrontzat, Ganuza Etxea- bi gelatoko hormetan XIX. mendeko paper margotuak daude, Napoleonen garaian Frantzia sortutakoak (1812-1814) eta munduan bakar egiten dituzten ezaugarriak dituztenak.

2001ean, Ganuza Etxeko bi paper panoramikoak -Parisko monumentuak eta Compiègneko ehizaldia- zaharberitzeaz arduratu zen Rodriguezek. Azken paper horren zazpi ale bakarrik daude munduan.

Hitzaldia paper panoramikoaren aretoan egingo da, gaztelaraz. Bertan, paperak egiteko teknikak azaldu ondoren, Eskoriatzako paperen berreskuratze prozesua azalduko du Rodriguezek: nola konpondu zituzten, izan zituzten arazoak, paperen egoera, eta abar.

Aizkorri-Aratz parkeko Zalolez elkartearen batzarra

Aizkorri-Aratz parke naturaleko lur-jabe eta erabiltzaile gipuzkoarren elkarteak (Zalolez) urteko batzar orokorra egingo du datorren egunean, irailaren 20an, arratsaldeko sei eta erdietan, Zaldibar antzokian.

Aurreko akten onarpena, 2016-2017ko kudeaketaren deskargua, 2018ko gestio plana, 2018ko bazkide kuoten onarpena, zu-

zendaritza batzordearen karguen berriztatzea, eta abar izango dituzte hizpide batzarrean.

Debagoieneko eta Goierriko Aizkorri-Aratz parkeko lur-jabe erabiltzaileei bertaratzeko dei egin diete, elkarteak kide diren Zegama, Aretxabaleta, Leintz Gatzaga, Oñati, Legazpi, Eskoriatza eta Zeraingo 200 kideei, hain zuzen ere. Edozein zalantza edo informazio behar duenak, berriz, aizkorriaratzelkartea@gmail.com helbidera idatzi dezake.



Haurrak bola-jokoan, alkatearekin batera.



Herri kiroletan.



Apar festan gustura aritu ziren haurrak.



Gatzagarren eta kanpotarren arteko jokoak.



Herri afarian batutakoak, frontoian.

Primeran joan dira Andramaixak

Leintz Gatzagako Andramari jaietan jende dezente izan da hitzordu guztietan. Aurtengo berritasunak, gainera, ondo joan direla adierazi dute Udaleko ordezkariak, eta horiek datozen urteetako jaietan ere mantenduko dituztela gaineratu dute

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Andramari jaietan oso ondo aritu dira gatzagarrenak. Hitzordu ugari izan dituzte, eta hainbat bisitari izan zituzten aste bukaera osoan zehar. Hala, Udalak aurtengo jaien balorazio positiboa egin du.

Aurten, berritasunak izan dituzte; izan ere, urtero moduan, otxandiarrak, oinez, Gatzagako festetara joateaz gain, Aretxabaleako eta Eskoriatzako hirurogeita hamar bat lagun ere joan ziren oinez, Gatz Bidea eginez, bidearen konponketa aldarrika-

tzeko asmoz. Kintaden arteko jokoetan, bestalde, gatzagarrenak kanpotarren aurka aritu ziren lehian. Bola-joko txapelketa, berriz, haurrendako ere izan da aurten...

Alkatearen balorazio bikaina

"Udaletik jaien balorazio bikaina egiten dugu, eta kanpotik ere hala helarazi digu jendeak. Egubakoitzetik hasita, bola-joko txapelketan hainbeste jende baten zen urterik ez dut gogoan. Kontzertuetara ere jende dezente etorri zen, eta arrakastatsuak

izan ziren. Zapatua, berriz, mundiala izan zen, bazkaritarako jende pila bat batu ginen, bertakoak zein kanpokoak. Gero, jokoetan hasi eta euria egin zuen arren, giro aparta izan genuen. Jendearen portaera ona izan da, eta aurtengo berritasunak datozen urteetan ere ezarriko ditugu".

Jaiei amaiera emateko, erretiratuentzat bazkaria izango da zapatuan, Toki Eder elkartearen. Udalak, bazkaria jarriko die herriko nagusiei, eta herriko nagusienak lore sorta ere jasoko du.



Gatz Bidea Eskoriatzatik egin zutenen talde argazkia.



Criminal Remains taldea kontzertuan. ARGAZKIAK: AITOR AGIRIANO ETA IMANOL SORIANO



Helduen danborradan parte hartuko duten talde batzuetako ordezkariekin batera aurkeztu du Udalak aurtengo egitaraua. J.BEREZIARTUA

Burrunba, azoka eta jairako gogoa

Biharko azoka eta "inoizko parte-hartzerik handiena" izango duen helduen danborrada izango dira aurten ere San Martin jailetako ekitaldi nagusiak; domekan egingo den umeen danborradan 300 bat umek hartuko dute parte, Udalak jakinarazi duenez

Jokin Bereziartua BERGARA

San Martin Agirre eguna domekan izango denez, San Martin jaiak asteburu bakarrean ospatuko dira. Horrek esan gura du festak intentsitate handiz biziko dituztela bergararrek, gaur hasi eta domekara bitartean adin guztiendako askotariko ekintzak izango dira eta. 56.000 euroko aurrekontuarekin osatu du Udalak aurtengo egitaraua, betiere, herriko talde eta eragile ezberdinekin elkarlanean. "Guztion-dako jaiak dira, eta, beraz, bizikidetzan, modu parte-hartzailean eta berdintasunean goza ditza-gun", adierazi zuen Maite Agirrek, Kultura zinegotziak, martitzenean helduen danborradako zenbait taldetako ordezkariekin batera egindako aurkezpenean.

Helduen danborrada izaten da jailetako "ekitaldirik parte-hartzaileena", Agirreraren ara-

bera. Ia 500 danbor-jole eta 75 barrika-jole izango dira: "Iaz esan genuen helduen danborrada handitzen ari dela eta aurten ere gauza bera esan beharrean gaude; izan ere, inoiz baino parte hartzaile gehiago izango dira. Banda eta bestelako kideak gehituta, ia 600 lagun ibiliko dira lanean. Bergarako ekitaldirik parte-hartzaileena bihurtu da dagoeneko. Zorionak eta eskerririk asko partaide guztioi!", adierazi du Agirrek.

Euriarekin ere, danbor hotsak

Eguraldi ona edo txarra egin, helduen danborrada ez da bertan behera geratuko; hori bai, euria eginez gero, ibilbidea -ondoko egitarauan ikusgai- motzagoa izango da eta bandak plazan itxarongo die danbor-joleei. Lau martxa joko dituzte: *Umore ona*, *Pertxa*, *Lasai Toki* eta *San Mar-*

tin; eta, danborradaren ostean, San Martin Agirreraren heriotzaren errepresentazioa egingo dute San Martin plazan bertan.

Umeen danborrada ere San Martin jaien beste klasikoetako bat izaten da. Pello Garitano aritu da aurten ere koordinatzaile lanetan, eta, Udalaren arabera, aurten 300 bat umek hartuko dute parte. Umeek bi martxa joko dituzte: *Pertxa* eta *San Martin*.

52 salmenta postu Oxirondon

Bestalde, zapatuko azoka Oxirondon egingo da hirugarren urtez jarraian. Han izango dira barazki, fruta eta bestelako elikagaiak. Euskal Herri osotik etorritako 52 postu egongo dira; barazkiez eta frutez osatutako bederatzi postu, gazta saltzeko zazpi postu eta bestelako elikagaiez zein produktuz osatutako

Sanmartinak 2018

EGUBAKOITZA, HILAK 14

16:00 Bergara Hiria emakumezkoen saskibaloitxo txapelketa Labegaraletan.

16:00 Txosnaren irekiera Munibe plazan, Xaxau jai herrikoien konpartaren eskutik.

19:30 Wave taldearen kontzertua Munibe plazan.

19:30 Bikote nagusiendako 33. dantza solteko txapelketa Seminararioan, Moises Azpiatzuren omenez. Antolatzailea: Bergarako Musika Eskola.

20:30-22:00 eta **23:00** Tximeleta taldearen erromeria San Martin plazan.

22:00 Eyharts Munibe plazan.

ZAPATUA, HILAK 15

09:30 Barazki eta fruitu lehiaketak eta azoka Oxirondon.

10:30 Gazta lehiaketa Oxirondon.

11:00 Bergarako trikitalariekin kalejira Oxirondo azokatik hasita.

11:00 Umeendako tailerrak Oxirondo azokan: Landare usaindunen aldaxkak egitea.

11:30 Bergarako odolosteen dastatzea. Urzelai, Imaz, Rezola, Bixain, Leturia eta Gaittaa harakinei esker, Oxirondo plazan.

12:00 Erleak eta ezti erakusketa: nondik eta nola ateratzen den ezti. Ezti dastatzeko aukera Erlantz Olabarriaren eskutik, Oxirondon.

13:30 Barazki, fruta eta gazta lehiaketetako sari banaketa Oxirondo plazan.

14:30 Herri bazkaria Munibe plazan. Ondoren, jolasak.

17:30 Gaztetxoendako zezentxoak eta poneyak Seminararioko patioan.

18:00 Jaixkipe txaranga, Munibe plazatik.

18:30 Bergarako Erraldoi Taldearen kalejira, San Martin plazatik hasita.

19:00 Saskibaloitxo taldeen aurkezpena San Martin plazan.

22:30 Helduen danborrada. Ibilbidea -euririk egiten ez badu-: Udal Liburutegia, Arruriaga, Masterreka, Bideberri, Fraiskozuri, Herrilagunak, Domingo Irala, Irizar, Barrenkalea, San Martin plaza, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekale, Arruriaga, Barrenkale, San Martin plaza.

23:30 San Martinen heriotzaren errepresentazioa San Martin plazan, Musika Bandaren laguntzarekin.

00:15 Joselu Anaiak taldearekin erromeria San Martin plazan.

02:30 DJ Afil Munibe plazan.

DOMEKA, HILAK 16

09:00 Sokamuturra, Barrenkalean eta San Martin plazan. 16 urtetik beherakoek debekatuta dute sokamuturrean parte hartzea.

09:00 Aire libreko 44. Simon Arrieta pintura lehiaketa, Beart elkarteak antolatuta. Sari banaketa **14:30**ean egingo da Seminarario arkupeetan.

10:30 Diana, Bergarako Txistulari Bandarekin.

11:00 Meza nagusia San Pedro parrokian.

11:15 Kalejira Bergarako Musika Bandarekin.

12:00 Errekortadoreen eskola ibiltaria Seminararioan.

12:30 Bergarako Musika Bandaren kontzertua San Martin plazan.

18:00 Txosna irekiera.

18:30 Umeen danborrada. Ibilbidea: Udal Liburutegia, Arruriaga, Masterreka, Bideberri, Fraiskozuri, Herrilagunak, Domingo Irala, Irizar, Barrenkalea, San Martin plaza. Bergarako Musika Eskolako gazte bandaren laguntzaz.

20:00 Gozategi taldearekin erromeria San Martin plazan.

22:00 Suzko erruberak Agorrosin kirol gunetik.



Aurten hirugarren urtez, Oxirondon jarriko dute zapatuko azoka. GOIENA



lazko bikote nagusien dantza askatu txapelketako talde argazkia. GOIENA

Berrikuntzak dantza txapelketan

Urtero moduan, Bergarako Musika Eskolak bikote nagusiendako dantza askatu txapelketa antolatzen du Moises Azpiazen omenez. Gaur izango da saioa, Seminarixoa, 19:30ean. Bikoteek fandangoa eta arin-arina dantzatzeko dituzte. Hamaika bikotek hartuko dute parte txapelketan; tartean, Saioa Galarraga eta Julen Murgiondo bergarrek. Epaimahaia osatuko dute Euskal Dantzari Biltzarrak izendatutako hiru kidek: Gabriel Alonsok, Arantxa Garinek eta Antton Mendizabalek. Aurtengoa 33. aldia izango da eta bi berrikuntza aipagarri izango ditu: bi proba egingo dituzte betiko dantza saioan, besoen erabilera eta espazio txikian dantza egitea izango dituenak irizpide moduan. Bi proba berri horiekin txapelketa luzeegia gerta ez dadin, fandangoa eta arin-arina buelta erdira pasatu dituzte. Sari nagusia hau izango da: garaikurra, txapela, zapia eta 200 euro.

36 postu. Baserritarren sasoiko produktuak dastatzeko eta erosteko aukera izateaz gain, barazki, fruta eta gazta lehiaketarik ere ez da faltako. Gainera, Bergarako odolosten dastatzea, ezti erakusketa eta umeendako tailerra ere egongo dira Oxirondon zapatu goizean zehar.

"Gune askea" Munibe plazan

Xaxau jai herrikoien konpartsak Muniben jarriko du txosnagunea aurtan ere. "Prestaketekin oso justu ibili gara denboraz, baina ziur gaude giro ederra egongo dela Muniben aurtan ere. Herri bazkariari eman nahi izan diogu indarra; iaz, adibidez, bertako baserritarren produktuekin egin genuen eta aurtan Zarauzko catering enpresa berritzaile baten ardura izango da bazkaria prestatzea. Esan beharra dugu, aldi berean, Udalaren diru laguntzak gero eta txikiagoak direla urtetik urtera", esan du Xaxauko Iosu Agirrek.

Xaxauk Munibe "gune aske" bihurtu gura du aurtengo San Martin jaietan ere: "Alternatiba bat eskaini nahi dugu; jai sanoak, feministak eta kulturalki ederrak izango direnak".

Danborrada: helduen taldeak

- San Lokal
- Gazte Irati
- Gazte Martin
- Rosa (Barrikak).
- Zuloa
- Jerhis
- Urdinak
- Txinpartak
- Danbarrara (Barrikak)
- Arizeta
- San Joxepe
- Aranzadi
- Artatse
- Pizzeriakoak (Barrikak)
- 99kuak
- Lokatza
- Birkiwi
- San Martin eskola
- Lasai Toki

Oharra: Euria egiten badu, ibilbidea motzagoa izango da eta bandak San Martin plazan itxarongo die danbor-joleei.

Dolmenen ibilbideari balioa emateko apustua

Elgoibarko, Soraluzeko eta Bergarako udalen lankidetzaz-hitzarmen berri bati esker, Kerexetaegia Hegokoa trikuharria berreraikitze lanak irailean hasi eta urrian bukatzea aurreikusten dute Aranzadi Zientzia Elkarteak eta Euskoiker fundazioak

J.B. BERGARA

Kerexetaegia Hegokoa trikuharria berreraikitze lanak datozen asteetan hasiko dituzte Aranzadi Zientzia Elkarteak eta Euskoiker Fundazioak. Izan ere, lankidetzaz hitzarmen berria sinatu dute Bergarako, Elgoibarko eta Soraluzeko udalek, Dolmenen Ibilbidea (Bergara-Elgoibar-Soraluze) kontserbatzeko, balioa emateko eta ikertzen jarraitzeko helburuarekin 2012tik ari dira elkarlanean hiru udalak.

Plan integral horren helburuak honako hauek dira: bertako ondare arkeologikoarekiko interesa eta errespetua sustatuz herritarrek sentsibilizatzea; Karakate-Irukurutzeta-Agerreburu mendilerroaren ondare balioa eta paisaia-balioa agerian jartzea; baliabide turistiko gisa sustatzea; Dolmenen Ibilbideari buruzko ezagutza eguneratzea ondare kulturala hobeto babesteko eta kudeatzeko asmoz; eta gure Historiaurreko monumentu multzo nabarmenetakoa berreskuratzea, bere berreraikitze historikorako.

Bisita gidatuak udazkenean

Trikuharriaren berreraikitzeari dagokionez, lurra prestatzeko lanak hasita daude eta datozen



Kerexetaegia Hegokoa trikuharriaren errepresentazio birtuala. DEBEGESA

asteetan ekingo diete berreraikitze lanei Aranzadi Zientzia Elkarteak, EHUko Arkitektura eta Zaharberritze alorreko teknikariek eta UNED Bergarako kideekin elkarlanean. Lanak irailean hasi eta urrian amaitzea aurreikusten dute.

Dolmenen Ibilbidearen balioa ezagutzera emateko, eta iaz eskainitako bisita gidatuek izan zuten "harrera bikaina" ikusita 192 lagunek parte hartu zuten, doako bisita gidatuak eskainiko dituzte iraila eta azaroa bitartean. Bisita gidatuak domeketan egin-

go dituzte, eta lehen hitzordua irailaren 30ean izango da, euskaraz. Ibilbidea Karakateko aparkalekutik abiatuko da, 10:00etan. Bederatzi kilometroko ibilbide gidatua izango da, Karakaten hasi eta Irukurutzetaraino. Iraupena hiru ordu eta erdikoa da. Bisitari amaiera emateko, gazta, ogia eta sagardoa dastatzeko aukera izango da. Aurrez izena ematea beharrezkoa da. Interesa dutenek izena eman dezakete, 657 79 46 77 telefonora deituta edo info@begi-bistan.com helbidera idatzita.

Udal euskaltegiako ikasturte berrirako izen-ematea, zabalik

Udal Euskaltegiak ireki du matrikulazio-epaia. A1etik C2rako mailak, mintza eta alfabetatze-taldeak, DBHko ikasleendako hizkuntza errefortzuak, autoikaskuntzako ikastaroa... Bergaran erroldatutako ikasleek diru laguntzak jasotzeko aukera izango dute. Izena emateko: 943 76 44 53, euskaltegia@bergara.eus edo euskaltegian bertan.

OHARRAK

Bergara Igeri Elkarteen batzar orokorra

Irailaren 18an izango da, Irizar jauregiko hirugarren solairuan (19:30). Balantze ekonomikoa, entrenatzaileak eta entrenamendu saioak eta urteroko lanak izango dituzte hizpide, besteak beste.

Pentsionistak: oporren osteko lehen agerraldia

Hilaren 17an plazan elkartuko dira (12:00). KPIaren arabera igoera eta 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eskatuko dute.

1942an eta 1948an jaiotako ospakizuna

Bi bazkariak Lasan izango dira, 14:30ean: 1942koena urriaren 6an -izena emateko azken eguna, urriak 1- eta 1948koena irailaren 22an -izena emateko azken eguna, irailak 15-.

"Sendaketa automatikoa da, arnasketaren antzera"

ENEKO LANDABURU OSASUNEAN ADITUA

Osasuna mediku profesionalen esku bakarrik utzi beharrean norberaren erantzukizuna ere badela defendatzen du eta horretarako biderik eraginkorra deskantsua dela dio

Jokin Bereziartua BERGARA

Nola zaindu zure burua medikamentu gabe? galderari erantzuteko hitzaldia egingo du Eneko Landaburuk (Bilbo, 1953) irailaren 18an Seminarixoan (19:00). Beste era bateko sendaketa prozesu batean sinisten du. **Nola ulertzen duzu sendaketa prozesu bat? Badago sendatzerik medikamentuak hartu barik?**

Sendaketa gorputzaren prozesu automatiko eta nahi gabeko bat da, arnasketa, digestioa edo zirkulazioa den moduan. Gaixo kroniko askok ez dakite euren gaitzetako asko hartzen ari diren medikamentuek sortzen dituztela. Egungo medikamentuek antzinako erremedioetan dute jatorria, sinismen oker batetik eratorritakoa: uste izatea sendabidea kanpotik etorriko den pozoiri batek emango duela. Antzina, naturak eskaintzen zituen elementu toxikoak –begetalak, animalak edo mineralak– erabiltzen ziren eta gaur egun, laborategietan sortutako toxikoak dira. Ondoeza bizirik dagoen gorputzaren defentsarako erreakzio bat da, eta hori toxikoen bidez geratzen saiatzea egoera larritzea da. Gaixotasuna zalantzan ari da jartzen gorputzari ematen ari zaren tratua, zeure burua hobeto tratatzeko ari zaizu eskatzen.



Eneko Landaburu. BERGARAKO UDALA

Uste duzu hipermedikalizatuta bizi garela gaur egun?

Nolako zura, halako ezpala. Gizarke kontsumista batek osasungintza kontsumista bat izango du. Nekazaritzako elikagaien industria indartsuak gaixotzen gaituzten elikagaiak eskaintzen dizkigu eta industria farmazeutiko ahalguztiduna tematuta dago bere produktuak saltzen jarraitzeko. Eta, nahasmendua edota beldurraren bidez, lortzen dute. Eta hiritarrok, beldurratik edota erosotasunagatik, kasu egiten diogu.

Nola ikas genezake geure burua behar den moduan zaintzen?

Zeure burua zaintzen ikasteko nahia izatea hasiera ona da. Ivan Illich soziologoa ondorio batera iritsi zen 1975ean: hezkuntza berezkoa dugun ikasteko gogo kentzen ari da eta osasungintzak osatu baino gehiago gaixotu egiten gaitu. Horregatik, ikasketaren eta osasunaren autogestioa proposatzen du: norberaren kabuz osatzen ikastea eta berbera egiten saiatzea gertukoekin.

Ondoezari aurre egiteko, atsedena proposatzen duzu. Zergatik?

Gure gorputzak kontserbaziorako sena dauka, nabarmen. Etengabe dago konpontzeko, garbitzeko, ordenatzeko, orekatzeko eta, finean, bizirik jarraitzeko lanean. Lo egiterakoan, energia aurrezterakoan eta gutxiago saiatzerakoan gorputzak energia gehiago dauka bizitzaren kontserbazio lan horretarako. **Atsedeen-etxea da zure proposamena.** Bai. Atsedeen-etxea edo osasun eskola deitzen diogu. Naturatik gertu dauden etxeak dira; bertan, deskantsatzeko elkartzeko eta barne garbiketarako lekuak dira. Oraingo ekimen pribatuak dira, ea egunen baten erakunde publiko bat animatzen den halako bat zabaltzera.

GORA ETA BEHERA



IÑIGO ZUBELDIA

Auzolana Elosuan, Santutxu txukuntzeko



Santutxuko gunea balioan jartzeko, Elosuan pagoak kimatzen aritu ziren uztaile bukaeran: "Helburua eguzki izpiei bidea egitea izan da", dio auzo alkateak. Bertako ermita ere berrituko dute.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



NIRE USTEZ

MIGUEL LAZPIUR

Ikasturte berria dute aurretik gure umeek

Egunotan, ikasturte berria hasi dute gure umeek; eskoletara doaz ilusio berriekin. Eta, gazteak eskoletara itzultzeaz bat, bereziki sentikorrek zaizkigun gaiak ere azaleratzen dira; adibidez, 2015eko PISA txostenaren ondorioak. Izan ere, Euskadiko emaitzek kezkatuta utzi gintuzten. Emaitza txar hori zuzentzeko lanean ari dira? Ez dut ezer argitaratuta ikusi; seguruenez, lanean egoki jardungo dute. Herritar bezala, informazioaren bat eduki nahiko nuke. Jakin badakit gure hezkuntza sistema beste batzuk baino konplexuagoa dela hainbat modelo daudelako; baina gure aurrekontua eta inbertsioa ere handiagoa da alor horretan. Era berean, guztion lana dela uste dut: , administrazioarena, interes-taldeena, hezitzaileena euren, gurasoena... Agian, berrikuntza pedagogikoaren modaren atzaparretan jausi gara; argi dago sailkapen ona duten zentroak urte asko daramatzatela sistema klasikoagoekin. Ez litzateke soberan egongo eraginkortasun-adierazleak aztertzea eta aldatzea. Hau herri-arazo bat da, gure etorkizuna dago jokoan; guztion eginkizuna da neurri egokiak martxan jartzea; denboran iraungo duten neurriak, alegia.

FORD TRANSIT CAMPER
ABENTURA HASI DA

Azokan 11.000€-rainoko deskontua www.mugarri.eus

MUGARRI
Debagoieneko kontzesionario espezializatua

FORD TRANSIT CAMPER GAMA BERRIA. KONTSUMO MISTOA: 6,1-7,2 L/100 KM. KONTSUMO GIDATZEKO ERAK BALDINTZATZEN DU. CO2 IGORPENAK: 156-188 G/KM; INDARRIEN DAUEN APALUEN ARABERAKO NEURRIAK, BAINA EGOERA ERREALETAN ALDATU EGIN DAITEZKE.

Tel.: 943 790744 • San Andres auzoa - Arrasate

Lana eta futbolaren xarma, "garaipen historikorako"

BKEko senior mailako neskek Realaren bigarren taldea hartu zuten mendean, penaltietan, lehenengoz jokatu zen Bergara Hiria txapelketan; irailaren 29ko asteburuan hasiko dute liga bergararrek: "Lehen helburua mailari eustea da, eta gero, ikusiko da", dio kapitainak

Jokin Bereziartua BERGARA

Nekez ahaztuko dute BKEko futbolariak joan den zapatuan lortu zutena. Denboraldi-aurreko lagunarteko txapelketa bat zen, lehenengoz antolatzen zen emakumezkoen Bergara Hiria, baina 17 urtetik beherako Gipuzkoako jokalaririk onetsuenak batzen dituen Real mendean hartu izana harro egoteko modukoa da. 40 minutuko partidua husna amaitu zuten eta penaltietan finago ibili ziren bergararrak, "historikoa" izan zen garaipena lortzeko.

Reala, "beste galaxia baten"

Hitz hori erabili duelako Manu Diazek, Manolo Ortizekin batera nesken lehen taldea zuzentzen duen bergararrak, egungo testuingurua deskribatzeko: "Senior mailako taldeak hiru urte egingo ditu, oso proiektu berria da. Baina lana hasi da fruituak ematen eta 750. urteurrena aprobe txatu genuen lehenengoz Bergara Hiria nesketan ere antolatzeko. [...] Testuinguru horretan lortu dugu beste galaxia baten dagoen Real Bergarara ekartzeko, eta hori bera sari bat zen guretzat. Finalerdia irabaziz gero Agorrosinen Realaren kontra disfrutatzeko zen helburua; gero, hori guztia borobiltzeko partidua ber-



Senior mailako jokalariek Bergara Hiriako koparekin, martitzeneko entrenamenduan. BKE

dinduta eta penaltietan irabazita, normalean hamar gol sartuko dizkizun talde baten aurrean, itzela da. Historian geratuko da lehen Bergara Hiria BKEk irabazi zuela. Nesketan eta futbolean, Bergaran egin den lorpen handiena dela deritzot". Aurten lehen aldiz senior mailako bi talde atera dituzte eta ibarreko beste herri batzuetan, berriz, talde bat sortzeko oso justu dabilta.

Zubietara hirugarren jardunaldian
Taldekako kapitain Amaia San Torcuatoren arabera, maila be-

rriari eustea—Gipuzkoako senior maila altuena— izango da aurtengo helburua: "Taldea indartsuak egongo dira: Real, Arrate, Añorga, Arizmendi... Mantentzea izango da lehen helburua, eta hortik aurrera ikusiko da...". Lehen jardunaldian deskantsua dutenez, irailaren 29ko asteburuan ekingo dio Bergarak ligari, etxean, Urolaren kontra. Hirugarren jardunaldian Zubietara joango dira: "Oso zaila izango da zerbait ateratzea, baina horretarako egingo dugu lan", esan du kapitainak.

"Atzetik badago harrobia, eta hori ederra da"

AMAIA SAN TORCUATO
SENIOR MAILAKO KAPITAINA

la hamabost urte daramatza San Torcuatoko futbolean, eta, gaitzake batek Bergara Hiria jokatzeko ez utzi arren, "oso garaipen berezia" izan zela dio. **Nola bizi izan zenuten eguna?** Ez sinistekoa izan zen. Realaren bigarren taldea izan arren, bagenekien Gipuzkoako selekzio bat izango zela. 40 minutuan Lagun Onak-i hamar gol sartu zizkiola eta belar naturalean jokatuko genuela jakinda, ez genuen inondik inora espero



BKE

gertatu zena. Ez dut uste gu baino gehiago izan zirenik, berdinketa justua izan zen. **Badago belaunaldi aldaketa?** Bai. Zapatuan kadete batzuek ere jokatu zuten eta ederra da jakitea norbait falta bada atzetik badagoela harrobia. Oso indartsu datoz, gainera. Nire azken urtea izango da jokalaririk moduan, baina kadeteen entrenatzaile ere banaiz, eta hori lan polita dago egiteko. Izan ere, harrizkoa da BKEn gauden jokalaririk kopurua.

"Taldea lanean aritzeak asko ematen du"

OLATZ ALBERDI SENIOR
MAILAKO ATEZAINA

Penaltietako bi gelditzea lortu ostean, protagonistetako bat izan zen Alberdi.

Egun polita zapatukoa, ezta? Oso. Gure ilusio handiena finala Agorrosingo zelaian Realaren aurka jokatzea zen eta hori lortu genuen. Inork ez zuen hala bukatuko zenik espero... 40 minutuan egindako lanaz oso harro gaude; aurten ligan aurkari izango ditugu, eta, 90 minutuko partidua oso ezberdina izango den arren, motibatu egiten gaitu.



BKE

Bi penalti geratu ostean, arlo pertsonalean pozik, ala? Oso gustura. Unean bertan oso urduri nengoen, entrenatzaile ohi batek emandako aholku batzuk gogoan: "Boterea buruan dago", eta "sinistu"; halaxe izan zen. **Gomendatuko zenieke neska gaztetxoak probatzea?** Futbola edo beste edozein kirol probatzea gomendatuko nieke. Norberaren gorputza eta mugak ezagutzeko gain, talde lanean aritzeak asko ematen du.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
Horma-Armairuak
Altzariak neurritan
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

Ondo pasa jaietan!

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Sabaia artelan bihurtu dute Bearteko lagunek

Udalak proposatuta, UNEDeko eta Seminarixoko arkupeetako sabaia apaindu egin dute Bearteko kideek; Mayra Jimenezek egin du diseinua, Seminarixoko logotipoan oinarrituta. Pladurrezko oktogonoak margotu dituzte, eta ondoren sabaira itsatsi

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA Seminarixoko arkupeetan gora begira dagoenak Beartek sortutako azkeneko artelana ikusteko aukera izango du. Izan ere, UNEDeko eta Seminarixoko arkupeetako sabaian mural bat margotu dute. Seminarixoko logoak irudikatzen duen "hazitegi" hori hartu du oinarri Mayra Jimenezek artelana sortzeko.

Erronka handia

"Udalak proposatutako egitasmoa erronka izan zen guretzat; batez ere, margotu beharreko gunea zein zen kontuan hartuta", azaldu du Bearteko presidente Karlos Galarragak. Hainbat aukera aztertu zituztela azaldu du, eta denon artean erabaki zutela margola pladur plaketa margotzea eta ondoren plaka horiek sabaian itsastea.

Mayra Jimenezek egindako proposamena nagusitu zen Bearteko kideen artean. Diseinu hori margotzen ibili dira ekaina eta uztaila bitartean Bearteko 15 bat lagun. Galarragak azaldu du "erronka" moduan hasi zena "ilusio" bilakatu zela ondoren, eta azken emaitzarekin "oso gustura" geratu direla. Luzeran 40 metro eta zabaleran 4 metro dituen pladurrezko artelana izan da emaitza; sabai osoan zehar



Udal ordezkariak eta Bearteko kideak arkupeetan. MAIALEN REGUEIRO

pladurrezko 26 oktogono jarri dituzte. Kolore ezberdinetako oktogonoak dira eta horietan Seminarixoko logotipoak dituen haziak margotu dituzte; erdigunean dagoenak zortzi hazi ditu eta gainontzekoetan, berriz, gutxiago daude.

Logotipoaren "haziak"

"Oinarri moduan logotipoa hartu genuen; logotipoa hazi multzo bat da. Artelana pladur plaketa egitea pentsatu genuen eta horregatik pentsatu genuen pladur plakak berak ere protagonismoa izatea. Hori horrela, pladur plakak oktogonoak dira, zortzi aldekoak, diseinu horrekin lotuta", azaldu du diseinua egin duen Mayra Jimenezek. "Erdialdean du margo gehiena eta ondoren sabai osora zabaltzen da", gaineratu du Jimenezek.

Erronkaren aurrean, zalantzak

"Hasiera batean, zalantza handiak izan genituen erronkaren aurrean", dio Jimenezek, "eta jende gutxi animatu zen lanean parte hartzeri". Lanak errespetua ematen duela dio. Behin lanean hasita, Bearteko 15 bat lagun eta Bearteko ikasle gazteek ere parte hartu dutela azaldu du.

Lankidetzaren sustatzea

"Udaberriaren ikusi genuen UNEDeko obra amaitzeaz zela eta Seminarixoa ere amaituta zegoela eta iruditu zitzaigun aterpeko sabaia aukera asko ematen zituela", azaldu du Elena Lete alkateak. "Udalaren lanildo iraunkorretako bat da eragile ezberdinen lankidetzaren sustatzea", esan du alkateak, eta gaineratu: "Hori horrela, Bearteko proposatu genion zerbait egitea. Oso ondo hartu zuten

gure proposamena eta hemen dugu emaitza".

Zikloa ixteko modua

Alkateak nabarmendu gura izan du lankidetzan eta parte hartzean oinarrituta egindako lana izan dela: "Herriko eragile batekin, eragile handi batekin". Izan ere, ez da izan Seminarixoaren inguruan izan dute lankidetzaren bakarra: "Obrak iraun zuen bitartean izan genituen horrelako beste ekimen batzuk. Bisita asko izan ditugu eta bisita horien bitartez herriak Seminarixoko garapena ezagutu du", azaldu du alkateak. "Gaur egin Seminarixoko barruan dagoen mosaikoa han jartzea herritar baten ideia izan zen. Iruditu zitzaigun oso egokia zela, eta jarri egin genuen", gaineratu du. Seminarixoko pasilloan Lorelei tabernan zegoen mosaikoa jarri zuten. Orduan ere Bearten laguntza izan zuten.

Seminarixoko logoa ere beragar baten lana dela gogora ekarri gura izan du alkateak, eta hori ere irudikatzen dutela estreinatuta berri duten sabaian –Manu Muniategiandikoetxearen lana da logotipoa–: "Hori horrela, uste dugu eraikuntza handi honen zikloa ixteko modu ona dela sabaia apaindu eta herriartarre aurkeztea", gaineratu du.

Hala, artelana aurkeztuta, herriko artistek egindako lanaz gozatzeko aukera izango dute aurrerantzean herritarrek arkupeetan daudenean.

**PLADURREZKO 26
PLAKA JARRI DITUZTE
SABAIAN; OKTOGONO
FORMA DUTE PLAKA
HORIEK**

Eguenean banatuko dituzte 750. urteurren kontzertuko sarrerak

750. urteurren kontzerturako gonbidapenak eguenean, irailaren 20an, banatuko dituzte, Seminarixoan. 18:00etatik 20:00etara bitartean izango da.

Eguraldi iragarpenagatik ekainean atzeratu zuten kontzertu berezia irailaren 28an izango da, 22:30ean, San Martin plazan. Egubakoitzean euria egingo balu, kontzertua zapatura atzeratuko

lukete. Kasu horretan, eguraldi onarekin San Martin plazan izango litzateke kontzertua eta txarrarekin, berriz, Udal Pilotalekuan.

Kontzertu bat baino gehiago izango da emanaldian; izan ere, ikus-entzunezkoa, dantza, musika, abesbatza... izango ditu saioak. Emanaldiaren zuzendari eszenikoa Valen Moñux izan da eta zuzendaritza musikala Alfredo Gonzalez Chirlaqueren esku egon da. Herritar mordoak parte hartuko dute ikuskizunean.

Pintura lehiaketako lanak irailaren 20an jarriko dituzte ikusgai

45. Simon Arrieta pintura lehiaketako lanak hilaren 20tik urriaren 5era bitartean egongo dira ikusgai Bergarako Laboratorio museoan –Rekalde jauregia–. Eguazten eta eguenean 10:00etatik 14:00etara egongo da zabalik; barikuetan eta zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara; eta domeketan 10:00etatik 13:00etara.

MINDFULNESS
meditazio taldea
**AUTOEZAGUTZA
MEDITAZIOA**
Astero asteartean
19:00etatik 20:00etara
Informazio gehiago:
Felix (652 77 15 83)

MINDFULNESS
ikastaroa
**AUTOEZAGUTZA
MEDITAZIOA**
8 astez larunbatetan
Hasiera eguna: urriak 6
10:00etatik 12:30era
Informazio gehiago:
Felix (652 77 15 83)

EUSKARALDIA

"Gure proposamena da denok elkartzea plazan"

Bihar, zapatua, Euskaltzaleen Egunak hartuko du Mendizaleen Plaza eta parte hartzera deitu ditu herritarrak Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak. Ekitaldiak 11:00etan hasiko dira eta bazkarirako txartel batzuk gelditzen dira oraindik

Larraitz Zeberio ELGETA

Euskaraldiak protagonismo berezia izango du biharko Euskaltzaleen Egunean. Elgetako hamaikakoari ikusgarritasun berezia emango zaio, eta eskutik eskura herritarrek sokaren punta batetik bestera eramango duten uztaiak ekimenarekin lotutako mezua eramango du.

"Egun hau inportantea da euskaltzale guztiondako. Zorionez, Elgetan ez daukagu euskararen kontrako militanterik eta egun honetan edozein herritar jasoko dugu eskuak zabalik jai honetara", adierazi du Goibekoko presidente Ainara Iribarrek. "Euskarak behar ditu bestelako ekintza serioak ere, baina baita jaiak. Gure proposamena da denok elkartzea plazan, soka batekin eskuz esku pasatzea euskararen mezua eta aurten, bereziki, Euskaraldiaren motorrak berotzea. Espero ditugu elgetarrak bai sokan, bai bazkarian, bai erromerian... Gozatu euskaraz!".

Euskararen soka Salvador kaletik behera etorriko da aurten, eta 12:30ean izango da. Aurretik puzgarriak, eta Arrasateko gaiteroek girotuko dute goiza. Erromeria Drindots taldeak egingo du, 17:00etan.



Euskararen Sokari hasiera emateko unea, orain bi urte. L.Z.

GAUR ILUNTZEAN BANATUKO DITUZTE SOKA ZATIAK ETA BAZKARIRAKO TXARTELAK, PLAZAN

Bazkarirako txartelak

Oraindik gelditzen dira bazkaltzeko txartelak. Soka zatiekin eta Euskaraldiko materialarekin batera gaur iluntzean egongo

dira eskuragarri plazan. Gogortu txerri saiheskia erreko dutela Kalitatea Fundazioek bazkaltzeko.

'Gure zirkua'-k, sei saio

Aste honetako albistea da bi astean saldu direla iragarrita zeuden bost emanaldietarako sarrerak. Antolatzaileek seigarren funtzio bat egitea erabaki dute eta hilaren 28an izango da, 21:30ean. Sarrerak salga daude Ticketea.com atarian.



KLAUS ARMBRÜSTER

Alemaniatik Elgeta bisitatzera

Alemaniatik etorritako mugimendu sozialetako talde bat Elgetan izan zen martitzenean. Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroa eta Intxortako fronteko lubaki-gunea bisitatu zituzten. Sarri antolatzen dituzte antzerako bisitak eta aurten, Gernikan eta Bilbon ere izan dira. Baskale taldearen eskutik egin dute bisita.

GORA ETA BEHERA



Belarra eta asunak Asentzioko mahaietan



Asentzioko aparkaleku pareko mahaietako batean hamaiketako egiteko asmoa zuen pertsona batek bidali digu argazkia: "Sastrakak, asunak... denetik dago. Ezin da aulkietan eseri!".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo ☎ 688 69 00 07.

OHARRAK

Pilota txapelketa: izen-ematea

Gaur, irailak 20, amaitzen da eskuz binakako lau t'erdiko pilota txapelketan izena emateko epea. Argibideak, udaletxean.

Odol-ateratzeak astelehenean

Sendagile eta erizain taldea udaletxean izango da astelehenean, hilak 17, 18:00etatik 20:00etara.

Nekazarien azoka, hilaren 22an

Mahaia ipintzeko eskaerak udaletxean egin behar dira.

Karim Magoa, Espaloian, hilaren 21ean

Sarrerak salgai daude El Rincon de Lola tabernan eta Maialden.

Kike Amonarriz, martitzenean

Euskaraldia batzordeak gonbidatuta, Kike Amonarriz Elgetan izango da martitzenean. *Euskara bidegurutzean Elgetan* ere izeneko aurkezpena egingo du, 19:30ean, udaletxeko areto nagusian. Gaur egungo egoera ulertzeko ardatz nagusiak emango ditu. Euskaraldia batzordea, bestalde, bezperan elkartuko da, Ozkarbi elkartearen, 20:00etan.



Kike Amonarriz. GOIENA



Eztalako aparkaleku berritua. MAIDER ARREGI

Aldagela berriak egiteko aukera, mahai gainean

Antzuolako Udalak Eztalako aldagelak bota eta berriak egiteko planteamendua egin dio Gipuzkoako Kirol diputatu Denis Itxasori. Batzar emankorra izan dela azaldu dute, eta, gauzatuz gero, 2019 eta 2020 urteen artean egiteko proposamena litzateke

Maidar Arregi ANTZUOLA

Eztala inguruko lur mugimenduen ondorioz, aldagelak pitzatu eta hormak mugitu egin ziren, besteak beste. Horri irtenbidea emateko hainbat neurri hartu zituzten eta une honetan mugimenduak egonkortuta daudela azaldu du Beñardo Kortabarría alkateak: "Neurri ikusgarriak hartu dira mugimenduak geratzeko: pibote handiak sartu, deposituak egin... denbora horretan mugimendua neurtzen ibili gara eta gaur da eguna obrak eragindako mugimendua geratuta dagoena. Magal honetako betiko mugimendua jaitsi egin den arren, oraindik mantentzen dira".

Eta horregatik, zerbait erabakitzeke momentu egokia orain dela dio Udalak; 30 urte baino gehiago dituzten aldagela zahar-kiuei konponbidea ematea, alegia: "Aldagela zaharrak ditugu eta bietako bat guztiz pitzatuta, hondatuta dago; ezin da erabili. Horren ardura Bidegik bereganatuta dauka, eta, dokumenturik

ez dagoen arren, hitzez bere gain hartua du konponketa".

Egoeraz berba egiteko batu zen Udala joan zen egubakoitzean Denis Itxaso Kirol diputatuarekin, eta aldagela berriak egiteko proposamena egin zion. "Dena bota eta aldagela berriak egitea proposatu diogu diputatuari. Kostu garrantzitsua izango luke, 300.000 euro ingurukoa. Eta noski, horri Udalak ezin dio aurre egin gaur egun. Gainera, ez dugu uste Udala soilik egin beharko litzakeela horren kargu. Eta Aldundira, hain zuzen ere, joan ginen hemen gastatu beharreko dirua bestelako proiektu batean sartzeko planteamendua egitera: aldagelak bota eta berriak egiteko eskaera egitera".

HARI ASKO JOSTEKO DAUZKAN PROIEKTUA IZAN ARREN, UDALA HARI HORIEK LOTZEKO PREST DAGO

Harrera ona proposamenak

Alkateak batzar emankorra izan zela argitu du. Orain, baina, adostasuna lortzeko, Bidegirekin -pitzatutako aldagela konpontzeko ardura duen enpresa- eta aseguruarekin ere berba egin behar dela dio: "Azpiegitura Sailaren eta Kirol Sailaren aldetik borondate ona dago. Aurrera eraman beharreko askoren arteko proiektua da, baina". Enpresak, Kirol Federazioak, Diputazioak eta Udalak aurrera eraman beharrekoa, alegia.

"Diputazioaren erantzuna izan zen, dena bideragarria baldin bada, hau da, aseguruarekin ados jartzen bagara eta guk Diputazioarekin gaia ondo lantzen badugu, prest egongo liratekeela 2019 eta 2020 urteen artean aldagela hauek bota eta berriak egiteko", nabarmendu du Antzuolako alkateak.

Kortabarría dio hari asko josteko dauzkan planteamendua dela, baina lotzeko prest dagoela Antzuolako Udala.



Bola-joko txapelketan parte hartu zuten herritarrek Trekutzen. MIREIA BIKUÑA

Erantzun bikaina izan du, bigarrenez, Trekutz egunak

Antolatzaileek oso balorazio positiboa egin dute eta herritarren harrera beroa eskertu gura izan dute

Maidar Arregi ANTZUOLA

Bizikletan zein oinez, bakar batzuk autoz... 250 antzuolar inguru batu zen zapatuan Trekutz Eguna ospatzeko. Bigarrenez ere, erantzun ezin hobea izan du. "Herritarren erantzunak asko betetzen gaitu. 2.000 biztanleko herri baten 250 pertsona ekitaldi baten elkartzea ez da erraza. Egia da eguraldiak asko lagundu duela, baina oso pozik gaude antzuolarren inplikazioarekin", esan du Mikel Lizarazuk, antolatzaileetako batek.

Antzuolatik Trekutzeraino dauden bost kilometro gogorrak

egin ostean, hamaiketako egin, eta bolo txapelketa izan zuten, besteak beste. Ekitaldi guztiak bukatu zirenean, mahaiaren bueltan jarri ziren, bi paella erraldoi jateko. 28 kilo arrozekin egindako paellak jan zituzten.

Errelebo eske

Antolatzaileak pozik agertu arren, datorren urterako erreleboa eskatu zuten, Trekutz eguna antolatzeak izaten duen lan gogorragatik. "Honek duen lana gure kargu izatea... datorren urtean erreleboa badugu, esker-tuko genuke...", adierazi dute.



JON UGARTEBURU

Antzuolarrendako bilera irekia

Antzuolan ere herritar talde bat Euskaraldia lantzen ari da. Uda aurretik abiatutako bilerei jarraipena emateko asmoz, dagoeneko ikasturteko lehen batzarra egin dute zenbait antzuolarrek.

Hurrengo batzarra irailaren 20an, eguena, egingo dute, Olaran etxean, 18:30ean hasita. Herritar orrendako bilera irekia da.

Herriko komun publikoak, urrirako erabilgarri

Bi-hiru asteko epean muntatuko dute komun-kabina Herriko Plaza alboko berdegunean. Modu horretan, herritarren aspaldiko behar bati erantzuna emango zaio. Automatikoki garbitu eta desinfektatzen diren komunak dira, gainera

Maidar Arregi ANTZUOLA

Urtebeteko atzerapenarekin, asteen hasi dira komun publikoak izango dituzten kabina muntatzen. Bi-hiru asteko lanak izango direla eta urriaren hasieran erabilgarri izango direla azaldu du Hirigintza teknikari Valen Moñuxek.

Beharra bazegoela eta herri-tarrek eskatu egiten zutela gaineratu du Beñardo Kortabarriak, Antzuolako alkateak. "Nahiz eta nahi baino beranduago hasi lanekin, zerbitzu hori edukiko du Antzuolako herriak. Beharra bazegoen, eta, modu horretan, lehen ez zegoen zerbitzu bat izango du herriak", argitu du.

Herriko Plazaren ondoan, erdigunean, jartzen ari dira komun-kabina. "Uste dut kokalekuarekin asmatu dugula. Erdigunean dago, toki diskretu batean, eta jende asko ibiltzen den ingurua da, gainera. Hiru ezau-garri horiek betetzen dituela uste dut. Toki askotan daude horrelako komunak eta egiaztatuta dago ez dutela inolako arazorik eragiten", azaldu du.

Komun publikoak jartzearenak baduela bere zentzua nabarmendu gura izan du Beñardo Kortabarriak: "Beste arazo bat ere konpontzea lortu dugu komun publikoak jartzeari esker. Izan



3Dn egindako muntaia: komun-kabina Herriko Plaza ondoan. ANTZUOLAKO UDALA

ERABILERA MISTOA IZANGO DUTE KOMUNEK ETA AUTOGARBIKETA SISTEMA DUTE

ere, lehen, udaletxeko langileen komunak erabiltzen zituzten herritarrek".

Antzuolarrek urritik aurrera erabilgarri edukiko duten zerbitzu horrek 53.500 euroko aurrekontua dauka.

Ezaugarriak

Erabilera mistoa izango du komun-kabinak eta irisgarritasun arau guztiak beteko ditu: ezinduendako egokituta dago. Bi esekitoki izango ditu, ispilu hautsi ezina eta esku lehorgailua. Kanpoan gizonen pixatokia ere edukiko du.

Berez garbitzen den komuna da -autogarbigarria-. Tapa garbitu eta desinfektatzeko sistema ur-presio zurrusta bidezkoa izango da eta tapa lehertzeko ere aire beroko sistema edukiko du komun-kabinak.

Biribilgunetik errazago pasako dira ibilgailu handiak

Sistema berria jarri dute Berezaio pareko biribilgunean. Izan ere, urteetan, behin eta berriro kamioiek espaloia hondatu egiten zuten. Hala, kamioien gurpilak berriro espaloitik kanporatzen dituen babesak jarri dute espaloietan. Horrez gain, errepidea zabaldu egin dute. Udalak jakinarazi du arketa bat jartzea bakarrik falta dela.



Berezaio pareko biribilgunea. M.A.

Pirinioetara egingo du ikasturteko lehen irteera Arrolak

Ikasturte berriarekin batera Arrola Mendizale elkarteak martxan du prestatutako egitaraua. Hala, elkarteak egingo duen lehen irteera Pirinioetara izango da. Camille deritzon ibilbidearen bi etapa egingo dira: lehena, Leskunetik Zurizara; eta bigarrena, Zurizatik Ozarako oihanera. Bata zein bestea zazpi bat orduko ibilbideak dira.

"Inguru paregabeak, eta lasai egitekoak dira", diote Arrolatik.

Irailaren 22tik 23ra bitartean egingo da irteera eta izena emateko aukera irailaren 18an egongo da: Olanaren etxean, 19:00etatik 20:00etara bitartean. Posta elektronikoz ere egin daiteke izenematea: arrolamt@gmail.com.

Ordaindu beharrekoak: federatuek, 70 euro; federatu ez direnek, 75 euro -autobusa, 22ko afaria eta 23ko gosaria barne-. Informazio gehiago hemen duzue: www.lasendadecamille.com.

Liburutegia zabalik, behin-behinekoz, udal gimnasioan

Eguzki auzoko udal gimnasioan kokatu duten liburutegia zabalik dago jada herritarrendako.

Lehenengo bi asteetan goizez egongo da zabalik -09:30etik 13:00etara bitartean-. Irailaren 24tik aurrera, berriz, goizez eta arratsaldez irekiko dute -10:00etatik 12:30era bitartean eta 16:45etik 19:30era-. Antzuolako Udalak herritarrei etxean dituzten li-

buruak liburutegira itzultzeko eskaera egiten die. Hala, liburuak itzultzeko, liburutegia zabalik dagoen orduetan egitea gomendatu du; izan ere, gimnasioan buzoirik ez dago.

Datorren urteko udaberri edo uda ingurura arte egongo da liburutegia gimnasioan kokatuta. "Tarte baterako irtenbidea da eta datorren uda parterako Torresoroara bueltatzea da asmoa. Eta, noski, gimnasioa ere martxan jarri gura dugu", azaldu Udalak.

Material herdoilgaitzezkoa

Altzairu herdoilgaitzezko eserlekuak ditu komun-kabinak. Baita isolatze termikoa eta akustikoa ere.

Atea desblokeatzeko sakagailua ere badarama, segurtasun-sistema guztiak betez, barruan harrapatutako pertsonak erreskatatzeko prestatuta baitago. Erabiltzailea ateratzean, automatikoki garbitzen hasiko da.



Komun-kabinari azken ukituak ematen lantegian. UDALA

Odola emateko aukera izango dute herritarrek

Antzuolako Odol Emaileen Elkarteak dei egin die antzuolarrei datorren eguaztenean, irailaren 19an, Olananera joateko odola ematera, 17:30etik aurrera. Hain zuzen, bi baldintza bete behar dira: 18 urtetik gorakoa izatea eta 50 kilo baino gehiago pisatzea. 20:00 aldera arte egongo da odola emateko aukera eta, bereziki, gazteei dei egin gura diete.

Gallartako Euskal Herriko Meatzarien Museora bisita

Urriaren 3rako, Gallartako Euskal Herriko Meatzarien Museora bisita gidatua antolatu du Landatxoepk. Irteera 08:45ean egingo da Antiguatik eta 09:00etan Sagastiko geltokitik. Gallartako erretiratuen elkartearen egingo dute hamarretakoa. Irailaren 17an eta 18an eman beharko da izena -16:00etik 18:00etara bitartean-, Landatxoepko bulegoan.

'Juntalekuak' aurkeztuz dator Mugikortasun Astea

Ikastetxeek landutako Eskolako Bidea egitasmoarekin bat eginez, ikasleak izango dira datorren asteko ekintzetan parte hartuko dutenetako batzuk. Bestetik, zapatuan hasiko dira hilaren 22ko Birzikleta azokarako materiala jasotzen

Oihana Elortza OÑATI

Mugikortasun Astea egingo da datorren astean Oñatin ere, eta, Eskola Bidea egitasmoarekin zerikusia duela ikusita, Hezkuntza Sailarekin batera antolatuta dituzte asteari hasiera emango dioten ekintzak.

Markak

Aurreko ikasturteetan ikastetxe bakoitzak landu du eskolara oinez joateko bidea, eta, hori kontuan hartuta, ikasleak elkartzen diren tokiak markatuko dituzte astelehenean, *juntalekuak*. "Leku fisiko horiek markatu egingo dira lurrean", azaldu du Mugikortasun zinegotziak, Irati Etxeberriak, aste barruan egindako aurkezpenean. Eguaztenean, berriz, eta beste behin ikasleei begira, ikastetxe inguruak euren hartuko dituzte; hau da, normalean autoendako espazioa izaten dena auto



Nerea Zubia eta Irati Etxeberria, kontzejupean, egitaraua aurkezten. A.T.

barik egongo da, eta gaztetxoek erabiliko dituzte gunehoriek beste ekintza batzuetarako.

Bizikletan ibiltzen direnek kutsadurari buruz egindako

ikerketaren inguruko dokumentala izango da asteko beste ekintza bat. Autorik Gabeko Nazioarteko Egunean, berriz, Birzikleta azoka egingo da.

Eguaztenean da Berdintasun Kontseilua sortzeko bilera

Beste herri batzuetako esperientziak ezagututa, Oñatiko kontseilua lantzen hasiko dira abendura bitartean

O.E. OÑATI

Berdintasun Kontseilua martxan jartzeko lehen pausoa ekainean eman zuten, Eltzian egindako jardunaldietan. Hango parte-hartzea eta egindako proposamen eta ekarpenak jasota gelditu dira, eta orain, bilera irekiak egingo dituzte.

Hiru bilera egingo dituzte hementik eta abendura bitartean. Irailean bat, urriaren beste bat eta azaroan beste bat. Irailekoa eguaztenean izango da, irailak 19, 18:30ean, udaletxean, osoko bilkuren aretoan.

Emakumeak

Oñatiko Udaleko Berdintasun teknikari Amets Beltran de Guevarak azaldu bezala, bilerak irekiak izango dira. "Herriko emakume guztiak daude deituta bilera hauetan parte hartzera. Gura dena da Berdintasun Kontseilua nola antolatu dezakegun zehaztea. Ekaineko jardunaldietan, beste herrietako esperientzia jaso eta ezagutu genuen eta orain, Oñatira begira hasiko gara lanean, hemengo kontseilua sortzen".

Bilera irekia egingo du EH Bilduk diagnostia osatzeko

Harritu prozesua abiatu zuenetik, herriaren diagnostia egiteko ekarpenak jasotzen ibili da EH Bildu. Herritarren zein eragileen aldetik jaso ditu, eta, horiei forma eman, azken ekarpenak jaso eta diagnostia borobiltzeko, bilera irekia egingo du datorren astean. Irailaren 22an, zapatuan, izango da batzarra, 10:00etan, gaztelekuan.

Udako produktuen azoka egingo du gaur eta bihar Txandak

Udako produktuak eskaintza bereziki aterako dituzte Txandak elkarteak komertzioek gaur eta bihar. Denda bakoitzak erabakiko du zein deskontu ezarri produktuei, eta kanpoaldean jarriko ditu bere eskaintzak. Txandaren udako *outlet*-a dendak zabalik dauden orduetan egingo da gaur, goizez eta arratsaldez, eta bihar goizez.

Datorren asteko egitaraua

Irailak 17, astelehena

ESKOLAKO BIDEA - JUNTALEKUEN AURKEZPEN EKITALDIA.

- Tokia: Errementari plaza.
- Ordua: 10:30. LHko 5. mailako ikasleen parte hartzearekin.

Irailak 19, asteazkena

ESKOLAKO BIDEA - HIRIGINTZA TAKTIKO EKIMENAK.

- Tokia: Ikastetxe inguruak.
- Ordua: Egun osoan zehar.

EN EL AIRE DOKUMENTALAREN EMANALDIA ETA EGILEEKIN SOLASALDIA.

- Tokia: Kultur etxeko zinema aretoa.
- Ordua: 18:30

Irailak 22 larunbata

BIRZIKLETA AZOKA

- Tokia: Plaza
 - Ordua: 10:00-13:00
- Bigarren eskuko bizikletak, herritarrengandik herritarrentzako. Ekarki zure bizikleta, patinetea edo osagarria azokan saltzeko! Material biketa (plazan) Irailak 15, zapatua, 11:00-13:00, Irailak 18, asteartea, 11:00-13:00 eta 17:00-19:00 Irailak 20, osteguna, 11:00-13:00 eta 17:00-19:00 Material eta diru itzulketa (Plazan) Irailak 25, asteartea 11:00-13:00 eta 17:00-19:00

Herribusaren tarifa berriak

Datorren astean, Mugikortasun Astearen barruan, doan izango da Herribusa. Astelehenean, Herribusaren kontratu berria, zortzi urtetarako, jarriko da martxan. Kontratu horrek Herribusa eta Arantzazurako zerbitzuak bateratzen ditu.

Irailaren 24tik aurrera, Herribuseko tarifak aldatu egingo dituzte: 5 eta 18 urte bitartekoek 40 zentimo ordaindu beharko dute bidaiako; bonuarekin, 20 zentimo bidaiako bakoitza. 18 urtetik gorakoek tarifa mantendu egingo da; bidaiak bakarros erositzen gero, euro bat ordaindu beharko dute; bonuarekin, bidaiak euro erdian aterako zaie.



NIRE USTEZ

ALAZNE GURIDI

Ikasturtea

Aste honetan ikusi dugun argazkia da. Haurrak eta gazteak beren liburuak eta poltsa handiak hartu eta eskolara bidean! Oporraldia bukatu da, eta berriro ere, lanerako ordua heldu da guztiontzat.

Matematikak, natur zientziak, musikak, hizkuntzak, mundu-ikuskerak eta gainontzeko ikasgaiek erronka handiak ekarriko dizkiete, eta onez gainditu nahi dituenak, jolasak eta denbora-pasak ahaztu beharko dituzte neurri handi batean.

Hezitzaileen erronka ere ez da makala; gurasoena eta irakasleena diot. Izan ere, azken batean, pertsonak egitea da lortu beharrekoa. Eta horretarako bada zaindu beharreko beste gauzarik, tituluek gain. Nola egin beren barrua eta bizitza gizatasunez aberasteko? Zeintzuk dira elkarbizitzaren balioak? Nola lagundu benetan libre izatera irits daitezen? Zein jarrera erakutsi nahi diegu sufrimenduarekiko? Eta zein ibilbide eskaini ziorion argitzeko?...

Beste behin, asmo onik ez da faltako ikasturte berrirako.



Irati Etxeberria, Nerea Zubia eta Mikel Biain, eguazten goizean, Hiri Antolamendurako Plan Orokorren asmoak azaltzen A.T.

Herritarren gustuko herria definitu gura dute

Herriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra lantzeko herritarren iritziak eta ekarpenak jaso gura ditu Udalak, eta parte hartzeko dei egin die herritar guztiei; aurkezpen saio irekia irailaren 24an izango da, Euskaldun Berria gelan

Oihana Elortza OÑATI

Dagoeneko abian da Oñatiko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra idazteko prozesua. Hiruzpalau urte iraungo duela aurreikusten dute, baina, gutxienez, hamar urte barrurako planteamenduak jasoko dira bertan. Izan ere, etorkizuneko Oñati denon artean eraiki nahi du Udalak.

Udalak herritar guztiei egin die dei prozesuan parte hartu eta euren iritzi eta ekarpenak egin dezaten. "Hirigintzaz berba egiten dugun arren, herri ereduaz berba egiten dugu, herriko gure eguneroko ohiturez. Saiakera berezia egingo dugu dinamikak herritar guztiendako moduak izateko", adierazi du Nerea Zubia zinegotziak.

Lanketa

Bost fase izango ditu idazketa prozesuak, eta lehenengoan daude orain: diagnostikoan. Bestelako gaiekin egiten den moduan, herriaren egungo egoeraren

analisi egingo dute. Horretarako, alde batetik, Sabai arkitektoak enpresa kontratatu dute eta horiek hainbat diziplinako adituak dituzte. "Arkitektoak dira, bai, baina baita aholkulari juridikoak, eta ingurumenean, genero ikuspegian eta parte hartze prozesuetan adituak. Egitasmoaren hasierako lanketa handia izan da, lantalde honek hori guztia jasotzen duelako", azaldu du hirigintza zinegotziak, Irati Etxeberriak.

Bestetik, 25 herritarrek osatutako Aholku Kontseilua sortu zuten legealdi hasieran. Izan ere, legez edozein hirigintza aldaketa arau dagoenean, Aholku Kontseilua batu egin behar da bere txostena emateko. Eta,

**AHOLKU KONTSEILUA
25 HERRITARREK
OSATZEN DUTE ETA
TOKIA DU PROZESU
ADMINISTRATIBOAN**

hain justu ere, Aholku Kontseilu horretara herritarrekin egingo dituzten parte-hartze ekimenetatik jasotako proposamenak iritsiko dira. "Lehenengo Aholku Kontseilua nahiko murrizta zen eta hasieratik zabaldu egin dugu; herriko ikuspegi ezberdinak jasotzen dituen taldea egin dugu; ingurumen aldetik, enpresa aldetik, genero aldetik... Prozesu administratiboan bere tokia du kontseilu honek", argitu du Etxeberriak.

Saio irekia

Udal ordezkariak azpimarratu dute hasieratik jaso gura dituztela herritarren iritziak, eta parte hartzera animatu dituzte. Hilaren 24an, 18:30ean, Euskaldun Berria gelan, prozesua aurkeztu eta ekarpenak jasotzeko aurrez aurreko saio irekia egingo da. Urriaren 17an eta 18an, karpa irekia jarriko dute Foruen plazan parte hartzeko. Udaleko webgunean ere jarri dute informazioa.

Hamalau dantza talde batuko dira domekako Haurren Egunean

Goizean kalez kale ibiliko dira dantzan; arratsaldeko alarderako, oholtza plazaren beste aldean egongo da

O.E. OÑATI

Domekan egingo da aurtengo Haurren Eguna eta Oñatz dantza taldeak antolatuta du dagoeneko eguna. Hamalau dantza talde elkartzeko dira aurtengo Oñatin; dantzariak eta arduradunak zenbatuz gero, 800 lagun inguru.

Inplikazioa

Euskal Herrian egiten diren haurren egunen artean dantzari gehien elkartzeko dituenetakoa da Oñatikoa. Talde asko elkartzeko dira; bailarakoak eta kanpokoak. Saiatzen dira, gainera, urtero herri gonbidatu berri bat ekartzeko. Eta aurtengoa Debako Gure Kai dantza taldea izango da. Lehen aldiz etorriko dira horiek Oñatira. Eta, talde horrez gain, domekan Oñatin izango diren dantza taldeak dira: Gernikako Elai-Alai, Antzuolako Oinarin, Arrasateko Lore Gazteak eta

Txikitxu, Aretxabaletako Leizarra, Legazpiko Korosti, Lizarrako Ibai Ega, Tolosako Udaberri, Sestaoko Salleko, Soroluzeko Urrats, Zumarragako Irrintzi, Zarauzko Jalgi eta etxeko Oñatz.

Aurten ere, kanpotik datozen ume dantzari guztiek Oñatiko etxeetan bazkalduko dute. Oñatz dantza taldeko umeen gurasoek inplikazio handia izaten dute Haurren Egunean eta horri esker izaten da hori posible. Arduradunek berriz, herriko elkarte gastronomikoetan bazkalduko dute.

Domekan 10:15ean egingo zaie harrera kanpotik etorriko diren dantzariari, Otadui zuhaitzian, eta goizean zehar kalez kale ibiliko dira dantzan. Mara Vazquez izango da alkate txikia eta ongietorria egingo die guztiei, 11:45ean, plazan. Arratsaldeko alardea 17:15ean izango da.

ZARATEI AGUR ESAN ETA...
har ezazu atseden

KÖMMERLING sistema daturu berrak erabiltzeko:

- Inbentarioa iraultzea
- Energia aurreztea
- Er-estandartuak
- Muntatze-lan txikiak
- Inbentarioa aldatzea
- Material berriak erabiltzea
- 20 urteko garrantzia
- Aurreko sistema zahala

MAKOR DENDA
Banatzaile ofiziala

Zerbitzua 15. beheko • ARRASATE
943 10 62 35 / 673 19 81 43
makordenda@gmail.com
www.makordenda.com

KÖMMERLING
Sistema de ventanas



Eguaztenean egin zuten batzar berezia, Aloña Mendiren bulegoetan. ENKO AZURMENDI

Hamaikako futbolarekin jarraitzea erabaki dute

Beteranuak HFTk batzar berezia egin zuen eguaztenean, denboraldi berria zehazteko. Hamaikako futbolarekin jarraitu edo zazpiko futbolera pasatzea zen gakoa; berdinketa izan zen bozketan, eta orain artekoarekin jarraitzea lehenetsi dute

Arantzazu Ezkibel Galdos OÑATI

Hamaikako futbolarekin jarraitu beharrean zazpiko futbolera pasatzea izan da hainbat talderen gogoaz azken denboraldietan. Hala, aurten, Beteranuak HFTk gaia esku artean hartu eta denboraldi berriaren norabidea zehazteko bozketan egitea erabaki du.

Eguaztenean egin zuten batzarra. Bozketaren emaitza izan zen: hamaikako futbolarekin jarraitzearen alde bozkatu zuten Txuskos, Albok, Auschwitz, Sasquatch, Shatoken eta Tute taldeek; zazpikoaren alde egin zuten Dollyk, Zalapartak, Etxaixatek, Hangolak, Harripek eta Kalañak. Kili-kolok zuri bozkatu zuen -beteranoen txapelketa utziko dute azken horiek-. "Berdinketa honen aurrean, erabaki dugu gaur egun hamaikako futbola egiten denez, denboraldi berrian ere saiatzea hamaikako futbolarekin", azaldu du veteranoen batzordeko kide Iker Jimenezek.

Astebeteko epea

Hamaikako futbolaren alde egin duten sei taldeez gain, beste bi taldek ere esan dute izena emango dutela txapelketan. Gainontzeko taldeei astebeteko epea emango zaie baiezkoa edo ezezkoa emateko: "Euren artean elkartu edo jokalar berriak bilatzeko epea izango dute", dio Jimenezek. Hala, datorren astean jakingo dute zenbat taldek parte hartuko duten veteranoen txapelketan.

Talde batzuek diote zaila egiten zaiela "hainbeste jokalar" bilatzea taldea osatzeko; beste batzuek, "ordutegiak txarrak" dira. "Kontua da Ibarren ordutegi zehatz batzuk genituela gureta; Azkoagainen, berriz,

DATORREN ASTEAN JAKINGO DUTE ZENBAT TALDEREKIN HASIKO DUTEN DENBORALDIA

Aloña Mendiko taldeen partiduen menpe gaude, eta azken ordura arte ez dugu jakiten gure ordutegia zein izango den", azaldu du Jimenezek.

Aldekoak eta kontrakoak

Txuskos taldeak, adibidez, 11koaren alde bozkatu du: "Momentu hauetan baditugu baliabideak Azkoagainen jokatzeko; jende asko dugu taldean, eta, 7koa eginez gero, hainbat jokalar ezin izango lukete jokatu".

Dolly, aldiz, 7koaren aldekoa da: "Jende faltan gaude; horregatik, gurago dugu 7ko futbola egitea Larrañan. Gainera, uste dugu beste talde batzuei ere zail egiten zaiela 11koa egiteko taldea osatzea eta hori dela arrazoi bat gero eta talde gutxiago egotearena txapelketan. 7koa egingo balitz talde gehiagok parte hartuko lukete".

Bestalde, San Migel jaietan egiten den 7ko futbol txapelketa aurten ez dutela egingo gaineratu du Jimenezek.

Zilarrezko domina lepoan duela itzuli da Erostarbe Soriatik

Espainiako txapelketa jokatu zuten joan zen aste bukaeran; oñatiarrak bigarren postua lortu zuten

A.E. OÑATI

Denboraldia ezin hobeto bukatu du Garazi Erostarbe ziklistak, Espainiako Txapelketan podiuma eginda, hain justu. Sorian jokatu zuten joan zen aste bukaeran txapelketa; Erostarbek bigarren postua eskuratu zuen.

"Gure asmoen artean ez zegoen horrelakorik egitea. Taldeko liderrei laguntzea zen nire lana, baina ihesaldian sartzeko aukera izan nuen, eta domina eskuratu", azaldu du Erostarbek.



Erostarbe dominarekin. TOÑO DE LA PARRA

Ihesaldi koordinatua

77 kilometroko lasterketa jokatu zuten; bigarren kilometroan ihes egin zuten Maria Banllesek, Garazi Erostarbek eta Ana Monfortek. "Ondo koordinatuta" lan egin zuten hirurek. "Atzetik nituen taldekideek ere lan ona egin zuten", dio ziklistak.

Azken kilometroetan ihesaldi saiakera egin zuen Erostarbek, baina ihes egitea lortu zuena Banlles izan zen. Bigarren sartu zen helmugan oñatiarra, 20 segundora. 23 urtez azpikoan mailan jardungo du hurrengo denboraldian Erostarbek.

San Migel arku tiroketa saria

Zozopase inguruan izango da txapelketa, Arendui (Arantzazu) baserriatik gertu. 45 lagunek eman dute izena; gehienak euskal herritarak, baina baita Kantabriakoak ere. 09:30ean hasiko dute txapelketa eta hiru ordu inguru iraungo du. Aurtengoa X. San Migel saria izango da. Txantxiku Arkulariek antolatzen dute txapelketa.



IMANOL SORIANO

San Migeletako pilota partiduak jokatu dituzte bihar, Zubikoan

San Migel pilota txapelketako final-laurdenak jokatu dituzte bihar, 17:00etan. Promes mailan, Osa eta Odriozola Uriberen eta Azpitarteren aurka lehiatuko dira; kadete mailan, Peso eta Emaldi, Igoaren eta Arandiaren aurka; eta gazteen mailan, Orbegozo eta Erkiaga Sein eta Santamaria bikotearen aurka lehiatuko dira.

Final-laurdenetan sartu da herriko pilota txapelketa

Gaur, egubakoitza, 17:00etan hasita, partiduak jokatu dituzte plazako pilotalekuan: Buro eta Txoskin, Anduagaren eta Arabolazaren aurka; Murgiondo eta Ibarzabal, Korkostegiren eta Markoren aurka; Larrea eta Urzelai, Axiren eta Koldoren aurka; eta Ander eta Beñat, Gartziairen eta Larrearen aurka. Neskek datorren astean jokatu dute.



Egoitz Olalde, Iker Martinez de Zuazo, Joxeba Aranburu eta Iñigo Biain Bull, Lenao taldeko kideak. LENA0

Bigarren lana kaleratuta, hura aurkezteko gogoz

Lenao taldeak bigarren diskoa kaleratu berri du, 'Iparraldeko argiak' izenekoa; bihar, zapatua, kontzertua eskainiko dute Arrasaten, Kulturateko areto nagusian, 20:00etan –sarrera dohainik da–; Iñigo Biain 'Bull'-ek bete du Ander Etxanizek utzitako lekua

Eneko Azurmendi OÑATI

2016an argitaratu zuen taldeak lehen diskoa, *Lenao* izenekoa, eta bi urteren ostean heldu da bigarrena: *Iparraldeko Argiak*.

Zortzi abestiz osatutako lana da kaleratu berri dutena, eta 80ko hamarkadako musika amerikarra nagusitzen da, nahiz eta euren ukitu pertsonala nabaria den abestietan.

Aitzakia hartu dute single moduan, diskoko zortzigarren eta azken abestia. "Siplea da, sarkorra, eta, orain arte egin izan dugunarekin alderatuta, desberdinagoa. Bat aukeratu behar genuen, eta horren alde egin dugu, baina abesti guztiak gustatzen zaizkigu", azaldu du Iker Martinez de Zuazok, taldeko abeslari eta gitarra-joleak.

Diskoaz gain, taldekide bat ere berria dute orain. Izan ere, Iñigo Biain *Bull*-ek bete du Ander Etxanizek utzitako lekua. "Abesti guztiak berriak dira niretzako. Ez naiz sekula musika estilo honetan aritu. Apur bat kostatu zait moldatzea, baina oso pozik geratu naiz emaitzarekin. Plazer bat izan da taldekide hauek grabatzen ikus-

tea. Maila handiko musikariak dira, eta orain arte egin duten ibilbideak erakusten du hori. Esperientzia izugarria izan da", adierazi du.

Etxanizen faltan, lan berri honetan Martinez de Zuazok abesten ditu kanta guztiak, eta *Bull*-ek baxua jotzen du. Beste gitarra-jolea Joxeba Aranburu da, lehen moduan.

Erantzun ona

Denbora laburra da diskoa kaleratu zutenetik, baina, Egoitz Olalde bateria-joleak azaldu duenez, "erantzun ona" izaten ari da. "Orain arte jaso dugun feedbacka ona izan da, badirudi jendeari gustatu zaiola. Ea emaitza on hori zuzenekoetan islatzea lortzen dugun aurrerantzean".

Dagoeneko bi kontzertu eskaini dituzte, Tolosako Bonberenean eta Donostian, Hor Konpon taldearen azken kontzertuan.

Hala ere, asteburu honetan hasiko dute diskoaren aurkezpen bira. Bihar, zapatua, Arrasaten eskainiko du kontzertua lauokoteak, Kulturate Akustikoak ekimenaren baitan. "Lekua ona da, eta guk bakarrik joko dugunez, ikus-entzuleei errepertorio osoa eskaintzeko aukera izango dugu. Gogotsu gaude", adierazi du *Bull*-ek. Beste bi talde ere ariko dira asteburuan –ikus 41.orria–.

Bigarren kontzertua Angelun eskainiko dute, domekan, Seaskak antolatutako Gliss egitarauaren baitan, 17:00etan.

Kultur Hamabostaldia, martitzenean hasita

Euskaltzaindiaren sustatzaile Resurrecion Maria Azkueren omenezko jardunaldiak izango dira

E.A. OÑATI

Euskaltzaindia sortu zela 100 urte bete direla eta, haren sustatzaile nagusi izan zen Resurrecion Maria Azkueren omenezko jardunaldiak antolatu ditu Olaitturri Kultur Elkarteak. Hiru hitzaldi eta antzerki bat antolatu dituzte. Hilaren 18an, *Euskal Ikasketen Lehen Kongresua. Oñati-1918* hitzaldia eskainiko du Inazio Irizarrek; hilaren 20an, Jurgi Kintanak *Azkue, lehen euskaltzainburua: euskara menditik hirira jaisteko ametsa, 1864-1936* hitzaldia, eta hilaren 25ean, Antton Ugartek *Gerraosteko Euskaltzaindiaren historia kulturala: 1936-1954*. Hitzaldi guztiak kultura etxean izango dira, 19:00etan.


Hilaren 27an, R.M. Azkue eta *Euskaltzaindia* antzerkiaren aurre-estreinaldia eskainiko dute Santa Anan, 19:00etan. Hilaren 29an estreinatuko dute, San Migel parrokiaren, 19:00etan.

Drink coffee. Learn English. Find Community.

Meraki Schools, Oñatin sorturiko ingeles eskola eta kafetegi berria da. Gure irakaskuntzaren oinarria ikaslea izanik, ikasteko prozesua modu aktiboan izatea ulertzen dugu, hau da, klaseen bitartez eta web aplikazio bitartez horrela metodologia ezberdinak erabiliz, emaitza hobeto lortzeko.

Informazio gehiago behar izan ez gero edo izena emateko, www.merakischools.com sartu!





14. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

Irailaren 16ra arte bidal
ditzakezu zure argazkiak!



URA | Argazkia: Itsaso Villar



URBION MENDIAK (SORIA) | Argazkia: Arantza Garcia Bolinaga



ARGIAK ETA ITZALAK (DONOSTIA) | Argazkia: Mertxe Cantero



AITZULON | Argazkia: Maria Zendegi Zelaia



ALOÑA MENDIRA BIDEAN | Argazkia: Ainhoa Ayastuy Furundarena



PEDIKURA ETA MASKARA SAIOA | Argazkia: Unai Etxebeste



OLYMPIC NATIONAL PARK, HURRICAN RIDGE | Argazkia: Josu Zumalde Barrena



ZERU HORIA (ARAMAIO) | Argazkia: Jose Luis Madina



FORMENTERAN | Argazkia: Julen Muruamendiaraz Arana

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
JATETXEA

ARRASATE BIDAIK



FISTERRAKO ITSASARGIA GAUEZ | Argazkia: Mikel Gonzalez




ZIBURUAN | Argazkia: Jon Otxandategi Marrodan



URAREN ZURRUNBILOA (MUTRIKU) | Argazkia: Edurne Agiriano



UDAN DESKANTSATUZ | Argazkia: Ibon Eraña



ATXERITO IBOIA | Argazkia: Jose Arana



GERLARIAREN ATSEDENA | Argazkia: Itziar Gardoki Legorburu



PORTO | Argazkia: Ane Aizpeurrutia Idigoras

Sariak

- **LEHEN SARIA:** Redmi 5 plus smartphoena, **Eroski Arrasateri esker.**
- **BIGARREN SARIA:** **Gure Ametsa** jatetxean bi lagunendako afaria edo bazkaria.
- **PUBLIKOAREN SARIA:** Zumaiako Zelai Talasoterapian bi pertsonarendako zirkuitu termala eta Zelai menua, **Arrasate bidaiei esker.**

Lehen bi sariak aukeratzeko epaimahaia Goiena Komunikazio Taldeko kideek osatuko dute eta argazkiaren kalitatea eta originaltasuna hartuko dituzte kontuan.

Hirugarrena publikoaren saria izango da eta bozketa bidez hautatuko da. Irailaren 24tik 30era zabalduko da Publikoaren Saria aukeratzeko epea.

Hiru argazki irabazleak zeintzuk diren urriaren 5ean jakinaraziko da, *Goiena* aldizkarian.



Egin klik eta bidali **poltsikoko telefonoarekin, argazki kamerarekin edo tabletarekin ateratako udako argazkiak!**

Posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07) bidal ditzakezu argazkiak!



Argazki guztiak ikusi hemen: <https://goiena.eus/bereziak/14-udako-argazkien-lehiaketa>

Ibilbide berriarekin dator Aramaioko rallysprinta

AUTOMOBILISMOA Biharko lasterketak erabakiko du Euskadiko Rallysprint Txapelketa. Azpiko Racing taldeko lagunek ibilbidea aldatzea erabaki dute, edo, zuzen esanda, orain artekoa izango da, baina kontrako norabidean (15:00)

Xabier Urzelai ARAMAIO

Aramaioko rallysprintaren 14. edizioa nobedade handi batekin dator, ibilbide berria izango du: "Antolatzaileok aldaketak egin gura genituen, jendea rallysprinteko ibilbidera ohituta zegoelako eta beti gauza bera eginez gero jendea aspertu ere egiten delako. Eta, orain artekoa ikusita, jendea pozik dago aldaketak honekin, ikusiko dugu lasterketak zer ematen duen", dio antolaketa taldeko kide Inhar Amenabarrek.

Lasterketaren ezaugarriari dagokionez, "lehenengo tramuak lau kilometroko igoera izango du, Ibarrik Etxaguengo bidegurutzeraino izango dena, eta ondoren, Arriola auzorainoko jaitsiera delikatua da, asfalto txarrekoa eta bihurtu arriskutsuena bat duena", dio Inhar Amenabarrek: "Ez da jaisterako orduan pilotuek izango duten bihurtu txar bakarra. Zapatuan ondo jaitea ezinbestekoa izango da aurrealdean ibiltzeko".

Txapelketa dago jokoan

Euskadiko Rallysprint Txapelketako seigarren eta azken proba izango da bihar Aramaion jokatuko dutena, eta 52 pilotu izango dira, euren kopilotuekin, irteera puntuan. Eta oraindik dena dago erabakitzeaz. Egia da Enrique Barrenetxeak eta Anartz Onandiak (Mitsubishi Evo IX) abantaila daukatela (128 puntu); izan ere, lehia estu horretan, azken lasterketan, Karrantzan, Aingeru Castrok eta Alaitz Urkiola antzuolarrak (BMW M3) erretiratu egin behar izan zuten (107 puntu) eta horri esker lehenengo sailkatuek arnasa hartu ahal izan zuten.

Horri esker, biharko lasterketari begira Barrenetxeak eta Onandiak 21 puntuko alde daukate -32 puntu egongo dira jokoan- eta ikusteko dago arriskatzera etorri eta lasterketa



Mitsubishi autoa, iaz, lasterketaren lehenengo metroetan. GOIENA

MAIDER USANDIZAGA OÑATIARRAK DEBUTA EGINGO DU; LEIRE ITURBE IZANGO DU ONDOAN

irabazteko asmoz egongo diren, edo nahiago izango duten aurrealdean ibili eta txapelketa irabazteko behar dituzten puntuekin konformatu.

Kontuz, baina, hirugarren sailkatuekin, Mattin Villaresek eta Jon Zozayak (Clio Maxi) 104 puntu dituzte eta.

Debuta Mainer Usandizagak

Debagoieneko pilotuei dagokionez, orain arte kopilotu lanetan ibili den Mainer Usandizaga oñatiarrak debuta egingo du pilotu moduan, eta A+Gas taldeko ordezkariak Leire Iturbe izango du ondoan (Ford Focus). Emakumezko pilotu bakarra izango da irteera puntuan, gaintzeko emakumezkoek kopilotu jardungo dute eta; hamaizpi izango dira, guztira, pilotuei ibilbideko xehetasunak adierazten.

Distantzia bera, baina zerikusirik ez

Biharko lasterketa kontrako norabidean egingo dute irteera puntuan batuko diren 52 pilotuek, eta, orain artekoarekin alderatuta, lasterketa erabat aldatuko da. Txanda bakoitzean egin beharreko distantzia ez da aldatuko -7,8 kilometro- eta hiru txandak batuta 23 kilometro izango ditu lasterketak. Baina, norabidez aldatuta, lasterketaren ezaugarriak erabat aldatuko dira.

Hala, Aramaioko rallysprintean zeuden orain arteko puntu beroek ez dute oraingoan zerikusirik izango: Uribarri eta Arexola arteko saltoa, Arriolako baserrien arteko chicane estua, Gantzaga auzorako paella... Eta beste puntu bero batzuk sortuko dira.



Koldo Lamikiz. GOIENA

ZIKLISMOA Koldo Lamikiz 8.a izan da Munduko Txapelketan

Irailaren 2an jokatu zuten Italiako Varese herrian munduko beterano mailako txapelketa, eta Koldo Lamikiz bergararra zortzigarren postuan helmugaratu zen bere kategorian -65 urtetik gorakoak-. Bergarakoak iraupen erdiko lasterketan hartu zuen esku, Lonbardiako klasikoa egiten duten paraje berean. Dena ondo bidean, datorren urtean Polonian izango da.



lazo martxako irteera. GOIENA

MENDIKO BIZIKLETA Etzi egingo dute martxa Aretxabaletan

Domekan egingo dute mendiko bizikleta martxa UDAko lagunek -09:00etan, Aretxabaletako plazan-. Ibilbide luzeak 45 kilometro izango ditu eta motzak 27. Horrekin batera, familiendako irteera ere egingo dute, Urkulura -10 kilometro-. Egunean bertan izena emateko aukera egongo da, 08:30ean hasita -izenematea 10 euro da denendako -14 urtetik beherakoak, doan-.

ARAMAIOXOKO XVII. MR 1010 RALLYSPRINT'a

irailak 15 2018

Rango 1go MANGA, 15:00etan • BIDE MOZKETA, 14:00etan • 3 MANGA

JUBAR	EKI TABERNA	Antena
Udalaitz, S.L.	AR	CE Cristalería Errasti, S.L.
gertu	3babe	Luzarrri, s.l.
ASISTENCIA CARTER	ANAI TABERNA	
IBARRA GINDEGE	BIRIBIL	VAGSPEED
		BOLINTXO GIBATEGI



IDK Gipuzkoa taldeko jokalariek Labegarietan izango dira gaur. IDK GIPUZKOA

Goi mailako taldeak Bergara Hiria torneoan

SASKIBALOA IDK Gipuzkoa eta Logroñoeko Promete taldeak izango dira gaur, egubakoitza, aurrez aurre. Lehenago, Debagoieneko jokalariek beteranoz osatutako taldeak Bergarako ordezkarien kontra neurtuko dituzte indarrak, Labegarietan

Xabier Urzelai BERGARA

Bergara Hiria torneoak elite mailako saskibaloia jokalariek ekarriko ditu gaur Labegarietako kantxara -19:00; sarrera doan da-. Hala, emakumezkoen saskibaloian mailarik gorenean dagoen IDK saskibaloia taldeak bost partidua izango ditu denboraldi-aurrean, eta gaurkoa izango da horietako bat. Logroñoeko Promete taldearen kontra: "Iaz Logroñoeko taldea lehenengo mailan izan zen, baina kategoria galdu zuten eta bigarren mailara jaitsi dira", adierazi du saskibaloia saileko presidente Marian Melladok.

Azpimarratu du, gainera, Bergarako jokalariek gazteei begira garrantzitsua dela halako erreferenteak gurerak ekartzea: "Klubeko neskek eraman izan ditugu Donostiara IDK Gipuzkoa taldeko partidua ikustera, eta txundituta geratzen dira saskibaloian duten maila ikusita. Azken batean, maila goreneko jokalariek dira. Eta orainoan,

gu kanpora joan beharrean, taldea etorriko da gurera".

Izan ere, elite mailako gizonen taldeak ekarri izan dituzte Labegarietara, GBC eta Baskonia, adibidez: "Garrantzitsua da emakumezkoekin ere gauza bera egitea. Azken batean, egubakoitzeko guretaldeak egun bat izango da, baina, noski, gizonen taldeak guztiak ere gonbidatuta daude [Barre]".

Klubekoek ere lagunartekoa

Bada, saskibaloia-zaleek bertatik bertara ikusi ahal izango dute Azu Muguruzaren taldea, ikasturte berriko lehenengo lagunartekoan -urriaren 13an hasiko dute liga, Embutidos Pajariel Bembibre taldearen kontra-.

"KLUBEKO GAZTEEK ERREFERENTEAK IZANGO DITUZTE ORAIN SENIOR MAILAKO TALDEAN"

Partidu horren aurretik, baina, eta etxeko jokalariek protagonismoa emateko helburuarekin, beste lagunarteko bat antolatu dute Bergara Hiria torneo borobiltzeko. Hala, Bergarako senior mailako taldekoek Debagoieneko beteranoz osatutako taldearen kontra neurtuko dituzte indarrak; 16:45ean.

Neskek, kategoria guztietan

Ikasturtera begira, berriz, Bergarako saskibaloia sailekoak pozik daude emakumezkoen taldeekin egin duten aurrerapausoekin: "Aspaldi genbiltzan helburu honen atzetik; hau da, kategoria guztietan emakumezkoen taldeak izan nahi genituen, baina orain arte senior mailan ez dugu halakorik lortu. Eta aurretik bai, infantil, kadete, gazte eta senior mailatan taldeak izango ditugu. Gainera, seniorrak izatea garrantzitsua da, klubeko gazteok erreferenteak behar izaten dituzte-eta talde nagusian".

Mondrak Zarautz hartuko du zapatu eguerdian Mojategin

FUTBOLA Hernanin jokatu du Bergarak eta Lesakan UDAk; Erregional Preferentean liga hasiko dute

X.U. ARRASATE

Ohorezko Erregional Mailako taldeen artean Mondra da asteburuan etxean jokatu duen bakarra. Joan den astean Bergaren kontra puntu bat eskuratu eta gero, Jorge Davilaren mutilek Zarautz hartuko dute zapatuan (12:00, Mojategi).

Bergarak eta UDAk, berriz, kanpoan jokatu dute. Hondarribiaren zelaian 0-2 irabazi zuen Hernaniren kontra jokatu du Bergarak (zapata, 16:00) eta Aretxabaleta, berriz, Añorgaren kontra etxean jasotako 0-3koa ahazteko asmoz joango da Lesakara (zapata, 16:00). Hain zuzen, biharko kontrario Beti Gazteri Tolosak bost gol sartu zituzten joan den astean.

Erregional Preferentean, lanera Kategoria bat beheragokoek asteburuan hasiko dute liga, eta



Mondrako Gorka baloiaekin. GOIENA

hor ere saltsa polita izango da aurretik, Antzuola, Aloña Mendi, Aretxabaleta eta Mondra egongo dira-eta lehenengo. Asteburuan Antzuolak (zapata, 16:30), Aloña Mendik (domeka, 16:30) eta Aretxabaletak (zapata, 18:00) jokatu dute etxean.

ESKOLA KIROLA LEKeko ekintzetan izena eman daiteke jada

Leintz Eskola Kiroleko ordezkariak 2018/2019 ikasturtean prestatzen dabiltza, eta dagoeneko zabalik dute bertako kirol ekintzetan esku hartzeko izenematea. Gainera, webgunea berritu berri egin dute -www.leintzeskolakirola.eus- eta bertan aurkituko duzue ekintzen gaineko informazio osoa. Iaz, 1.100 ikasle izan zituzten LEKen.

MENDIA Oñatiko 4. Mendi Martxa egingo dute bihar, zapata

Bihar, zapata, egingo dute Oñatiko 4. Mendi Martxa, eta dagoeneko 500 lagunek eman dute izena. Eta martxa hasi aurretik (07:30) ere egongo da aukera izena emateko, plazan bertan. Urtero moduan, antolatzaileek bi ibilbide aurreikusi dituzte: luzeak 29 kilometro izango ditu, eta motzak, berriz, 21,5 kilometro, hain zuzen.

ARETO FUTBOLA San Migel txapelketa zapatuan Oñatin

Gazte mailako 17. San Migel areto futbol txapelketa egingo dute zapatuan Oñatiko Zubikoako kantxan. Aloña Mendiko ordezkariak hiruko torneo antolatu dute, eta etxeko taldeak Mondrate eta Gael KE kirol taldeen kontra neurtuko ditu indarrak. 10:00etan izango da lehenengo partidua eta 12:00etan, berriz, azkena.

ATLETISMOA Jonathan Perezek zilarra Munduko Txapelketan

Malagan jokatu dute beterran mailako munduko atletismo txapelketa, eta master 35 kategorian Jonathan Perezek zilarrezko domina jantzi du. Podiumeko bigarren postua eman dion 4,65eko saltoa egin du Arrasatekoak; Stephane Diaz frantziarrak irabazi du (4,75), eta hirugarrena Pascal Couturier frantziarra izan da (4,55).



Gure zirkuak taldeko kideak ikuskizunaren bukaeran. IÑAKI LOPETEGI (AGERREMEDIA.COM)



Iker Galartza eta Joseba Usabiaga dira pailazoak. IÑAKI LOPETEGI (AGERREMEDIA.COM)

'Gure zirkua', Debagoienera

Eskoriatzako saioak gaur, egubakoitza, hasi eta domeka bitartean izango dira eta Elgetakoak, irailaren 28tik 30era. Sarrera ia guztiak agortuta dauden arren, leihatilan gutxi batzuk izango dira, eta Ticketea.com-en daude Elgetako emanaldi berrirakoak

Aitziber Aranburuzabala **ESKORIATZA** *Sarrerak agortuta ez da sarritan euskal ikuskizunetan irakurtzen den oharra, baina, aurrez izan diren herrietan moduan, Debagoienera ere aurre-salmentako txartel guztiak agortu dituzte Iker Galartzak eta haren lantaldeak eskaintzen duten Gure zirkua ikuskizunean.*

Gutxi dauden arren, badago oraindik sarrerak erosteko aukera: Eskoriatzako leihatila 11:00etan zabalduko dute gaur.

Hiru geltoki geratzen zaizkie Iaz urrian probatxo bat egin zuten Tolosako zezen-plazan, eta, emaitzarekin gustura, aurtengo ekainean abiarazi zuten zirkua gorpilen gainean. Amezketan, Galartzaren herrian, egin zituzten lehenengo saioak; geroago, Aian, Urretxun, Zumaiian... ere izan dira. Domekan Eskoriatzako karpa desmuntatu eta Nafarroara, Urdiainera, joango dira astebetean; handik Elgetara, eta azkeneko emanaldiak Do-

nostian egingo dituzte segidan. "Txikitako ametsa nuen zirkua, eta arriskatu eta errealitatea da orain. Asko ari naiz gozatzen emanaldietan eta baita muntaketa eta bestelako lanetan ere. Ederra da ezer ez dagoen tokian zerbait eraikitzea, eta politikak dira oso herritarrekin bizitzen ditugunak. Tokian tokiko ezustekoak izan ditugu, baina poliki-poliki joan gara horiei irtenbidea ematen eta horietatik ikasten", dio Iker Galartzak.

Hamar laguneko lantaldea Joseba Usabiaga (Don Martinez aurkezlea *Gure zirku*an) aspaldiko lagunari proposatu zion Galartzak "abentura berria" abiaraztea, eta poliki-poliki kide gehiago "arrimatzen" joan zitzaizela gaineratu du gaurko *Puntua* aldizkarian egin dioten elkarrizketa zabalean: "Katalunian zirkua egiten zortzi urtez ibili izan den Koldo Arakistain etorri zitzaigun hasteko, eta haren eskutik, geroago, beste

hainbat lagun: Asier Kidam magoa; Irati Gonzalez, Arakistainek moduan, telak eta akrobaziak airean eta lurtean egiten dituen; Ekain Iburguren malabarista, Garazi Pascual alanbrean ibiltzen dena, Iraitz Lizarraga trapezista... Horiez gainera, familiakoak ere edozertan laguntzeko gertu izaten ditugu beti".

Osagai tradizionalak dituen zirkua dela gaineratu du: "Betikoa da, baina gurea, tokatzen den moduan, euskal kutsuduna".



Iraitz Lizarraga trapezista. IÑAKI LOPETEGI (AGERREMEDIA.COM)

ELKARRIZKETTAP

GOIENA TELEBISTA

ASTEAZKENEAN 21:30 ETA 23:30 NEREA GARMENDIA AKTOREA
JONI UBEDAK ELKARRIZKETATUTA

EGUBAKOITZEAN 21:30 ETA 23:30 ALEX SARDUI MUSIKARIA
ILASKI SERRANOK ELKARRIZKETATUTA

goiena
Zu hemen zaude.



"Zoragarria, alaia eta anitza izango da etzikoa"

FELIPE URIARTE MENDIZALEA

Et Incarnatus orkestra, Ganbara abesbatza, Niko Etxart, Naia Robles, Petti eta Maider musikaria, domekan San Migel parrokian (19:00) egingo duten elkartasun kontzertuan

A. Aranburuzabala OÑATI

Oxigenoa euskarari 6.000 metro-tan ere bai ekimenaren alde eta proiektuan lagundu dutenak eskertzeko antolatu dute emanaldia. Felipe Uriarte da ekimenaren bultzatzailetako bat.

Sekulako kartela prestatu duzue.

Beste izen batzuk ere izan ditugu eta penaz daude ezin direlako etorri, baina datozenekin ere oso pozik gaude. Berezia eta bakarra izango da. Migel Zeberio zuzendariak eta haren orkestrak badute erraztasuna estilo eta jende ezberdinak josteko, eta egoera edo ekimen propio baterako neurriko kontzertuak egiteko. Zoragarria, alaia eta oso anitza izango dela esan dezaket.

Zelan doa sarrera salmenta?

Motel samar oraindik; nahiko genuke parrokia bete, baina ekitaldi asko daude Oñatin eta inguruan egun horretan. Sarrerak Txokolatexan eros daitezke eta egun berean parrokian, 12 eurotan; eta bost eurotan, 12 urtez beherakoentzat.

Kontzertua berezia da kartelari begiratuta, baina baita dituen helburuei dagokionez ere.

Halaxe da, bai; batez ere, euskara inguruan saretze lan bat egiten saiatzen ari gara ekimen horrekin; saretze lan hori, men-



Felipe Uriarte mendizalea. F. U.

digoizaletasuna, Himalaia, tresna hartuta egin nahi dugu.

Hamabi gazterekin Nepalera joango zara, eta horien artean lau oñatiar daude: Amaia Ugarte, Igor Mugartza, Maddi Oyhararay eta Malen Osa. Zelan ikusten dituzu?

Sasoian eta ilusioarekin. Urte osoan egin dute lan, mendira joaten, batzarrak egiten... Irteeratik hilabete eskasera gaude, joateko eta lan egiteko prest.

Zein da plana?

Urriaren 10ean abiatu eta azaroaren 8an etxeratze asmoa dugu. 24 eguneko ibilaldi luzea

egingo dugu Everest inguruan dauden lau bailaratan zehar. 5.000 metroko hiru edo lau mendi egin gura ditugu, eta 6.000 metroko beste bat.

**Mendizaletasunari dagokionez hori, baina beste lan batzuetara ere ba-
zoaztela diozue.**

Bai; hala da. Bideoak grabatuko ditugu, ETBk gero bi saio osatzeko; Euskaraldirako *bideowasap*-ak ere bidaliko ditugu; era berean, materiala lortu gura dugu bueltan Euskara-Nepal hiztegia plazaratzeko...

Egun luzeak izango dira, hortaz.

Egunero sei-zazpi ordu ibili eta gero lan horiek egiteko beste hiru bat ordu beharko ditugu.

Eta hori guztia, euskal eta Nepalgo gazteekin batera egingo duzue.

Hori da; kolore polita ematen dio horrek ekimenari. Gure hizkuntza gutxitua da eta xerpa herriko hizkuntza ere hasi da gutxitua izaten. Elkarlan polita izango da, asko ikasiko dugu.

**Ekimenari laguntzeko hainbat modu daude; adibidez, zabaldu berri du-
zuen crowdfunding kanpaina.**

Hala da, bai. *Ulule.com* atarian aurkituko duzue kanpainaren gaineko informazioa eta egin beharreko guztiak. Munduko euskal etxe guztietara zabaltzeko asmoa dugu kanpaina, eta horretan ari gara.

Hamargarrena borobiltzeko, Salto, Lenao eta Fino Oyonarte

Kulturateko areto nagusian izango dira Kulturate Akustikoak zikloko kontzertuak, 20:00etan, eta doan

A. A. ARRASATE

Lehenengo asteburuan izan ziren hiru proposamenek "listoia altu jarri zuten", musika zikloaren antolatzaileen esanetan. "Bakoi-tzak bere estiloan emanaldi interesgarriak egin zituen".

Oraingo asteburuan ere eskaintza zabala dela azaldu du Arrasateko Kultur teknikari Karmelo Alberdik: "German Salto da gaur izango dugun taldearen arima, *amerikana* estiloan koka daitezke. Egiten dituzten

zuzeneko enreferentzia oso onak jaso ditut. Bihar, zapatua, Oñatiko Lenao taldeak argitaratu berri duten *Iparaldeko argiak* lana aurkeztu du -ikus 35. orria-. Eta aurtengoa Fino Oyonartek borobilduko du; historiko bat da, urte askoan Los Enemigos taldeko kidea izandakoa. Bakarkako diskoa kaleratu du aurten, orain arte egin duen musikarekin lotura gutxi duena. Formatu aldetik ere bitxia da, gitarra, biolina eta biolontxeloa duen hirukotea delako".

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko irailako sariak!



Poltsa 
PuntuEus fundazioaren eskutik.
Parte hartzeko sariaren izena: Poltsa



Sarrerak
Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
SARRERAK



Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.kulturtekoak.com
Kulturtekoak txokoa (akustikoak)

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena"
[bazkidearen zenbakia] 688 00 00 07 zenbakia. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Inbentarioa: LDC 15/1999 legearen arabera, aldatzeko dagoen diru-zerbitzua da. Gure konpeltutako produktuak ez dira salduko. Sal- eta itzeratasunak ez dira salduko. Irteeraren egutegia ez da prestatua.
Ez da inongo diru-zerbitzua, ez da inongo diru-zerbitzua, ez da inongo diru-zerbitzua. kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

ETXAGI JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntu aldizkaria Otorduan atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jaietxea

[bazkidearen zenbakia] 688 00 00 07 zenbakira.



Puntu aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailez gozatzeko...



Bazkidetu zaitez: 2018 (irailetik aurrera): 31€
Deitu: 943 25 05 05. kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskari irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU
Errentan hartu. Errentan hartuko nuke bi edo hiru logelako etxebizitza bat. Bergaroko gara. Telefonoa: 653 29 37 04

2. GARAJEAK

204. ERRENTAN HARTU
Aretxabaleta. Kaixo. Garajea errentan hartuko nuke, furgoneta bat bertan sartzeko. 661 32 64 51 edo 652 76 10 95

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

ESKORIATZA

Mirentxu
 taberna errentan
 ematen da.
 609 42 63 23
 650 62 29 90

305. BESTELAKOAK

ARRASATE ZOO

Denda guztia
 likidatzen dugu,
 erretiroagatik.
 943 77 06 67

4. LANA

401. ESKAINTZAK

ARRASATE

Zerbitzaria
 behar da
 tabernarako.
 943 79 61 64

Bergara. Goizetan pertsona nagusi bat zaindu

eta etxeko lanak egiteko, titulua edo ziurtagiri profesionala duen pertsona bat behar dugu. Telefonoa: 943 76 46 90

402. ESKAERA

Arrasate edo Bergara. Nagusiak zainduko nituzke gauean etxean zein ospitalean. Informazio gehiagorako deitu mugikor zerbaki honetara: 616 20 49 83

Arrasate. Esperientzia handia duen emakume arduratsua gauean, 21:00etatik 8:00etara bitartean, nagusiak zaindu eta laguntzeko gertu. 631 86 83 69

Bergara. Zerbitzari, sukalde laguntzaile edota etxeko lanak egiteko prest egongo nintzateke, egunez zein gauez. Salmentan esperientzia dut. 632 62 76 07

Debagoiena. Asteburuetan edo astean zehar orduka, nagusi zaintzen, garbiketaren eta abarreak lan egingo nuke. Telefonoa: 605 91 60 13

Debagoiena. Asteburuetan nagusi zaintzen, garbiketaren eta abarreak lan egingo nuke. Telefonoa: 632 15 57 16

Debagoiena. Emakume arduratsua nagusiak zaintzeko eta garbiketarako gertu. Orduka edo egunean zehar. Telefonoa: 632 51 06 26

Debagoiena. Erizain laguntzaile nagusiak zaintzeko gertu. 678 37 32 43

Debagoiena. Esperientzia duen neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. Orduka edo egunean zehar. Telefonoa: 632 39 64 98

Debagoiena. Gizona gertu atari, taberna edo etxean garbiketarako, banaketak, baserri lanak, etxeak hustu, nagusiei lagundu edota bestelako lanak egiteko. Autoa daukat. 632 77 35 38

Debagoiena. Mutil euskalduna nagusiak zaintzeko gertu. Autoa daukat. 606 17 62 39 (Mikel)

Debagoiena. Mutila gertu zaintza lanetan, garbiketaren eta tabernan lan egiteko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 638 85 43 36

Debagoiena. Nagusi eta umeak zaintzen edota garbiketaren lan egingo nuke. Etxean bizi izaten edo bestela. Telefonoa: 612 25 46 20 (Beatriz)

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketaren lan egingo nuke. 602 17 83 21

Debagoiena. Neska arduratsua ume eta nagusiak zaintzeko, garbiketarako gertu. Etxean bertan bizi izaten, orduka zein asteburuetan. 632 91 23 61

Debagoiena. Neska arduratsua, esperientziaduna, nagusiak zaintzeko gertu. Orduka arazo barik. 688 62 52 20

Debagoiena. Neska arduratsua, soziosanitario tituladuna, orduka nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia dut zaintza lanetan. 722 56 41 16

